

"Euskal Herriko talderik handiena sor dezakegu"

Mikel Irizar | TOKIKOMeko presidentea | 7



Eroskik ez du saltokirik itxiko Euskal Herrian

Lanposturik ez duela murriztuko ere azpimarratu dute | 4

Urteko azotarik oparoena ate joka dugu: Durangoko Azoka | 31



Txirrindularitzako adin mugak eztabaida ekarri du | 28



'Arantzazu' poema aurkeztuko dute, koreografia eta guzti, Arantzazun | 34



M. Arregi eta M. Madina (Azkarreta).

BERTAN eta BERTAKOA, BETI HOBEA



Lierni Arregi (Zare).



Jon Murgiondo (Etxezuri).



Susana Aiastui (Jakion).



Mikel Lizarralde (Lizarralde Kirolak).



Idoia Elexpuru (Belar Meta).



Joxe Pablo Larrea (Urkaiko).

Ugari dira aukerak gurean bertan eta bertakoa erosteko, eta, gainera, kalitatea eta gertutasuna dira bertakoen ezaugarrietako batzuk | 2



Kontxi eta Tere Urtaza (Urtaza).

ARGAZKIAK: IRATI GOITIA

Euskaldun eta euskaltzale bizitzeko eskubide eskaera

Euskararen Egunaren bueltan bat egingo dute aldarrikapenek eta ospakizunek egunotan, txoko guztietan | IKUS 'HERRIAK' SAILA



Arrasateko Besaide elkarteko zuzendaritza. | AED

Eskaintza berezia, Arrasateko Eroski hipermerkatuari esker

Egin zaitez Goiena Klubeko bazkide eta irabazi iPad bat

2013ko abenduaren 31ra arte bazkide egiten direnen artean zozketatuko dugu iPada



GOIENA KLUBEKO BAZKIDE EGITEKO:
943 25 05 05



SINADURAK

IÑAKI CASAS | 8

MONIKA BELASTEGI | 8

MARI ASUN AGIRRE | 27

AINZANE OIARBIDE | 40

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

Bertan eta bertakoa

- ▶ Debagoieneko zortzi ekoizle eta merkatarirekin izan gara, egungo erosketak ohiturez hitz egiten
- ▶ Kalitatea eta gertutasuna dira bertako ekoizle eta merkatarien ezaugarrietako batzuk

IRATI GOITIA | ARRASATE

Ugari dira aukerak gurean bertan eta bertakoa erosteko. Sarri asko, baina, kanpora jotzen dugu erosketak egitera. Debagoieneko zortzi merkataria eta ekoizlerekin izan gara euren egoeraren eta gure ohituren gainean berbetan. Zehazki: Mikel Lizarralderekin, Tere Urtazarekin, Idoia Elexpurrekin, Jon Murgiondorekin, Susana Aiastuirekin, Lierni Arregirekin, Joxe Pablo Larrearekin eta Mikel Arregi eta Maialen Madinarekin.

Kalitatea oinarri

"Guregana etortzeko ez dago autoa hartu beharrik", dio Belar Meta

arropa dendako Idoia Elexpuruk. Eta gaineratzen du: "Etxeek eurek esaten digute zenbatera saldu behar ditugun produktuak. Beraz, txamarra batek nire dendan edo Gasteizen duen prezioa bera da. Eta komertzio txikiak saiatzen gara, adibidez, produktu bereko ale askorik ez ekartzen, herrian askorik ez dadin ikusi".

"Kalitatea eta esperientzia eskaintzen dugu guk. Urte asko daramatzagu saltzen (15 urte nituela hasi nintzen dendan lanean) eta badakigu bezeroek zer nahi duten. Bestalde, generoa oso ondo aukeratzeko dugu", dio barruko arropak saltzen dituen Urtaza dendako Tere Urtazak.

Bergarako Zare fruta dendako Lierni Arregik honakoa diosku: "Bertako fruitu eta barazkiak saltzen ditugu (Elgeta, Bergara, Eibar...). Bertakoa eta kalitatezkoa da gurea. Horretaz gain, gertutasuna ere eskaintzen dugula esango nuke. Azalera handiko dendetan bat gehiago zara; guretzako, ordea, bezeroa zara".

Gorla gainean ere izan gara Joxe Plabo Larrearekin; Urkaiko kooperatibako langilea da: "Label zigilua duten txahalak hazten dira hemen. Prozesu guztia kontrolatzen da, jaiotzetik haragia bezeroaren platerean dagoenera arte. Esaterako, txahalen elikadura naturala ziurtatuta dago. Gainera, sailkapen eta aukeraketa ere egiten da. Onenek bakarrik izaten dute label idenzapena".

Bezero gazteen falta

"Denetarikoz bezeroak ditugu, baina bezero gazteak gutxitu egin dira. Izan ere, askok kate handietara jotzen dute. Eskaintza merkeagoa izan ohi da, baina kalitatea ez da bera. Hala ere, guk ere baditugu denetarikoz prezioak", adierazi digu Urtazak.

Arregik ere gauza bera esan digu: "Gazteek, batez ere, denda handietara joan eta bertan egiten dute erosketak guztia. Jende nagusia kalera irterera ohituta dago eta euren eguneroko erosketak denda txikietan egitera. Hala ere, denetarikoz bezeroak ditugula esango nuke".

"Zapatu goizetan betiko jendea etortzen da; nagusiki, 50 eta 60



Zare fruta dendako Lierni Arregi, dendan lanean. | IRATI GOITIA


urte bitarteko bezeroak dira. Gazte asko ez dira merkatura etortzen. Beraz, argi dago mugitu egin behar duzula saltzeko. Adibidez, Ekobira egin izan denean plazan, oso ondo saldu izan dugu, baina gero jende hori ez da merkatura etortzen. Beraz, gazte jendea animatu nahiko genuke merkatura etorri eta zer dagoen ikustera", adierazi digute Mikel Arregi eta Maialen Madinak. Orain dela bi urte ekin zioten euren ekoizpenari, gazta eta gazta zaharra egiten dituzte,

baita bildotsak saldu ere. Oñatiko merkaturan eta Arantzazun saltzen dituzte gaztak.


Ildo beretik mintzo da Elexpuru: "Askok gustatuko litzaidake jendea dendara sartu eta zer dagoen ikustera etortzea. Izan ere, askotan ez dakigu beste herrietan (Oñati, Arrasate, Bergara...) ze dagoen, ze produktu saltzen diren edo ze prezioan".

Elkarren beharra

Leintz Gatzagan dagoen Jakionen baserriko fruta eta barazki kon-



EKONOMIKOA (sinplea eta bero-emailea) • **BEHEKO SUA** (sinplea eta bero-emailea) • **ESTUFAK** • **GALDAREN ORDEZKATZEAK**
Dei egiguzu eta dauden aukerez informatuko zaitugu!



Zure bainuontzia kendu eta dutxa jartzen dizugu
EGUN BATEAN!
Informa zaituz!



Marka guztiekin lan egiten dugu.



Mitarte 5, behea
Tel.: 943 71 52 51 - 605 71 66 92
ARETXABAETA





tserbak egiten dituzte. Salmenta toki handietan -Eroskin, esaterako- egiten dute, baina batez ere denda txikietan. "Guretzat funtsezkoa da kalitatezko produktuak saltzen dituzten gunetan egotea eta horiek denda txikiak dira. Horretaz gain, produktuen gaineko informazioa eskaintzen diete dendariak erosleei: nongoa den, nola dagoen egina... Azalera handikoetan ez da horrelakorik gertatzen. Beraz, guretzat oso garrantzitsua da dendari txikiekin dugun elkarlana", diosku Susana Aiastuik, Jakioneko kudeatzaileak.



Murube (Etxezuri) baserriko Jon Murgiondo bildots jaiaberriekin. | I.G.

Murube (Etxezuri) baserriko Jon Murgiondok harreman zuzenaz hitz egin digu. Gazta, esnea eta ogia ekoizten dituzte baserrian. "Inguruko herrietan saltzen dugu. Bezeroengana iristeko horixe da biderik motzena. Gainera, bertako ekoizleei erostean, badakizu ekoizpen horretan eragina izan dezakezula, baita ingurunean ere. Kanpotik datozten produktuetan eragiteko aukera, berriz, oso txikia da", dio.

Larreak ere label haragia saltzen duten harakinekin harreman zuzena dutela esan digu: "Beharrezkoa da; izan ere, eurak dira produktuak kontsumitzaileen aurrean jartzen dituztenak".

Mehatuak

Internet, merkataritza-etxe handiak eta hiriburuak izan daitezke bertakoentzako mehatzuak. "Nik uste dut guri min handien Internetek egiten digula. Hala ere, Internetez eros daitezke bizikletak, baina konponketak egin ez", dio Lizarralde Kirolak dendako Mikel Lizarralde. "Jende askok, batez ere gazteek, kanpora jotzen dute aste-

buruan. Goizean irten eta eguna pasatzera joaten dira: erosketak egin, zinemara joan, hirian ibilaldi bat egin... Horri aurre egitea zaila da, baina gure eskaintza beste ezaugarri batzuetan oinarritzen da", dio Urtazak.

Argiak itzali

"Denda guztiak ixtean ohartuko litzateke jendea merkataritza gabe herria zer izango litzatekeen", dio Arregik. "Guk herria bizirik mantentzen dugu, zerbait eskaintzen dugu. Denda bat ixtea herriko argi bat itzaltzea da", esan digu, berriz, Elexpuruk.

Sentsibilizazio kanpainak

Bat etorri dira ekoizle eta dendari guztiak: kanpainak oso ondo daude herria dinamizatzeko eta jendea erakartzeko.

Jakioneko Aiastuik dio, ordea, kanpainez gain eguneroko lanak izan beharko lukeela jendea sentsibilizatzea: "Geure egunerokoan ibili beharko genuke bertako produktuak erosteak duen garrantzia azpimarratzen".

Krisiaren beste aurpegia

Murgiondok zera esan digu: "Gure sektoreak 25 urte daramatza krisian. Orain, beste arlo batzuetara iritsi denean, agian, balioko du gauzak aldatzeko, kontsumitzeko moldea eraldatzeko, gauzak ezberdin egiteko... Horretarako erabili behar dugu krisia: gaizki dagoena aldatzeko".

Aiastui ere bat dator: "Fagorrek gertatu denaren ostean konturatu gara zein garrantzitsua den bertako produktuak kontsumitzea. Guri eragiten digun arte, ez gara arduratzen".

Egoera zailen aurrean baiko-rrak izateko dei egiten du Urtazak: "Egoera honi ere egingo diogu aurre, hori pentsatu behar dugu. Guztiok ikasiko dugu zerbait egoera txar honetatik".



AITZIBER LASARGUREN
DEBAGOIENEN MERKATARITZA
DINAMIZATZEKO BULEGOKOA

"Merkataritzak bizitza sortzen du, hori ez dugu galdu behar"

Zein da merkataritza dinamizatzeko bulegoak egiten duen lana?

Bulegoak eskaintzen duen zerbitzua merkatariei eta merkatariek elkarrekin dago bideratuta. Hein batean, aholkularitza ematen da, euren prestatuntza lantzen da, diru laguntzen informazioa ematen da, merkatariek antolatzen dituzten ekintzak prestatzen laguntzen da eta zerbait tramitatu behar bada lagundu egiten zaie. Merkatariei eta instituzioen arteko komunikabide ere izaten gara. Hala, edozein programa edo informazio interesgarri dagoenean merkatariei helarazten diegu.

Zein helbururekin bultzatzen dituzte egitasmoak?

Bi dira, nagusiki: merkataritza sektorearen profesionaltasuna handitzea eta sektorearen beraren jarduera ekonomikoa hobetzeko baldintzak sortzea.

Gauegun nolakoa da Debagoieneko merkataritzaren egoera?

Azken urteotan egoera ekonomikoa ez da erraza, orokorrean, eta Debagoiena ez da salbuespena. Azken asteotako albisteek ez dute askorik laguntzen, gainera, eta komunikabideen mezuak askotan nahiko beltzak izaten dira. Dena ez da horren beltza, baina. Merkataritzak bizitza sortzen du herrian eta hori ez dugu galdu behar. Horretan lan egiten jarraituko dugu bulegotik, merkatariek eta elkarrekin.

ESANAK

"Bezero gazteak gutxitu dira, kateetara jotzeko ohitura dute askok"

TERE URTAZA | MERKATARIA

"Kontsumitzeko moldeak aldatzeko balioko du krisiak, akaso"

JON MURGIENDO | EKOIZLEA

Hainbat sentsibilizazio kanpaina

DEBAGOIENEN EROSKETAK EGIN

Debagoieneko merkatariek elkarrekin, Mankomunitateak eta Goienak elkarlanean abian jarri duten kanpaina da, jendea erosketak bertan egitera bultzatzeko.

ARRASATE DENOK BATERA

Kartela erakuslehoan duten saltokietan produktu eta zerbitzuek %13ko deskontua, abenduaren 7ra arte.

600 EUROKO BI TXARTEL

600 euroko bi txartel zozketatuko ditu Txandak eta irabazleek egun bat izango dute dirua gastatzeko.

KORTESIAZKO ATERKIAK

Bedelkarreko elkartekideen saltokietan kortesiazko aterkiak egongo dira bezeroen eskura, abendutik aurrera.

50 ETA 100 EUROKO TXARTELAK

Abenduaren 2tik aurrera Aretxarteko saltokietan banatuko dira txartelak, 50 euroko 20 eta 100 euroko bost txartelen zozketan parte hartzeko.

GABONETAKO OTZARAK

Arrasaten 100 otzara zozketatuko dituzte eta Bergaran Gabonetako 15 sorta.



KIRURGIA OROKORREKO ZERBITZUA

Tratamenduak:

- Barizeak eta arma arma baskularrak: eskleroterapia eta kirurgia
- Uzki-patologia: hemorroideak (HAL/RAR), uzki-fisura
- Abdomen-paretako herniak
- Behazun-maskuria ateratzea (kolezistektomia) laparoskopia bidez
- Azal-tumoreak: neboa, lipomak, kisteak
- Koloneko eta hesteetako patologia
- Urgentzia kirurgia

QUIRÓN
OSPITALEA
Donostia

ESKA EZAZU ORDUA:

QUIRÓN DONOSTIA OSPITALEA | UDALAITZ ZENTRO MEDIKOAN
Tel.: 943 43 71 00 | Tel.: 943 79 44 22

RPS: 122/09

www.quiron.es

Eroskirenak "ez du batere zerikusirik" Fagor Etxetresnen egoerarekin

Eroskitik azpimarratu dute Ebidta (aktibitatea) positiboa dutela: urtero 300 milioi euro irabazten dute

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

"Eroskin ez dugu lanposturik murriztuko, ez dugu saltokirik itxiko Euskal Herrian, eta ez dago inolako eskakizunik bazkideei eginda, diru ekarpenak egiteko".

Modu horretan gezurtatu ditu Eroski Taldeak azkenaldian komunikabide askotan eta kalean bolo-bolo dabilena. Eta azpimarratu gura izan du, gainera, "Euskal Herria lurralde historikoa eta lehentasuneko lurraldea" dela Eroskirendako, "Euskal Herrian negozioa oso sendo" dutela, eta ez dagoela "zentzu horretako planteamendurik".

Gune ez prioritarioak

Xehetasunetan sartuta, talde kooperatibotik jakinarazi dute Estatu mailan "sare oso-oso sendoa" duten lehentasuneko gune batzuk dituztela (Euskal Herria, Galizia, Katalunia eta Balear Uharteak), eta baita ere beste gune batzuk horren lehentasunekoak ez direnak. Bada, onartu dute azken horietako gune batzuetan badaudela saltoki batzuk galerekin (hipermerkatuak, zehazki), eta horiendako bideragarritasun planak lantzen dituztela; eta haiek funtzionatu ezean, egia dela saltoki horiek saldu edo itxi egingo dituztela.

Fagorrek "zerikusirik ez"

Azpimarratu gura izan dute, era berean, Eroskiren egoerak ez duela "batere zerikusirik" Fagor Etxetresnen arazoarekin eta egoerarekin. "Eroskin, urtero irabazten ditugu 300 milioi euro (Ebidta). Horrekin gabilta pixkanaka zorra txikitzen. Ditugun higiezin aktiboak (Eroskik jabetzan dituen saltokiak) saltzen baditugu, berriz, errazago ordainduko dugu zorra, baina hori higiezin merkatuak berak ahalbidetu beharko du. Bien bitartean, 2011tik hona bezala, negozioari eusten gabilta urteroko 300 milioi euro Ebidtari esker. Gainera, badaude seinale batzuk erakusten dutenak higiezin

merkatua berpizten doala. Ikusi egin beharko dugu. Dena delakoa ere, 2016an, iragarritako tokian egongo gara", azpimarratu dute kooperatibatik.

2.500 milioi euroko zorra

Hain zuzen ere, kooperatibatik "iragarritako toki" hori da Eroskik iazko urtarrilean taldearen zorrarekin zerikusia duten 22 entitate finantzarioekin sinatutako hitzarmenean gauzatu beharreko plan estrategikoa.

Labur esanda, 2.500 milioi euroko zorra dauka Eroskik, azkeneko bost urteotan (2008-2013) 1.200 milioi euro amortizatu ondoren. Eta gainontzeko zorrari erantzuteko, lehen esandako moduan, banketxeekin plan estrategikoa hitzartuta dauka Arrasateko taldeak iaztik.

Lau lerro ditu plan estrategiko horrek. "Hori da gure ibilbide orria", adierazi dute, eta gaineratu horri esker badutela "marko ekonomiko-finan-

tzario egonkorra 2017ra arte lan egiteko".

Freskoak eta bertakoak

Honakoak dira, hain justu, Eroski kooperatibaren plan estrategikoko erlidoak:

Saltokiak eraldatu: "Dagoneko 12 saltoki gutiz eraldatuta daude: Nafarroan zortzi eta Bilbon, Garberan (Donostia), Zarautzen eta Albaceten bana. Hiru hipermerkatu eta bederatzi supermerkatu dira. Orain, berriz,



Eroskiren Arrasateko hipermerkatuaren goiburua

2014an zenbat saltoki eraldatu behar ditugun definitzen gabilta". Denden eraldatze horrek esan gura du dendak berritzea. Xehetasunen arabera, "freskoek eta bertako produktuek askoz ere protagonismo handiagoa" izango dute etorkizun hurbilean Eros-

Gaur beste manifestazio bat Fagor dela-eta

Ekarpenak, bazkideak eta mobilizazioak. Horiexek izan dira asteon Fagor Etxetresnekin lotutako protagonistak.

Mobilizazioei dagokionez, gaurko, egubakoitza, egin dute protestarako hitzordua. Kasu horretan, manifestazioa deitu du Fagorren ondorenen bueltan sortu den talde berriak, Bazkideak Plataformak. 18:00etan abiatuko da manifestazioa Fagorren San Andresko lantegitik.

Bazkideak Plataforma

Bazkideak Plataformari berari dagokionez, berriz, astelehenean egin zuten aurkezpena, Arrasaten. Irigarri zuten euren helburu orokorra dela langile guztiek dituzten arazoak lantzea, eta hori abiapuntu ezinbesteko ikusten dutela honako hiru puntuok defendatzea: "Bazkide izaera mantentzea betiko; lan-mahaiaren parte hartzea eta hondamendi hau eragin dutenei erantzukizunak eskatzea".

Adierazi zuten hiru puntuok defendatzeko "lan poltsa bat ezinbestekoa iruditzen" zaiela, "inguruan guztiontzat lana

sortzeko". Horren harira, "konpromisoa" gura dute, bereziki, lantalde jakin batzuekiko, "haiek gaizki irten ez daitezela".

Adibide moduan ezintasunak dituzten langileak edo 45-55 urte bitartekoak jarri zituzten. "Azken batean, horixe da-eta kooperatibismoaren filosofia: pertsonak kapitalaren aurretik jarri eta elkartasunean oinarritu; beraz, bereziki zailtasun handienak dituztenekin gogoratzea ezinbestekoa da", Bazkideak Plataformaren arabera. "Uste dugu, orokorrean,

kooperatibismoaren aita fundatzaileen balioak desagertzen joan direla aberastasuna sortu den neurrian", gaineratu zuten.

Pertsonak kapitalaren aurretik jartzea gura du Bazkideak Plataformak

"Egunero" elkartu

Bestalde, "orain arteko domino eragin negatiboa gelditzea" nahi dutela ere adierazi zuten. Eta honako konpromisoa hartu dutela jakinarazi zuten:

"Egunerokotasunean bazkide bakoitzak dituen zalantzak entzun eta bideratu". Bada, iragarri zuten Bazkideak Plataformako ordezkariak "egunero" elkartzen direla, "egunero" joaten zaie-eta kasuistika berezitua duen bazkideren bat laguntza eske. Hori horrela, edozeinek plataformarekin harremanetan jarri beharko balu, honako telefono zenbakia jarri dute haien eskura: 637 55 28 26 (Juan Antonio). Bukatzeko, sinadurak batzeko asmoa dutela ere iragarri zuten; aurrerantzean agerraldi gehiagoren berri ematen segituko dutela jakinarazi zuten; eta animatu gura dituzte "kaltetu guztiak" astean hirutan-astelehen, martitzen eta eguaztenetan- egiten dituzten giza kateetan zein bestelako mobilizazioetan parte hartzera.



Bazkideak Plataformaren aurkezpena, astelehenean. | UBANE MADERA



Ordainduko kideak Legebiltzarraren aurrean protesta egiten. | ORDAINDU

Ekarpenen auzia

Bestalde, ekarpenen auziari dagokionez, oraingo astean bi batzar esanguratsu izan ditu ekarpenengatik kaltetuta dauden bazkideak ordezkatzeko dituen Ordainduko plataformak.

Eguazten iluntzean egin zuten azkena, Mondragon taldeko Kontseilu Orokorreko presidentea Txema Gisasolarekin, besteak beste.

Ekarpenen arazoari irtenbidea emateko fondorik ez dute sortuko. Ekarpenen arazoari irtenbidea emateko fondo bat sortzea eskatzen joan ziren Ordainduko ordezkariak, eta ezezko erantzuna jaso zuten, Mondragon Taldeak ez duela fondorik sortuko. Baina hiru orduko batzarraren emaitza ez zen horren negatiboa izan, ez alde batek ez besteak ere ez dituztelako ateak itxi "bi aldeendako gogobetekoa edo

pozgarria izan daitekeen bestelako edozein irtenbiderendako", Mikel Olabek, Ordainduko bozeramaileak, jakinarazitakoaren arabera. Hori ardatz, elkarrekin batzartzen segituko konpromisoa erdiestea ere lortu zuen

Ordainduko, eta "hilabete barru-edo" atzera ere elkartuko dira bi aldeak.

"Esan daiteke batzarra pozgarri samarra izan zela, zelanbaiteko

gerturatzea ikusi dugulako. Eta horrez gainera, onartu dute, adibidez, ekarpenen kontuarekin badagoela arazoa, eta orain arte ez dute horrelakorik egin", adierazi du Olabek.


Taldeko ordezkariekin batzarrak egiten segitzeaz gain, erakundeekin berbetan segituko dutela ere iragarri du Ordainduko, eta baita mobilizazioetan ere.

Lauaxeta, Lizardi, Lete.
Hiru arnas poetiko.
Hiru ele.

Anjel Lertxundiren
bidaia literario bat.

Antton Valverderen ahotsa eta
pianoren laguntzarekin.

Liburua+ DVDa



www.pamiela.com





1. | GOIENA

kiren saltokietan, eta bezeroeki-ko harremana "askoz ere landu-agoa eta estuagoa" izango da.

'Adreilua' saldu

Finkatu duten bigarren egitekoa, berriz, Eroskiren negozioaren sendotasuna non dagoen definitzea da: "Liderrak gara bost lurralde-tan: Galizian, Euskal Herrian, Katalunian eta Balear Uhartetan. Horietan oso-oso sare sendoa dugu. Horiek dira gure lehentasunezko bost lurraldeak. Horrek ez du esan gura besteak abando-natuko ditugunik, baina bai lehentasunak aipatutako bost lurraldeetan jarriko ditugula. Bestela esanda, ez dago operazio-rik gure saltokiak saltzeko. Bai-na bai gustatuko litzaiguke adrei-lua saldu (2011ra arte egin dugu moduan) eta alokairuzko erregi-mena erabili", azaldu dute.

Eraikuntzak eurek egin

Azken horren gaineko argibideak eskatuta, Eroski Taldetik eman-dako azalpena honakoa da: "2002-tik 2007ra eraikuntzak egin geni-tuen, higiezinaren garapena guk bultzatu genuen, eta gero saldu egin genituen higiezin aktibo horiek. Saldu ostean egin genuena izan zen alokairuaren erre-gimena erabili saltoki horiek berorrek esplotatzeko. 2011n, baina, ibilgetuen merkaturia blo-keatu egin zen, eta ez dugu gehi-ago saldu. Baina 2014ra begira egongo lirake seinala batzuk esaten dutenak ibilgetuen mer-katua berraktibatu egin daite-

DATUAK

38.400
LANGILE

Guztira, 38.400 langile ditu Eroski Kooperatibak estatu osoan, baina guztiak ez dira bazkideak.

8.500
BAZKIDE

Hain justu, 38.400 langile horietatik 8.500 dira bazkideak, baina Eroski S. Kooperatibako bazkideak dira.

3.500
BAZKIDE

8.500 bazkide horiek Euskal Herrikoak eta Kantabriakoak dira. Eta baditu beste 3.500 Estatuko beste gune batzuetan.

500
BAZKIDE

Aipatutakoez gainera, beste 500 langile ditu Eroski bazkide izan barik kapitala Eroskin sartuta dutenak.

2.500
MILIOI

Gaur egun, 2.500 milioi euroko zorra dauka Eroski, azkeneko bost urteotan 1.200 milioi euro amortizatu ondoren.

keela. Hori horrela, gu gertu gaude, orain arte moduan, gure ibilgetu aktiboak saldu eta bana- ketako negozioarekin jarraitzeko, alokairuaren erregimena erabi- lita. Eta oraindik ere badugu ibilgetuen aktibo sendoa saltze- ko helburua".

200 supermerkatu gehiago

Plan estrategikoan zehaztutako hirugarren jardutekoa da super-merkatuak lehenetsiko dituztela hipermerkatuen aurretik: "Gaur egun supermerkatuak dira gure salmenten %60, eta gustatuko litzaiguke gehiago ere izatea. Gai-nera, badaude hipermerkatu batzuk galeran (Euskal Herrian ez). Adibidez, Murtzian hipermer- katu bat zabaldu genuen garatze-ko zegoen urbanizazio batean (Nueva Condomina), baina, gero, han ez dute etxerik eraiki. Eta egoera berean ditugu beste hiper-merkatu bat batzuk. Halako kasue- tan, bideragarritasun planak lantzen ditugu denda horiendako, baina ez badira berraktibatzen, edo itxi edo saldu egiten ditugu. Horren harira, 2007a ezker, kri- sia hasi zenetik hona, Eroskiren sare komertziala guztiz berregi- turatzen gabiltza: galeretan dau- den dendak ixten eta berriak zabaltzen; kasu horretan, super-merkatuak. Azken hiru urteetan zabaldu ditugu 200 supermerkatu gureak eta frankizian eta beste 300 zabaldu behar ditugu 2016ra bitartean".

Eraginkortasuna

Eta plan estrategikoarekin buka- tzeko, efizientzian ere jarriko dute indarra Eroskin 2016ra bitartean, barne eraginkortasunean, esan- dakoaren arabera: "Gastu opera- tiboak txikitu egin gura ditugu. Eta plataforma logistikoa auto- matizatu. Hala egin dugu Madri- len eta Zaragozan, eta gaur egun Elorrioko plataforma ari gara automatizatzen. Ulmarekin egin- dako proiektua da hori eta gure gastu operatiboak txikitzea eka- rriko du. Horrekin batera, hain- bat elkarteren egitura sinplifika- tu egingo dugu. Gaur egun 36 elkar- te desberdinek osatzen dute Eroski Taldea", jakinarazi dute.

2.000 saltoki pasa

Eroski Kooperatibak 2.100 salto- ki ditu, Estatu osoan, iparraldean hasi eta hegoalderaino. Saltoki horietatik 1.467 supermerkatuak dira. Etorkizunean, beraz, halako gehiago izango dira, asko, gaine- ra, frankizian.



Sortuko bozeramaile eta ordezkariak prentsaurrekoan. | JON BEREZIBAR

Debagoieneko Sortu: "Aldaketan da etorkizuna"

Sortuk dio Fago Etxetresnen likidazio hutsa eginez gero bankuek bakarrik irabaziko dutela

JON BEREZIBAR | DEBAGOIENA

Debagoieneko Sorturen arabera, murrizketa eta krisia dira "langile klaseak ezinbesteko gertae- ra gisa onartu beharko lituzkeen elementu atmosferikoak". Hala adierazi zuen martitzenean prentsaurreko bitartez. Eta egoera negatibo honetatik irteteko "irtenbideak eta alternatibak" badaudela aldarrikatu zuten. Sortuko Debagoieneko bozera- maile Ibai Redondok nabarmen- du zuen "alternatiba bakarra soberanista, ezkertiarra eta egungo hegemonia ekonomikoaren kontrakoa" dela.

Hark azaldu zuenez, langa- beziak nabarmen egin du gora, industria sektorean batez ere, eta Debagoieneko 3.775 langabe daude; salatu zuen, gainera, asko enplegu prekarioetan dabil- tzala lanean. Debagoienak, etor- kizunean ere, eskualde indus- trialia izaten jarraitu behar duela gaineratu zuen; hori bai, eredu aldatur: "Lurraldearekin orekan, eta beste sektoreekin, bereziki lehen sektorearekin, errespetuz jokatu behar du".

Beste puntu garrantzitsu bat burujabetza dela esan zuen

Redondok: "Egungo egoerara Europa zein Madrilatik ezartzen diguten ereduagatik heldu gara eta herri bezala pentsatu eta erabakitzeko ordua heldu da". Bide horretan, Gipuzkoan eta Debagoienean, urrats batzuk egin direla aipatu zuen, besteak beste, zerga-politika justuagoa lortuz, aberastasuna hobeto banatuz edo tokiko garapene- rako proiektuak martxan jarri- z; edozelan ere, nahikoa ez direla esan zuen.

200 enpresa hornitzaile

Bestalde, Fagorrek eragindakoa berbagai izan eta 1.800 koope- ratibisten auziaz gain, Fagorri lotutako 200 hornitzailearen egoe- ra larria salatu zuten: "Milaka lanpostuz, pertsonaz, ari gara". "Galera horrek basamorturantz garamatza, baina bide horretan besterik ez dela sinestarazi nahi digute eta ez da egia", esan zuen Redondok; alternatiba badela gaineratu eta esan zuen Fagor Etxetresnen likidazio hutsa egingo balitz, bankuek soilik irabaziko luketela. Bukatzeko, mobilizazioetan parte hartzeko dei egin zuen.

48. DURANGOKO AZOKA kulturaren plaza

2013ko abenduaren 5etik 8ra www.durangokoazoka.com

Antolatzailea: Durangoko Adiskideen Gerediaga

Babesle Nagusia: BFA DFB Bizkaito Foru Aldundia Diputazioa Foral de Bizkaia

Babesle Publikoak: Durango Uda - Ayuntamiento, Arabako Foru Aldundia Diputazioa Foral de Arava, Gipuzkoako Foru Aldundia Diputazioa Foral de Gipuzkoa, euskotren

Babesle Privatua: bbk, EROSKI zurekin

Facebook: @durangokoazoka



Txostena lantzen parte hartu duten adituak, MUren Aretxabaletako fakultateko hall-ean. | JON BEREZIBAR

Euskarazko hedabide sarea sendotzeko ibilbide orria

MUko ikerlariek garatutako txostena aurkeztu du TOKIKOMek asteen

JON BEREZIBAR | ARETXABALETA

Euskarazko komunikazio esparru sendo bat egituratzen jarraitu beharraz jardun dute asteen Aretxabaletako Campusean. TOKIKOM elkarteak abiarazi eta unibertsitateko ikerlariek garatu duten gogoeta aurkeztu dute, hain zuzen. Defendatzen dute "XXI. mendean komunikazioa" dela "komunitategile nagusia" eta horregatik dela hain beharrezkoa euskarazko komunikabideen sektore indar-

tsua. TOKIKOMeko bazkideek, sektoreko ordezkariak, fakultateko irakasleak eta alorreko adituek hartu zuten parte aurkezpenean, martitzenean. Mikel Irizar TOKIKOMeko presidentea, Aitor Zuberogitia eta Eneko Bidegain MUko irakasleak, Haritz Solupe, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendari ohia eta Alberto Barandiaran HEKIMENeko kidea izan ziren hizlariak. Mondragon Unibertsitateko ikerlariek landu-

tako txostena da, berriz, berbagai izan zutena.

Dokumentua, sarean

XXI. mendean komunikazioa da komunitategile nagusia" ardatz nagusia dela kontuan hartuta, hortik ondorioztatzen da euskararentzat tresna ezinbestekoa direla komunikabide eraginkorrak. Txosten osoa bloga.tokikom.com-en eskuragarri. Eta xehetasun gehiago 7. orriko elkarrizketan.

Traktore istripuan hil zenarengatik elizkizuna gaur

GOIATZ ARANA | OÑATI

Gaur, egubakoitza, 19:00etan egingo dute L.U. 56 urteko oñatiarraren aldeko hileta elizkizuna, Oñatiko San Migel parrokian.

Oñatiko Olabarrieta auzoko Bernalena baserriko bizilaguna zen 56 urteko gizonezkoa, eta auzoan bertan hil zen eguazten iluntzean, traktorea irauli eta azpian harrapatu ostean.

Maniobra egiten

15:55ean gertatu zen istripua. Tamaina txikiko atoi edo erremolke bat zeraman traktore bat kamioi batekin gurutzatu zen, bide zati estu eta aldatutsu batean. Segurtasun Saitetik adierazitakoaren arabera eta istripu lekuan zeuden lekukoek kontatu zuten, bi ibilgailuak ezin ziren batera igaro eta trak-

torearen gidariak bazterreratu eta maniobra bat egin zuen atzeraka; hain justu ere, une hartan bertan erruberek irris-tatu eta nekazaritza-ibilgailuaren desoreka eragin zuen horrek. Horren ondorioz, bertan zihon gizonezkoa errubera azpira erori zen.

Ikerketa zabalik

Larrialdi zerbitzuak bertaratu ziren, baina ezin izan zuten ezer egin oñatiarrarengatik, gidariaren heriotza baieztatu besterik ez. Eguazten iluntzean Donostiako Auzitegiko Patologiako Zerbitzura eraman zuten gorpua, han autopsia egin ziezaioten. Horrez gainera, Ertzaintzak jakinarazi du ikerketa zabaldu duela, heriotza-istripua eragin duten baldintzak zeintzuk izan ziren argitzeko.



Istripua gertatu zeneko gunea, Olabarrieta auzoan. | SERGIO CANO

Buruko gaixotasun larriak izan eta judizialki zigortuta daudenendako unitatea, gertu

Gaur, egubakoitza, inauguratuko dute Aita Mennin egokitu duten gunea

UBANE MADERA | ARRASATE

Goizean inauguratuko dute Arrasateko Gesalibar auzoko Aita Menni ospitalean egokitu duten Lege Psikiatriaren Unitatea. Buruko gaixotasun larriak izan eta gaixotasun horien ondorioz delituren bat egin ostean judizialki zigortuta edo prozedimendu judizialean sartuta dauden gaixoendako egokitutako gunea da hori, hain justu ere.

"Segurtasun neurri zorrotzak"

Aipagarria da Estatuan ezaugarri horiek dituen lehen unitatea dela gaur inauguratuko dutena; jakina, lehena eta Estatuko bakarra da, beraz. Azpimarratutakoaren arabera, "segurtasun neurririk zorrotz eta berrienak" ditu Lege Psikiatriaren Unitate berriak, "nork bere burua zauritzea eta ihes egiteko egon litezkeen arriskuak txikitzeko".

Ospitalean aspaldi garatzen hasitako ideia da orain Osasun Sailarekin elkarlanean gauzatu dutena: "Genevako eta Ingalaterrako esperientziak bisitatzen izan ginen orain 10 bat urte, Euskal Herrian behar hori dagoela ikusten genuelako. Pentsa ze abantaila izango den Euskal Herrikan kanpoko kartzeleetan dauden gaixo euskaldunendako etxetik gertu halako zerbait izatea", jakinarazi zuten ospitaletik asmoaren berri eman zutenean, iaz abenduan. Unitateak izaera soziala izango duela ere azpimarratu zuten orduan.

"Ez da kartzela izango"

Aita Menni ospitaleko Lege Psikiatrikoko Unitatea "ez da kartzela izango, ezta gutxiago ere. Buruko gaixoendako unitatea izango da, kartzela kontuak bigarren mailan geratzen dira. Azken

batean, gaixo horiek egin duten delitua buruko gaitza izatearen ondorioz besterik ez da, eta gaixo horiendako leku egokia ez da kartzela. Unitate hau gaixoei errespetuan oinarritutakoa da"; hori ere gaineratu zuten.

Ordezkarri esanguratsuak

Inaugurazio ekitaldira Gipuzkoako eta Estatuko agintariak gonbidatu dituzte; besteak beste, honakoak: Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburuorde Gillermo Viñegra, Jose Inazio Munilla gotzaia, Gipuzkoako Auzitegi Probintzialeko presidente Iñaki Subijana, Gipuzkoako Osasuneko lurralde ordezkari Rafael Urribarren, Estatuko Gobernuko Gipuzkoako ordezkariorde Jose Luis Herrador, eta Aita Menniko ordezkariak: Mikel Tellaetxe zuzendaria eta Sor Fuencisla Ama Nagusia, besteak beste.

Txus Goikoetxea euskal presoak utzi egin du gose greba, 31 egunen ostean

Protesta uztearen arrazoia, baina, ez da izan presoaren aldarrikapenak lortu izana

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Sevilla II espetxean gose greban jarraitzen zuten sei euskal presoek -atzokoarekin (eguna) 31 egun ziren gose greban- protestaldia utzi egin dute. Tartean dago Txus Goikoetxea arrasatearra, eta haren bikotekide Onintza Lopez de Munainek greba utzi eta gutxira adierazitakoaren arabera, gose grebak ez du helburua bete: "Preso baten neskalagunak eman digu albistea eta suposatzen dugu arrazoia izango zela egoera oso muturrekoa zela, oso arriskutsua. Ez dute ezer lortu, eta, beraz, printzipioz bizi baldintza berdinetan jarraituko dute eta euren eskubideak ez dira inon-

dik inora bermatuko. Horregatik, aurreikusita zeuden mobilizazioak mantendu egingo dira; izan ere, kanpotik aldarrikapenarekin jarraitu beharra dugu".

Gaur eta domekan

Hiru mobilizazio egin eta iragarri dituzte oraingo asterako: atzo iluntzean manifestazioa egin zuten Arrasaten, ezustekorik ez. Eta gaur, egubakoitza, dute hurrengo hitzordua Debagoiengan: 19:30ean Herriko Plazan elkartzeko dei egin dute. Bukatzeko, domekan, Donostian egingo duten manifestaziorako (12:00) autobusak izango dira gure ibarretik.

Mikel Irizar | TOKIKOMeko presidentea

"Ondo antolatuz gero, gai ginateke erdarazko hedabideek ateratzen diguten koska jateko"

- ▶ TOKIKOMek urte eta erdiko gogoeta prozesuaren ondorioak aurkeztu zituen martitzenean
- ▶ Euskal Hedabideen Etxea irudikatu dute; 1.000 profesionaletik gora 'biziko' ziren bertan

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

TOKIKOM elkartearen gogoeta-tik abiatuta, euskarazko komunikazio esparru sendo baten beharraz jardun dute asteon Aretxabaletako Campusean. Mikel Irizar presidentea (Ormaiztegi, 1954) ondorio moduan irudikatu duten Euskal Hedabideen Etxearen gaineko hainbat gako eman dizkigu.

Hasteko, pozik geratu zineten martitzeneko mintegiarekin?

Gustura geratu ginen, formatu berritzailea probatu genuen eta ondo funtzionatu zuen. Parte hartze kualifikatua izan zen eta azken zatian aukera izan genuen bertaratu zirenekin iritziak trukatzeke. Oso pozik, beraz.

Zeintzuk izan ziren jardunaldiaren helburuak? Bete al ziren?

Bai, mintegian nagusiki nahi genuen aurkeztu TOKIKOMen gogoeta prozesuak eman duen dokumentua. Urte eta erdiz aritu gara lanean, hainbat txosten idatzi eta ikerketa burutu dira, eta horren sintesia egin dugu amaieran. Sintesia eta txostenak jasotzen dira dokumentuan.

Euskal Hedabideen Etxea irudikatu duzue. Zer da?

Gogoeta hasi zen TOKIKOMen beharretarako, batez ere toki komunikabideen integrazioa aztertzeke. Baina aurrera egin ahala, ohartu ginen marko osoa irudikatu behar genuela, posible zela euskal hedabideen sistema osoa imajinatzea. Eta irudi horrek etxe baten forma hartu zuen. Orain arte *txabola* izan gara euskal komunikabideok; alegia, nor bere aldetik eraikitakoak. Orain etxe bateko apartamentuetan koka gaitzeko, nahi bezain autonomo baina elkarrekin, hainbat gastu partekatzeke eta lankidetzaren onurak jasotzeko. Kalkulatu dugu mila profesionaletik gora ariko ginatekeela lanean etxe horretan; hau da, Euskal Herrian inork antola lezakeen komunikazio talderik handiena. Beraz, zerbakiaren ez dugu aitzakiarik nagusi ez izateko.

Eta zein zeregin dugu tokiko hedabideok etxe horretan?

Bi solairuko etxe horretan, toki komunikabideoi dagokigu beheko solairua, gertuko informazioarena. Hor eskualdeka bateratzen bagara multimedien eta eskualde guztiak saretzen baditugu, euskararen lurralde osorako sarea sortuko genuke, hiperlokala eta goiko solairuarekin ondo konektatuta. Horretan ari gara, plataforma digital bat garatu eta eskualdekako agerkariak bultza-



Mikel Irizar, martitzeneko mintegian ateratako argazkian. | JON BEREZIBAR

tzen. Debagoiengan ere laster atzemango duzue.

Hedabide handien sinesgarritasuna zalantzan ei dago. Tokiko hedabideena ere bai?

MUn eta IKOn egin duten ikerketa batean nabarmendu da toki komunikabideek sinesgarritasun handiagoa dutela gazteen artean orokorrekin baino. Arrazoia oso pisuzkoa da: gezurra esaten badute, erraza da harrapatzea. Gainera, ez dituzte interes talde handien menpe ikusten. Hor badugu aldeko puntu bat.

Zenbateraino da garrantzitsua euskarazko tokiko hedabideen presentzia euskararen normalizazioan?

Toki komunikabide gehienak sortu ziren euskara elkarrekin,

euskararen normalizazioan eragiteko. Eta irismen handia dute, askotan dira etxe batean sartzen den euskal hedabide bakarra. Hori oso garrantzitsua da. Baina, gainera, gure gogoetan jaso dugu beste datu esanguratsu bat, MUko eta IKOko doktore-tesi batetik: Gipuzkoan gazteen artean ikus-entzunezkoen kontsumoa euskaraz baldin bada %14koa, Debagoiengan da %39koa, Goierri %31koa, Urola-Kostan %26koa eta Debabarrenean %21koa, hau da, batez bestekoaren oso gaitetik. Eta justu eskualde horietan daude garatuen toki komunikabideak. Beraz, toki komunikabideak garatzen diren heinean gazteak erakartzen dira euska-

razko kontsumora. Ondorio hau oso garrantzitsua da guretzat.

Tokiko hedabideen artean, zeintzuk dira hobetu beharreko aspektuak?

Gogoetarako egin dugun landanean datu batuak oso handiak dira. Esaterako, tokiko aldizkariaren ekoizpenak emango luke egunero 70 orrialdeko egunkari bat egiteko. Edo 270 langile edo 400.000 irakurle, ez da broma. Kontua da sakabanatuta gaudela eta ez dela tamaina hori ikusten. Hain zuzen, horretarako sortu zen TOKIKOM, hori guztia artikulatzeke eta horrela eraginkortasuna eta solaskidetzara irabazteke. Hori da hobetu beharrekoa, neurrian optimizatzea eta sarean biltzea.

Zergatik da elkarlana horren garrantzitsua?

Euskal hedabideok badugu interes komun bat bakoitzaren interes partikular eta zilegien gaitetik, eta hori da euskara. Euskara aukera bihurtu behar dugu eta lankidetzara eraiki, indar erantsia ematen digulako beste hizkuntzetakoan aldean. Teknologia ere lagun dugu, gero eta eskuragarriagoak dira lankidetzarako tresnak. Eta modu eraginkorrean antolatzen bagara, gai ginateke erdarazko hedabideek ateratzen diguten koska jateko eta berdintzeko. Elkarrekin posible da.

Finantzazioa. Zer esan gura du Deialditik hitzarmenera leloak?

Orain arte deialdien eredu erabili da batez ere Aldundiekin eta Jaurlaritzarekin, Udalekin hitzarmena gehiago. Urtez urteko deialdien sistema oso nekoso da, lan asko eskatzen die bi aldeei eta urte batetik bestera desagertu egin daiteke. Hitzarmenak eskatzen du adostasuna eraikitzea bi aldekin artean eta adostasun horren ondorioz dator dirua. Horregatik eredu sendoagoa da. Martitzenean Jaurlaritzako Baztarrika sailburordeak iragarri zuen eredu hori landu bitartean urte askorako deialdien formula aztertzen ari direla 2015ean erabiltzeko. Oso albiste ona da hori.

Euskal hedabideek neurketa sistema behar dutela diozu. Zergatik?

Oso informazio gutxi eta eskasa daukagu gure lanaren ondorioez. Erdarazko neurketetan sartzen gaituzte, baina kontuan izan gabe gure unibertso txikiagoa dela erdarazkoena baino, balizko kontsumitzaile gutxiago ditugulako. Emaizta horien gainean ezin da erabaki ganorazkorik hartu produktuak berritzeko orduan edo estrategia bat definitzerakoan. Datu zorrotzak eta ugariak behar ditugu erabaki onak hartzeko. Eta horretarako aztertu dugu Euskal Hedabideen Behatokiaren aukera. Ideia hau denon ahotan dabil, baina sakontzeko ordua etorri da. Horretarako Hekimen elkarteak sortu du lantalde bat, EHUrekin eta MUREkin, eta haien lehen zirriborroa txertatu dugu gogoetan. Neurtzetik hasi eta ikerketan jarraitzen badu, behatoki hori bihurtu daiteke denborarekin euskal hedabideen autoritate.

Zein da Goiena Komunikazio Taldearen lekua Euskal Hedabideen Etxe horretan?

Goiena paper oso garrantzitsua ari da jokatzeko toki komunikabideen artikulazioan. Berez, eredu garatuena da eta ezinbesteko erreferentzia, bai bere egitura juridikoan, bai produktuetan, teknologian edo antolamenduan. Baina ez da mugatu eredu izatera eta eragile oso aktiboa izaten ari da toki komunikabideen eraldaketan. Indartsua delako gai batzuetan ekimena hartzen du, baina beti guztion esku jarrita, guztion mesederako. TOKIKOMek asko dauka eskertzeko Goienari. Eta etorkizuneko euskal hedabideen etxean Goiena izango da beheko solairuko bizilagun oso estimatua, goiko solairuan ere eroso mugituko dena.

"Toki hedabideek gazteak erakartzen dituzte euskarazko kontsumora"

"Euskara aukera bihurtu behar dugu eta lankidetzara eraiki; indar erantsia da"

"Goiena ez da eredu izatera mugatu, oso eragile aktiboa ari da izaten guretzat"

"Euskal Herriko komunikazio talderik handiena sor dezakegu"

ZABALIK

IÑAKI CASAS
http://goiena.net/iritzia/



DNA, koop.

Jaioterriak eragin handia dauka norberarengan. Arrasatekoa naiz eta ia bizitza erdia daramat herritik kanpo bizi izaten. Bada, sarritan egon izan naiz harro nire jendeaz eta Aita Arizmendiarririk errealitate bihurtu zuen proiektu kooperatiboaz.

Are gehiago, jendaurrean ere erakutsi dut harrotasun hori: "Arrasatekoa naiz, kooperatibismoa jaio zen herrikoa". Eta gainera, kooperatibismoaren balioak defendatzen ibili izan naiz hainbat solasalditan, eta mesprexuz *sekta* moduan definitzen zutenei kasurik egin barik.

Bide batez, sekula ere ez dut lanik egin kooperatiba baten. Hala ere, ikusi dut nire herria -familiarrekoak eta lagunak- mundu osoan erreferente zela eta haren *per capita* errenta Europako handienetakoa zela.

Horregatik, harrituta eta hunkituta sentitu naiz Fagor Etxetresnei gertatu zaienaren ostean izan diren erreakzioak ikusita: batzuek kooperatibismoaren erredua zalantzan jarri dutelako; eta kooperatibistek, amildegiaren aurrean, adierazpen ulergaitz eta harrigarriak egin dituztelako.

Hainbat eta hainbat poztu egin dira gertatutakoagatik, agian beste enpresa-konfigurazio batzuekin konparatuta tratamendu fiskal desberdina dutelako kooperatibek. Baina gehien harritu nauena izan da urtetan kooperatiban lanean dabiltzanek ez konturatzea ze lotura daukaten kooperatibarekin berarekin eta, are gehiago, gertatu denaren erantzunkidetasuna ere badutela.

Argi daukat kooperatibismoa luzerako daukagula eta Arrasatek, denborarekin, iraganeko indarra berreskuratuko duela. Aurrerantzean, gure herria etorkizuneko autobideetan kokatu behar duen motorra Mondragon Unibertsitateak izan behar du.

Nire DNAn dago koop. Arrasaten jaio izateak izango zuen zerikusirik, seguru asko; izan ere, itsu-itsuan sinesten dut enpresa-proiektu horretan, eta, gainera, nire baitan dagoen zerbait da eta, gainera, ez dut eten nahi.

USTEAK USTE

MONIKA BELASTEGI | mbelastegi@goiena.com

Espiatutako irakasleak

Nafarroan oso gauza larriak gertatzen ari dira azkenaldian. Euskaraz irakasten duten irakasleak, D ereduak, espiatuak izan dira. Guztien datuak aztertu ditu poliziak eta batzuk terrorizatatzat jo dituzte. Alderdi politiko zein sindikatu batera afiliatua egotea da aurkitu dieten delitua. Eta ikasle, guraso elkarte edo Nafarroako Hezkuntza Ikuskaritazatik ez da inolako salaketarik aurkeztu. Eskandalagarria da eta halaxe izango litzakete beste herrialde baten gertatu izan balitz. Hemen, berriz, badirudi ohituta gaudela halakoetara. Ea nola bukatzen den gaia.

"Argi daukat kooperatibismoa luzerako daukagula"

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA | http://goiena.net/iritzia/



NOR-NORI-NORK!

ADIERAZPENA

JASONE MENDIZABAL | Topaguneko zuzendaria

Euskarak 365 egun

Euskararen Nazioarteko Egunaren atarian euskaraz bizi, aldarrikatu, plazaratu, izan eta ospatzeko dei egin dugu Euskaltzaleen Topagunetik, herriz herri antolatuta dauden euskaltzaleen elkarteetatik.

Aurten, euskarak 365 egun dituela aldarrikatu nahi dugu, euskaraz nonahi eta noiznahi aritu nahi dugula, baina orain eta hemen nahi dugula euskaraz bizi.

Euskaraz bizitzeko hautua egin dugunon aldarrikapena da, baina aldarrikapenetik haratago doana, ekimenetik eta antolakuntzatik asko duena.

Euskaltzaleen hautua hautu antolatua izan da urtetan.

Antolatzeko izan dugun bisioa hizkuntza komunitatearen garapenaren oinarrietako bat izan da: jakin dugu biltzen, elkarren arrimuan eragiten, hedabideak sortzen, euskarazko kulturgintzari bizia ematen, euskarazko hezkuntza antolatzen, aisialdia euskaraz bizitzeko guneak loratzen, helduak euskalduntzeko sarea osatzen eta transmisio mekanismoak martxan jartzen.

Jakin dugu, batez ere, kolore antitzeko euskaltzaleentzat

euskaltasunean oinarritutako espazio askeak egituratzen.

Hautu hori egin dugun euskaltzaleok osatzen dugu euskararen herriaren muina eta erantzukizunez jokatzeko jarraitzea dagokigu.

Gure esku dago euskararen herria osatzen jarraitzeko baldintzak sortzea.

Euskaltzaleen ekarpena behar-beharrezkoa izango da etorkizunean ere, inoren zain egon gabe, jarraitu behar dugu espazioak sortzen eta geureganatzen, harreman sareak ehuntzen, ardurak eskatzen eta hartzen, botereguneetan eta inguru hurbilenetan eragiten.

Euskaltzaleen esku dago euskararen herriaren garapena. Herrian antolatzen diren euskaltzaleen esku,

administrazioetan erabakiak hartzeko ardura duten euskaltzaleen esku, harreman sareak ehuntzen diharduten euskaltzaleen esku, enpresatan lanean eta aginte organotan ari diren euskaltzaleen esku, zure eta gure esku.

Plazara irten gaitzen, herria, kalea, plaza, euskaraz bete dezagun. Bizi gaitzen euskaldun eta euskaltzale, geu izateko euskararen herrian.

"Euskaltzaleok jarraitu behar dugu espazioak geureganatzen"

"Jakín dugu biltzen, euskarazko kulturgintzari bizia ematen..."

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA

Lehendakaria Aitor Izagire

Zuzendari nagusia Iban Arantxabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailkatu arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Disenua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
Argazkilaria Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga,
Amaia Mundifano, Zierza Martin,
Imanol Elortza

Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa Marta Leturia.

Administrazioa Agurtzane Gaintzarain,
Ane Berebizar, Iratxe Bengoa


EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA
ARRASATE 20500:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Lego Gordailua: NA-3329/2000
ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale
Difusioa: 19.951 ale



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Ez zaitez galdu.



EROSKETAK DEBAGOIENEAN EGIN!

... eta hartu parte
20 euroko
100
erosketa-bonuren
zozketan



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA



GUTUNAK

Basamortuak gehitzea gizakiarentzako arazo larria da

Josu Garitaonandia
(Equo Bergara)
Bergara

Kontinenteen azaleratik %30 inguru zuhatzekin dago eta Equo Bergararik %35 basamortutzat jo dezakegu.

Basamortu lurralde horietan milioika pertsona nola edo hala bizi dira janari apur batekin lehorteei aurre egiten.

Eta, bitartean, basoen kopurua jaisten doa.

Urtean 13 milioi hektarea baso mozten dira, ia 66 aldiz Gipuzkoaren azalera, eta, hain zuzen ere, basamortutzeko arriskua handitu egiten du horrek.

Esate baterako, Espainiako Estatuan %17 bihur daiteke basamortu, eta beste azalera handi bat degradatzen doa nekazaritza intentsiboaren eta monokultiboaren eraginez, epe motzerako etekina beste edozein gairen gainetik ipintzen baitute.

Gure inguruko mendietan *insignis* pinua da gehien ikusten duguna eta belaunaldiz belaunaldi behin eta berriz espezie bera landatzen jarraitzen dugu, eta gure basoetako lurrak degradatu.

Guk, berriz, kontsumitzaile garen neurrian, arazo larri honi konponbidea jar diezaiokegu, kontu handiagorekin gure erosketak egiten eta ongi ekoiztutako basoetako produktuak erosten.

Eta hiritar bezala kontzientzia handiagoa har dezakegu, babesten eta ahal den neurrian gehitzen gure inguruan ditugun gune berdeak, etxean, lantegian, herrian, eta abar.

Eskoriatza Garbiari eta txistularixei

Joseba Gabilondo Markes
Eskoriatza

Gogaittuta nau zaborran gai dontsu honetxegaz eta ez neuken bape gogorik ezer eskribiduteko, baiña aurreko eguenien Eskoriatzan pasatutakua pasau eta gero, ezin naz ixilik egon.

Aurreko eguenien, azaruaren 21ien, astero lez, Eskoriatza Garbiak manifestaziño zaratatsua egin euen San Pedro auzotik herriko plazaraino.

Eskubide osue daukie gure dauien besteko zaratie atarateko, hori ezin dot ukatu. Nik ez fateko dauketen moduen, ez nauelako alde.

Baiña, hortik eta agenda kulturalako panela atez atekuan kontrako pegatiñaz jostera... badau tartie.

Pentsetan jat errespetu falta itzela dala. Ez daukie eskubiderik herritarrentzako informaziño gune bat zapuzteko.

Hor erakutsi euien zelako klasia daukien Eskoriatza Garbiakuok eta manifara fan zan jentia.

Eskoriatza Garbikuek esan leikie jentia hasarre dauela eta ezin dauela kontrolau manifara fandako pertsonak egiten dauiena. Guzurra. Eurak die manifa hori

antolaketa dauienak, eta kontrolau leikie –edo biherko leukie– holako gauzak pasau ez daittezen, eta seguru nau, gaiñera, inizatiba hori eurek bultzatu euiela.

Panela pegatiñaz jostiaz gain, ikustekua izen zan zelan gelditu zan herriko plazako lurra. Dana papel eta pegatiñaz beteta.

Zueik Eskoriatza "Garbia" deketan dutsezue zeuen buruari? Eskoriatza "Zikiña" izengo zarie niretako hemendik aurrera.

Lotsagarrixa benetan aurreko egunekua.

Esan bihera dauket zuein erretolikiagaz ez nauela bape ados.

Baiña tira, azken fiñien zueik zuein iritzixa dauketzue eta neuk niria.

Baiña benetan esaten dutsuet, egin izen dittuzuen ekintzekin, eduki izen dozuen jarreragaz eta azkeneko ekimen tamalgarri horretxegaz, lotsia sentiduten dotela.

Lotsatuta nau eskoitzar moduen, nire herrixen holako jentia egon leikela pentsatuta.

Zueik zarie zaborragaz selektibuak izeten erakutsiko dskuenak? Zueik?

Herriko plazako lurra papelez lohittuta ixten dauienak? Zueik?

Herritarren informaziño panel bat pegatiñaz josten dauienak? Zueik?

Tetrabrikak kartoietatik desberdinketa ez dauienak (ikusi *Goiena.net*-en argitaratutako bideuaren azken segunduak)? Zueik?

Zabor biltze sistema bat boikoteetan dauienak ondokuen postietako kodiguak kenduaz edo pegatak pegauaz? Mesedez!

Pentsetan jat, benetan, irakurketa bat egin bihera

daukutzuela zuein ekimen eta jokaeren inguruan.

Bide batez, hemendik zoriondu gura dittut agenda kulturalako paneletik pegatak banan-banan kentzen egon zien herritarrek, heldu zein ume. Txalauk zeuei.

Txistuak, aldiz, Eskoriatza "Zikiña" eta eguenetako txistularixei.

Itxoiten

Igor San Juan
(Langile ohia)
Aramaio

Hori da Fagorreko langile ohiak garenok tokatzen zaiguna, itxoitea.

Momentu honetan, birkokatzearena da motiboa, eta gu hala bizi gara, telefono dei baten zain, gure galdera sorta argituko duena: noiz, nora, ze ordutegitan?

Hala ere, esan daiteke ohituta gaudela egoera honetara.

Izan ere, espektatibekin bizitzea tokatu zaigu azken urteotan, handiak hasieran, azken aldera ez hainbeste, eta gu haien arrastoaren atzetik ibili gara ehiza txakurren moduan.

Eta espektatibak kolore eta tamaina denetakoak izan ditugu: Zilarrezko Q-a, Urrezkoa gero, Ibarretxeren bisitak, onenak omen ginen... eta guk sinistu!

Espainiako errege Juan Carlosek gure irudi txarra hobetuko zuen bere bisitarekin... eta baten batzuek sinistu!

Enpresa erraldoi bat bihurtzeak, batez ere luzarora, onurak ekarriko zizkigula... eta hori ere sinistu!

Aliantzek enpresaren biziraupena bermatuko

zutela... eta gu txinuak gora, txinuak behera!

MCK (guretzako Jaungoikoa) libratuko gintuela hondamenditik... eta gu itxoiten!

Azken espektatiba da, hala ere, niri benetan mingarri egiten zaidana, ez baita hori ere bete.

Esan ziguten (langileoi), batez ere komunikabideen bitartez, langileei harrera egiteko bulego bat jarriko zutela, non langile guztiek gure kezkek azaldu ahal izango genituen.

Izan ere, kopuru handia garen aldetik, problematikak, kezkek, eta abar anitzak dira, eta, horregatik, tratu pertsonala edukiko dugun toki bat eskatzen dugu, horixe baikara azken finean, pertsonak, gure erru partearekin noski, baina pertsona kezkatuak. Non eta *Humanity at work* leloa daukan erakunde batean.

Oraingoan ere ez dira espektatibak bete, edo tristeago dena, oraingoan ere ez omen dugu ulertu prometitzen zen hori.

Bulego hori bestelako gauza zen: telefono deiak igortzen dituen ofizina ezkutua, eta puntu.

Egunotan, *kooperatibismo* hitza erruz dabil pertsona askoren ahotan, gainbeheran dagoen edo.

Baina benetan, ez da kooperatibismoa zalantzan dagoena, baldin eta mundu justu eta hobe bat nahi badugu, behintzat, MCCko kooperatibismoa da zalantzan dagoena.

Promesen zoru labainkorrean hor dabil, agindutako hitzaren morroi.

Gu, ohituta gaude eta, zain egongo gara, noiz jausiko ote den zain... itxoiten.

Karakterak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakararekin erantzun beharko dio.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Oñalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

Goiena Klubeko azaroko zozketak

Adi! Astelehenean, azaroko sarien irabazleak zeintzuk izan zareten esango dugu. Zorte on!



32 hazbeteko telebista



Otarrak



Sarrerak



Otarrak



Jokoak



GOIENA KLUBEKO ABANTAILA GEHIAGO:
Deskontuak komertzioetan: Debagoieneko hainbat komertzioetan deskontuak.
Goiena papera: Astelehenean ere etxean jasoko duzu asteburuko informazio guztiarekin.
Deskontuak: Goienan jartzen duzun iragarki sailkatu eta eskela guztietan.
Urteko kuota: 50 € | 943 25 05 05
kluba@goiena.com | goienakluba.com



goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

HERRIAK

BERGARA

Kirola izango dute ardatz nagusi Bergaran Euskararen Egunean

- ▶ Agorrosinen Kirola Euskaraz ekimena egingo dute abenduaren 3an, 19:30ean hasita
- ▶ Jagoba Arrasatek, Markel Irizarrek eta Igor Arenatzak hartuko dute parte tertulian

ZURIÑE V.D.M. | BERGARA

Euskararen normalizazioa lortzeko urrats garrantzitsuak egiten dira, dela euskara elkarteetatik, instituzioetatik... Eta egindako lanaren emaitzak hainbat arlotan nabaritzen dira. Dena dela, oraindik geratzen dira lan beharrek eremuak, eta kirola da horietariko bat.

Kirolean euskara bultzatzeko ahaleginari lotuta, Euskararen Egunerako, abenduaren 3rako, Kirola Euskaraz ekitaldia antolatu dute Bergarako Udalak, Jardun elkarteak eta Goiena Komunikazio Taldeak. Agorrosinen izango da, 19:30ean hasita, eta, besteak beste, tertulia egingo dute; Markel Irizarrek, Jagoba Arrasatek eta Igor Arenatzak hartuko dute parte bertan.

"Lan asko dago egiteko"

"Euskara eta kirola bateratzeko oraindik lan asko dago egiteko. Handia eta polita da aurretik daukagun erronka". Igor Arenatza UDako kirol zuzendaria da, eta ongi ezagutzen duen esparruaz egingo du berba Bergaran. Eskuak proiektua sustatu zuen; hain zuzen ere, kirola errespetuarekin, euskararekin zein ingurumenarekin lotzen duen egitasmoa.

Markel Irizar txirrindulari debagoiendarrak ere, berarentzako euskara eta kirola uztartzea funtsezkoa dela eman du aditza. "Borondaterik baldin badago, erraza eta beharrekoa ikusten dut. Euskaraz hazi eta hezi garenontzat, kirolean euskara erabiltzea, bizitzako beste esparruetan erabiltzea bezain arrunta izan beharko luke".

Egunerokoan eragin

Edozein eremutan bezalaxe, euskara kirolean txertatzeko funtsezkoa da egunerokoan eragitea. Sarritan, baina, ezinezko dela dirudi, bakoitzaren errealitateak eragozpenak ipintzen baitizkio egiteko horri.

Esate baterako, Irizarrek ingelesa erabili behar izaten du lanean, talde amerikar batean dagoelako. "Baina taldekideei euskaraz hitz batzuk irakasten saiatzen den horietariko naiz. Nork bere harri kokorra jartzen



Mojategin Kirola Euskaraz eguna egin zuten ekimean; argazkian, Debagoieneko gazteak futbolekin jokatu. | IMANOL SORIANO



Jagoba Arrasate. | REAL SOCIEDAD



Markel Irizar. | XABI URZELAI



Igor Arenatza. | GOIENA

baldin badu, euskararen erabilera zabalduko dugu". Beraz, harentzat ez da erraza euskara erabiltzea, atzerrian denbora luzea egiten duelako. "Etxean egoterakoan ikusten dut euskal kirolari askok euskara erabiltzen dutela. Eta bide horretan, niretzako erreferentia da Real".

Eta azaroaren 3an lehenengo mailako futbol talde donostiarreko entrenatzaile Jagoba Arrasatek bere bizipenak konpartituko ditu Bergarako ekimenean. Izan ere, Markel Irizarrek berak dioen bezala, "ia jokalariek gehienak dira euskaldunak eta euskal hiztunak".

ESANAK

"Gogoia badago, euskara eta kirola uztartzea erraza da"

MARKEL IRIZAR | TXIRRINDULARIA

"Kirolean euskaraz aritzea posible dela ikusi dugu"

IGOR ARENATZA | UDA-KO KIROL ZUZENDARIA

Etorkizunari baikortasunez

Kirolari buruz hitz egiterakoan esparru zabal bati edo pertsona ugariri buruz egin behar da berba: kirolariak, entrenatzaileak, klubak, gurasoak... Eta eremu guztietan eragitea funtsezkoa dela uste du Arenatzak. "Hori bai, gazte-gaztetatik hartu behar dira ohiturak onak, dela errespetua eta talde lana eta halako balioak sustatuz, zein hizkuntzaren erabilera sakonduz".

Etorkizunagarik galdetuta, Bergaran hizlari arituko diren bi debagoiendarrek baikor ikusten dute geroa. Arenatzak dio argi geratu dela kirolean euskaraz aritzea posible dela. "Esaterako, ibarreko futbol eskolei begiratuta, gauzak asko aldatu direla ohartuko gara. Oso harro sentitzen naiz egoera nola dagoen ikusita, helburu bat ipini genion gure buruari eta betetzen goaz".

Eta Irizarrek, ostera, hauxe galdetzen dio bere buruari: "Hein handi batean, euskara izanda pertsona euskaldun egiten duena, zergatik gurea ez den beste hizkuntza bat erabili?". Eta txirrindulariak gaineratzen du: "Inoren eta ezerekin kontra joan gabe, geurea defendatu behar dugu, eta gure altxorretako bat hizkuntza da; beraz, guztion artean zain dezagun".

Euskarak 356 egun dio aurtengo leloak. "Merezi duelako, saiatu behar dugu".

Entrenatzaile titulua euskaraz

Kirolarekin lotutako jende asko eta asko dago ibarrean; eta horietariko ugari dira entrenatzaileak. Aurten, gainera, lehenengo aldiz entrenatzaile titulua Debagoienean ateratzeko aukera dago eta horretan dihardute 30 lagun inguruk. Bultzatzaileetako bat da Igor Arenatza bera. "Kirolenetik entrenatzaileen lehen mailako titulua ekarri dugu Arrasatera; izan ere, beti joan behar izan du jendeak kanpora. Egun batean, entrenatzaile profila zutenak 40 urtetik beherakoak zirela eta euskaldunak zirela ikusi genuen eta oso garrantzitsua iruditu zitzaigun euskaraz izatea". Gainera, horrelako titulu bat %100ean euskaraz ematen den lehenengo aldia da eta 30 lagun daude, ia guztiak debagoiendarrak. "Futbola teknifikatu eta euskarazko titulua jasoko dute entrenatzaileek". Kirola euskaratzeko beste urrats bat egin da, argi eta garbi, modu horretan.

AEDren aztarnaren urteurren biribila

- ▶ AEDk euskararen alde 30 urte beteko ditu gaur
- ▶ Urte hauetan euskararen erabilera bikoiztu egin da

IMANOL GALLEGU / J.B. | ARRASATE
1983 hartan oso gutxi egiten zuten euskararen aldeko apustua. Akaso, ikuspegi edo testuinguru ezkor hark eman zion AED elkarteari lan egiteko beti izan duen grina. Apurka-apurka euskarak kalean berea zuen tokia bereganatu zuen. Gaur ospatuko du AEDk bere urtemuga, eta atzera begiratzuz gero, 30 urteko ibilbidearen ostean, harro egoteko moduko mugarri asko lortu dituela ikusten da. "Elkartea martxan jarri zenean euskarak kalean %14ko erabilpena zuen; orain

(2011ko datua) %34ra iritsi gara", aipatu du Itxaro Artola AEDko kideak.

Hala ere, Artolak ez dio ikuspuntu edo datu positibo horri bakarrik erreparatzen. Hark argi dauka euskarak oraindik ibilbide luzea duela. "Norbanakoak sinistu beharra du euskararen esparruan garrantzi handia duela", dio Artolak. AEDko kidearen ustez, "administrazio eta erakundeek lan handia egin arren, herritarrek indar handia dute". Horregatik, hasiera-hasieratik, AEDk bere arreta kalean jarri zuen. Bide

horretatik sortu zuen *Arrasate Press* astekaria.

Euskal hedabideak

AED elkarteak baino hiru egun geroago, abenduaren 2an, astelehenean hain zuzen ere, *Arrasate Press* astekariak 25 urte beteko ditu. Apustu ausarta izan zen hura, eta Joxe Arantzabalek gidatutako lantaldeak erronka eta konplexu askori aurre egin behar izan zien. 25 urte geroago, eta *Goiena* paperaren barruan, *Arrasate Press*-en aztarna oso agerikoa da.



Arrasate Press astekariaren lehen zenbakia. | GOIENA

Urtemugaren bertsoa

Bi urtemugak gaur eta astelehenean ospatuko dituztenez, AEDko Unai Bergaretxek bertso hau sortu zuen.

Doinua: Norteko trenbideari

Atzo goizean izan zela ta
Pasa dira hogeitamar urte
Arrasate Euskaldun
Dezagunek be
Egin dituenak oin arte
Euskalgintzan lanean eta
Arrasateko herrian parte
Asko egin da, lana badago,
Hau euskaldundu bitarte.

Garai berean arrotza guztiz
Genuen guk euskaraz
prentsa
Egoera zen hutsala eta
Kioskoan erabat beltza
Arrasate Press sortu zen eta
Hazi zen bai esperantza
Hogeiabost bat urte
hauetan
Zenbat aldatu den pentsa.

AEDren lanak eragin dute
Euskeraz jarduteko hazia
Traba, oztopo asko izan da
Kontzientzi eza nagusia
Norbanakoan konpromisoaz
Euskeraz egiteko jaurzia
Etxean ere zer ikasia
Izan ohi da zer ikusia.

Idatzizkoan badago orain
Mila eta bat aukera,
horri gehituaz, irratia ta
internet, TB, papera,
euskaraz kontsumitzen ote
daukat orain nik galdera,
baiezkoan naiz, goraka doa,
apurka-apurka gainera.

Zorionak eman behar ta
Jarraitu bakoitzak jarduna
Gertuan dugu abenduak
hiru
Izenez euskararen eguna,
Euskaldunok euskaraz
mintzo
Ospatu behar duguna
Ta gogoratu urte osoan
Egunero egin, laguna!

Unai Bergaretxe

Zabaldu eta gaztetu

Kontrakoa pentsatzea logikoa izango balitz ere, AED elkarteak 30 urte hauetan heltzeaz gainera, gaztetu ere egin da. "2010. urtean lehentasun bezala jarri genuen eta hortik sortu zen TTak taldea", dio Artolak. Talde berri honekin AEDk bere lan esparrua handitzeaz gainera, erakundea eta bere eragina ere gaztetu egin zen. "Askotan entzuten da gazteak ez direla inplikatu eta guk este-reotipo hori gezurtatu egin dugu", aipatzen du Artolak.

Jone Miren Hernandez gizar-te antropologiako irakasleak ere antzerako iritzia dauka: "Gazteekin loturiko arazo edo kezkek gizarte oso baten sintomak edo metaforak dira". Argi dago AED elkarteari erronkak gustatzen

Abenduaren 3ko ekintza

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
Gozatu euskara ahoan
kanpainaren amaiera, sorpresa
"erraldi eta gozo" batekin.

ERDU-AEK EUSKALTEGIA
Txisteak eta kontakizunak
euskaraz nola egin ari dira
ikasten. Merienda egingo dute,
eta euskaltegia apaintzeko
asmoa ere badute.

UDAL EUSKALTEGIA
Txokolate-jana egun osoan.
Arratsaldean euskaltegiko
umeekin giltza bat osatuko
dute Arimazubín. Nerabeekin
eta helduekin *Berbagunea*
egingo dute, hainbat gai
jorratuta talde txikietan. 20
minutuan behin mahaiz aldatu
eta beste partaide batzuekin
elkartuko dira berrikerarako.


ARRASATE HERRI ESKOLA
Musakolan eta Bedoñabén
Buztantxo euskararen
maskotaren bisita izango dute.
Erguinen giltzaren erreplika
egingo dute, eta baita beste
hainbat ekintza ere: ipuinak,
jolasak, bertsoak, kantua...

ARIZMENDI IKASTOLA
Gune bakoitzean ekintzak.
LHko 5. mailatik
batxilergoraino bideo bat ari
dira prestatzen ikasle, ikasle
ohi eta langileekin.

ARRASATEKO INSTITUTUA
Lelo lehiaketa, urtero moduan.
Azken zortzi urteetako leloak

IBAI-ARTEK AURKEZTEN DU...


AZARO MUSIKALA




Noiz: Azaroak 9, 16, 23, 30

Ordua: 18:00 - 20:00


Tokia: Arrasateko kaleetan zehar




EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



Arrasateko Udala eta Merkataritza
Asociación de Comerciantes y Sector Servicios



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

zaizkiola eta testuinguru ezkorren aurrean hazi egiten dela. Euskararen erabilerarekin egin zuen moduan, herriko zenbait gazte ere xaxatu ditu, eta egun, TTak taldea bere ekimen egutegi propioa izatera iritsi da.

Euskararen giltza

Euskararen Nazioarteko Eguna dela-eta, dei egin diete herritarrei urte osoa euskararen egun bihurtzeko. Arrasaten, bihar, 12:00etan euskararen aldeko aldarria egingo dute Herriko Plazan. Bertan batuko diren euskaltzaleek giltza handi bat sortuko dute ondoren, argazki bat ateratzeko. Artolak zehaztu duenez: "Gure baitan dago urtean 365 egunez euskaraz bizitzeko nahia, borondatea eta gakoa". Izan ere, lehen ere aipatu duenez: "Euskaraz bizi izateko baldintzak sortu ditugu, sortzen ari gara eta gehiago sortu nahi ditugu; horretarako, euskaltzaleon ekarpena behar-beharrezkoa da".

Aldi berean, *Euskarak 365 egun* leloa daukan kartela banatuko da egubakoitzeko GOIENA paperarekin batera. Kartel horiek ikusteko moduko lekuetan itsatsiko dituzte zapatu eguerdia baino lehen. Kartelak honako tokietan jartzea proposatu dute: etxeko atarrietan, balkoietan, etxeko leihoren batean, tabernetan... Euskarak bere tokia izan dezan, edozein toki da baligarria.

Achon: "Arrasate erre ostean, erabat aldatu zen bizitza ikusteko modua"

'Arrasateko iragana astintzen' zikloaren bigarren saioa, oso arrakastatsua

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Arrasate Zientzia Elkartearen eskutik, *Arrasateko iragana astintzen* hitzaldi zikloaren bigarren saioa egin zuten martitzenean. Jose Angel Achon historialaria izan zen gonbidatua; arrasatearren artean jakin-min handia pizten duen garaia landu zuen, Arrasate bera erre zuteneko (1448) aroa, hain justu.

Hitzaldia Arrasateko erreketatik abiatu zuen Achonek. Erreketara nola heldu zen azaldu zuen, eta baita krisi hartatik nola irten zen ere: "Arrasate erre osteko krisi garaian, erabat aldatu zen bizitza ikusteko modua. Dena nahasten den garai bat da. Batetik, barneko prozesua dago: bandoak, hiribildua eta Gipuzkoaren sorrera. Bestetik, kanpoko prozesua: Errenazimendua, Amerika deskubritzea eta monarkia katolikoa. Hori guztia aldaketa eta transformazio garai



Kulturate txiki geratu zen martitzeneko hitzaldian. | JOKIN BEREZIARTUA

baten mamitzen da. Beraz, ikeritzeko eta ikasteko zinez interesgarria izan zen garai hura".

Kulturate txiki geratu zen

Kulturateko areto nagusia txiki geratu zen; batzuek zutik jarraitu behar izan zuten hitzaldia

eta berandu heldu zirenak, berriz, ezin izan ziren sartu: "Harrিতa bezain txundituta nago asistentziarekin, eskerrik asko. Era berean, liluratuta nago aspaldi urte asko pasa nituen lekura itzuli naizelako", esan zuen hizlariak saioa hasi baino lehen.



Jarrera eta eraso sexistak salatzen agerraldia

Emakume Txokoak eta Udaleko Berdintasun Sailak deituta, *Emakumeei erasorik ez!* lelopean elkarretaratzea egin zuten astelehenean Herriko Plazan. Gainera, mikromatxismoaren gaineko ikus-entzunezko bat ere erakutsi zuten. Maider Morrased, Berdintasun zinegotziak, oharkabean pasatzen diren jarrera horiek salatu zituen. Jarrera horiek "oraindik ere" edozein testuingurutan gertatzen direla gaineratu zuen Morrased.

Kurtzetxiki balioan jartzen laguntzeko auzolana bihar

Kurtzetxiki balioan jartzeko proiektuaren barruan, auzolana egingo dute bihar. Hiru lan egingo dira: zuhaitzak babestu, itxituretan animalien dako pasoak zabaldu eta bide zaharrak txukundu. Bagarak eta Udalak elkarlanean antolatu dute; izena eman daiteke oraindik: gureztatu@bagara.net helbidera idatzi edo 943 79 68 48 telefono zenbakira deitu. 09:00etan elkartuko dira, Bedoñako aparkalekuan.

San Andres eguna ospatuko dute bihar Gudarien plazan

San Andres eguna dela-eta, bihar arratsalderako egitaraua prestatu dute auzokideek, auzo alkatetzak eta Txatxilipurdik kudeatzen duen San Andresko gazte txokoak. Haur eta gazteendako ekintzak antolatu dituzte, bereziki: aurpegi-margotzea eta globoflexia tailerra (16:30), mahai-futbol txapelketa (17:30), txokolatjana (18:00) eta buruhandiak (18:30). Gudarien plazan izango dira ekintza guztiak.

Santa Marina auzoko ludotekan ate irekiak izango dituzte gaur

Ate irekiak izan dituzte asteon Txatxilipurdik kudeatzen dituen hiru ludoteketan. Eguaztenean Usaetxen animaliaz osatutako apaingarririk egin zizuten ludoteka apaintzeko. Atzo, pizzak egin eta jateko aukera egon zen Okenoko ludotekan eta gaur, amaitzeko, hazitegia sortuko dute Santa Marina auzokoan. Joan den hilabetean ortua prestatu zuten eta orain landareak jarriko dituzte. Argi-bide gehiagorako, deitu 943 79 54 46 telefono zenbakira.

nagusiak

jarriko dituzte bi eraikinen kanpoaldean, 80 bat lelo. Euskara Batzordeak 450 ikaslerendako txokolatlea prestatuko du eta irakasleek kafe-tertulia egingo dute. Bideo barregarriak ere jarriko dituzte.

EKIN EMAKUMEA

Kustomizazio tailerrean ari diren neskek argazki bereziak aterako dituzte Euskararen Eguna dela-eta. Hilaren 5ean, euskararen jatorriaren gaineko saioa egingo dute etorkinekin.

"Zuk ere egiten duzu ezikusiarrena, ez geratzeko." Ona da gauza berdin asko edukitzea

Zatoz **OSO**Ara: dena duzu, gutxiago ordainduta.

OSOArekin soilik duzu aukera nahi beste hitz egiteko, behar duzun guztietan nabigatzeko eta azken belaunaldiko smartphone bat izateko prezio honen truke.

SAMSUNG GALAXY S4 MINI



+

DEI-KOPURU + 1GB MUGAGABEA + INTERNETERAKO

DENA 29'9€ /HIL



Kontratatu 1717an edo www.euskaltel.com-en Bezero berrientzat eta gure beliko bezeroentzat



Balio ezazu etxean Zuzen bidetako Internet duten eta mugikorra Euskaltelera ekartzen duten eta 20 edo 25 Tarifa Finkoa kontratatzen duten bezeroentzako eskaintza eskaintza hau. 2014/01/06a baino lehen egiten diren lehen 1.000 ofertaz mugatuta. Tarifan 7.000 minutu eta 1 GB sartzen dira deitzeko eta estatu baruko trafikorako. Hautatutako terminalaren heliko kuota 24 hilabetez ordaintzeko konpromisoa. Informazio gehiago, hemen: www.euskaltel.com. BEZ ez dago sartuta.

Areto futboleko talde federatua sortu dute zenbait gaztek Arrasaten: Mondrate

- ▶ Arrasaten areto futbola sustatu gura dute, eta, hain zuzen ere, horregatik sortu dute taldea
- ▶ Aurten talde bakarra izango dute, baina gutxika beste adin eta maila batzuetako taldeak nahi dituzte

JOKIN MUJIKAI | ARRASATE

Areto futbola ikusteko aukera dute arrasatearrek aurtengo denboralditik aurrera. Lagun talde bateko hiru gazte elkartu ziren, futbolzaleak hirurak. Euren artean talde bat sortzeko motibatuta zeuden, eta Arrasaten areto futboleko talde federaturik ez zegoela ohartu ziren. Hala, Gipuzkoako Federaziora joan eta izen-emate prozesua hasi zuten, Arrasaten areto futboleko talde bat sortzeko ilusioarekin.

Txantxetako proiektua zela ematen zuen hasieran, baina taldearekin konpromisoa izango zuten jokalariek batzen hasi ziren. Pentsatu baino lehenago lortu zituzten behar ziren jokalariek, eta, behin hori eginda, entrenatzaile eta delegatu lanak egiteko gai izango zen norbaiten bila hasi ziren. Jon Zabala arrasatearrari eman zioten taldea zuzentzeko ardura. Lehenengo aldiz entrenatzen du areto futboleko talde bat Zabala; hala ere, jokalariei gauza asko transmititzen dizkien mutila da, dudarik gabe. Partiduak ikustera joatea besterik ez dago



Mondrate taldea, Musakolako kiroldegian. | IÑIGO ARANBURU

esandako hori frogatzeko. Gipuzkoako ligako erregional mailako hirugarren mailan lehiatzen dira arrasatearrak, eta oso liga hasiera on egin dute. Bederatzi jardunaldiren ondoren, sailkapeneko bigarren postuan daude 21 punturekin, eta ez dute partidu bat bera ere galdu.

Zuzendaritza-taldea

Jakina da talde federatu bat zuzendaritza-talde batek zuzendu behar duela. Bada, Mondrate jokalarien artean zuzentzen dute. Finantzazioa, instalazioak, materiala... ezinbestekoak diren gauzak dira, eta entrenatzailearen eta jokalarien artean lortu dute dena. Hain-

bat lekutan aurkeztu zuten proiektua, eta Udalak Musakolako eta Iturripeko kantxak erabiltzeko aukera eman zien. Martitzen eta eguaztenetan entrenatzen dira. Egia esan, ez dira ordu egokienak, baina eskubaloia eta saskibaloiko taldeekin lehentasuna dute, herrian daukaten garrantzia dela eta.

JONATAN RASO
JOKALARIA

"Norberak sortutako taldean jokatzeko zoragarria da"

Jonatan Mondrateko jokalaria eta sortzaileetako bat da. Oso pozik dago martxan jarri zuten proiektuarekin.



IÑIGO ARANBURU

Nola sortu zen ideia?

Arrasalde normal baten lagun artean egin genuen komentario batetik dator dena. Ea gure artean areto futboleko talde bat egingo genuen. Bada, halako gauza batetik horrelako proiektua sortu izana sekulakoa da.

Nola ikusten duzu talde honen etorkizuna?

Etorkizunerako gure helburu nagusia da Arrasaten areto futbolak bere lekua edukitzea. Horretarako, garbi daukagu gure aldetik esfortzu handia egin beharko dugula; lan handia eskatzen du talde bat aurrera eramateak, baina lanaren ostean norberak sortutako taldearekin jokatzeko ikuspeia zoragarria da.

ZALDIBAR

EMAITZAK

Iluntz - Birigarruak	9-0
Betrayer - Jibaros F.C.	8-4
Haizea's Weah - Fidel & Discipulos	7-4
Lasagabaster - Birigarruak	7-1
Dribling - Iluntz	4-3
Abokajarro - Sonografos	2-4
Aldatz - Ostantz	5-4
Cantauri - Sport in tus bragas	3-6

SAILKAPENA

TALDEA	J	P
1 Dribling	2	6
2 Aldatz	2	6
3 Lasagabaster	2	6
4 Haizea's Weah	2	6
5 Betrayer	2	6
6 Iluntz	2	3
7 Fidel & Discipulos	2	3
8 Sport in tus bragas	2	3
9 Sonografos	2	3
10 Ostantz	2	0
11 Abokajarro	2	0
12 Jibaros F.C.	2	0
13 Cantauri	2	0
14 Birigarruak	2	0

PARTIDUAK

AZARDAK 30. ZAPATUA	
10:00	Sport in tus bragas - Iluntz Dribling
11:00	Lasagabaster - Dribling Iluntz
12:00	Aldatz - Birigarruak Sport in tus bragas
13:00	Sonografos - Haizea's Weah Aldatz
ABENDUAK 1. DOMEKA	
10:30	Abokajarro - Jibaros F.C. Fidel & Discipulos
11:30	Fidel & Discipulos - Cantauri Lasagabaster
12:30	Betrayer - Ostantz Cantauri

La Peña taldearen kantxa zailean jokatu du bihar MUK (18:15)

Arrasatearrak denboraldi hasiera onarekin jarraitzeko asmoz doaz Bilbora

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Saskibaloiko Lehen Nazional Mailan La Peña taldearen aurka jokatu du bihar Mondragon Unibertsitateak (18:15). Denboraldi hasiera paregabearekin jarraitzeko asmoz joango dira Bilbora Josu Larreategiren mutirik, baina garaipena garesti egongo dela gogoratu digu Juan Carlos Davila bigarren entrenatzaileak: "Kantxa zaila da. Oso talde gogorra dute, eskarmentu handikoa. Gure lana oso ondo egin beharko dugu garaipena eskuratzeko".

Sailkapenean behealdean daude bilbotarrak baina, Davilaren arabera, euren kantxan oso gogorrak dira. MU, berriz, bigarren sailkatua da eta lehen sailkatua den Bide Beti taldearen puntu berberak ditu (15).

"Taldea ondo dago, batuta"

Arrasatearrak "partiduz partiduz" doaz, baina ukazina da aurreko urteekin alderatuz aurtengo denboraldiak askoz itxura hobea duela: "Aurreko urteetan sailkapenean erdialdean edo behealdean egon izan gara eta aurten, berriz, gora begira gaude hasie-



Martxel Balantzategi baloiaekin, jokaldia egin guran. | JOSETXO ARANTZABAL

ratik. Hori bai, partiduz partiduz joango gara, helburu zehatzik jarri barik".

Denboraldia luzea da oraindik eta arrasatearrek orain arte bezain erregularrak izan beharko dute denboraldi amaieran goiko pos-

tuetan jarraitzeko. Aurtengo arrakastaren gakoan artean taldea "batuta" egotea aipatu digu Davilak: "Taldea oso ondo dago, batuta. Jokalariek oso ondo eza- gutzen dute elkar eta fitxaketek ere asko lagundu dute".

Aikido taldearen 25. urteurrena ospatuko dute bihar

Arrasateko Aikido taldeak 25 urte bete dituela-eta, ospakizun eguna antolatu dute bihar. Antolatzaileen helburua da urte hauetan guztietan Aikido taldeak pasa diren ikasleekin elkartu eta egun eder bat pasatzea. Eguneko ikasleak ere gonbidatu dituzte ospakizunera. Sara jatetxean egingo dute afaria, 21:30ean. Afalurretik Izozkitegi tabernan elkartuko dira, 18:00etan, trago batzuk hartzeko. Argibide gehiagorako, deitu 669 66 33 66 telefonora.

Besaidek bazkidezeko eta federatzeko deia egin du 2014rako

Besaide Mendizale Elkartek 2014ra begira bazkide eta federatu lizentziak berritzeko prozesua abiatuko du abenduan. Hainbat tramite egin behar dituztenez, elkar- teko bazkideei eskatu diete datuak eguneratzeko.

Horretarako, hiru aukera jarri dituzte: abenduaren 9an, 10ean edo 11n elkartearen egoitzara joatea 19:30etik 20:30era, besaide@besaide.org helbide elektronikora idaztea edota 943 77 30 68 zenbakira faxa bidaltzea.

Garikoitz Lopez de Munain | Antolatzailea eta gai jartzailea

"Ez nituzke herriko bertsolariak gutxietsiko, maila handia dute"

Bertso afarirako txartelak 17 euroren truke Irati tabernan eros daitezke

IMANOL GALLEGO | ARRASATE

Auzitegi Nazionalak martxan jarritako prozesuaren ondotik sortu zen *Irati libre! elkartasunetik konpromisora* ekimena. Herriarren laguntzarekin tabernari babesa emateko ekimen ugari antolatu dituzte; tartean, gaur gauean 21:00etan egingo duten bertso afaria.

Ekitaldi hori ere Auzitegi Nazionalatik iritsitako prozesuari aurre egiteko ekimen bat da?

Aurre egiteko baino gehiago, berau salatu eta azaleratzeko modu bat da. Urriaren ekin zion epaileak herriko tabernen auziari eta horrekin batera gazte mugimenduetan ere sarekada egin zuen. Azken aste hauetan ere ekintza asko burutu ditugu.

Arrasateren kasuan, gainera, prozesu horrek garrantzi berezia dauka.

Hala da, bai; batetik, Auzitegiak bost lokal itxi gura dituelako; eta bestetik, Irati Muxika Arrasateko Irati tabernako zerbitzariak beste hiru gazterekin batera desobedientzia zibilaren bidea hartu duelako. Ekintza hauekin euren nolabaiteko babesa eman nahi diegu.

Gaurkoa bertso afaria izango da; zergatik?

Urriaren hasi ziren ekintza ezberdinak egiten, tartean *Irati libre!* eguna. Egun hartatik aurrera, eta prozesuak irauten duen bitartean elkarretaratzeak, kale agerraldiak... egin dira. Ekintza gehiago prestatzen ari ginela sortu zen bertso afariaren kontu hau, eta honekin aurrera egitea pentsatu genuen.

Hiru bertsolari izango dira bertan, bi herrikoak dira eta bestea une honetan maila gorenean dagoen



Lopez de Munain izango da gai jartzaileetako bat. | IMANOL GALLEGO

"Janari gozoa, etxeko giro eta bertsoak izango dira nagusi afarian"

Beñat Gaztelumendi bertsolaria da. Nola lortu duzue?

Ez da lan erraza izan. *Basarri* bertsolariaren omenez Zarautzen bertso jaialdi bat antolatzen ari dira, eta egun honetarako bertsolari askok ezin zutela aipatu ziguten. Zorionez, Beñat Gaztelumendik hasieratik baiezkoa eman zigun. Hala ere, harekin hitz egin genuenean ez genekien BECeko finalean egongo zela.

Eta etxekoekin nola izan zen?

Errazagoa izan zen. Hasieratik ez zuten arazorik jarri. Jokin Labaien aspalditik ezagutzen dugu eta Ane Zuazubiskarrek,

oso gaztea den arren, ibilbide luzea izango duelakoan gaude. 16-17 urte ditu eta hasi da gauzak egiten. Harentzat plaza polita izango zelakoan egin genion gonbita. Egia da Gaztelumendiren izena dela ezagunena, baina nik ez nituzke etxeko bertsolariak gutxietsiko, hauek ere bertsolari handiak dira.

Bertaratzten direnek ze aurkituko dute afarian?

Dudarik gabe, elkartean etxeko giroa izango da nagusi. Bazkari gozoaz gainera, giro beroa ere egongo da bertan. Bi gai jartzaile egongo gara afariari saltsa apur bat jartzeko.

Bertso afariaren hasiera ordua zehaztu duzue, baina amaiera?

Hori zehaztea zailagoa da. Antolatzaileetako bat naizen heinean, saioa berez gauerdi inguruan amaituko dela esan dezaket, baina ziur naiz askok ez dutela gaua ordu horretan amaituko.

'La tabernera del puerto' zarzuelaren azken emanaldiak gaur eta bihar

Sarrerak antzokiko leihatilan ez ezik Arrasateko Udaleko webgunean ere eskura daitezke

I.G. | ARRASATE

Aurreko astean Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak *La tabernera del puerto* estreinatutako txalo artean. Marolaren, Leandroren eta Juan de Egiaren arteko amodio-interes kontuak, Abel marinel gaztearen bizipenak... Cantabreda herrian gertatzen den guztia ikusteko lehen aukera gaur izango da, 20:00etan hasita. Hurrengo, aldiz, bihar izango da; hori, baina, 19:30ean.

Soro zabalek sortutako konposizioari herriarrek bizitza nola ematen dioten ikusteko aukera paregabea da.

Bi saioetako sarrerak

Amaia antzokiko ekitaldi guztiakin bezala, antzokiko txartel



Zarzuelako une bat. | JOSETXO ARANTZABAL

-leihatilan eskura daitezke gertzen diren sarrerak. Hala ere, Arrasateko udal webgunean ere horiek eskuratzeko zuzeneko esteka dago.

Indarkeria matxista gaitzesteko, hitz poetikoen samurdura

I.G. | ARRASATE

Indarkeriaren kontra hitza, burlen kontra musika. Azaroaren 25eko egunaren harira Emakume Txokoak poesia errezitaldi berezia antolatu du gaurko. Bertan, Miren Agur Meabe, Castillo Suarez eta Arantza Santesteban poemagileek Arantza Vicedoren gitarraren laguntza izango dute.

Emakumeen begiradak plazara! ekitaldi berezian, euren begirada propioa lantzen saiatzen diren poetisak izango ditugu geurean. Munduari botatzen dioten begirada erakutsiko digute. Emakume-begiekin iku-

siko dugu ziurgabetasun eta beldurraren munstroa.

Begirada berri horren bitartez ikusleak munduko plaza, kale, espaloi eta zokoetan argitzen ari diren, marrazten ari diren, lantzen ari diren, garai berrien printzak eta ahaleginak jasoko ditu.

Emanaldia gaztetxean

Emakume Txokoak Arrasateko gaztetxean poesia emanaldi erakargarria antolatu du, gaueko hamarretan hasita. Euskal poesiaren ahotsekin gozatu eta hunkitzeko aukera musikatua izango da.

Arrasateko artisten hamaika leiho irekiez gozatzeko aukera

Abenduaren 5a izango da herriko arte mostra hori ikusteko azken eguna

I.G. | ARRASATE

Pertsona bakoitzak mundua bere erara ikusi eta ulertzen du. Egunerokoak dituen gorabeherak era ezberdinean jasotzen ditugu eta Arrasateko margo taldeak harresi aretoan duen arte mostrain hori argi nabaritzen da. Akuairela, mihisea, olio, papera... Erakusketa horretan, erabilitako euskarri eta teknika gutxieneko kontua da.

Garai bateko Arrasateko harresiaren babesean, herriko artista

bakoitzak bere ikusteko modua oparitu dio ikusleari. Batzuek paisaiak egin dituzte, beste batzuek paisaia hilak... baina guztiak euren talentu eta eskuaren aztar-na utzi dute. Ikusleak oso mostra zabala ikusiko du, eta, arteaz gozatzeaz gainera, margolari bakoitzak mundua nola jaso eta ulertzen duen ikusiko du.

Erakusketaren ordutegia

Abenduaren 5a bitartean herriko artisten askotariko lanak ikusgai

egongo dira Harresi aretoan. Erakusketa horretaz gozatzeko, gainera, margo taldeak ordutegi zabala prestatu du. Astelehenetik zapatara 18:00etatik 20:00etara eta domeketan, berriz, 12:00etatik 14:00etara.

Harresiak garai batean herria babesten bazuen ere, Arrasate margo taldeak babes horrek inoiz izan duen zulo handienak ireki ditu. Irudimena baita gizakiak ireki dezakeen leiho edo zulorik handiena.



Harresi aretoan erakusketa. | IMANOL GALLEGO

Herria ikurrinez betetzeko dei egin du udalbatzak domekarako

Ikurrina omenduko dute asteburuan, Espainiako bandera ezartzeko sententzia bete beharraren harira

J.B./O.E. | OÑATI

Ikurrinaz josi gura dute domekan Oñati. Udalbatzak egin du deia eta Espainiako bandera ezartzeko sententzia bete beharraren harira dator deialdia. EH-Bilduk eta EAJK bat egin dute deialdian. Sententzia betetzeko asmoari buruz, ordea, ezer gutxi aurreratu dute oraingoz. Espainiako bandera jarri egingo dutela dio alkateak, baina ez noiz edo zelan.

Ikurrinak balkoietan

Geurea ikurrina, inposaketarik ez! lelopean ekitaldi bat baino gehiago antolatu dituzte asteburu honetarako. Domekan izango dira gehienak: 12:30ean elkarretaratzea egingo dute Foruen plaza lelo horrekin, eta, segidan, Oñatz dantza taldeak emanaldia egingo du; gero, Udal Musika Bandaren kontzertua egongo da. Gaur, egubakoitza, berriz, ikurrinaren gaineko hitzaldia egingo du Iñaki Egaña historialariak osoko bilkuren aretoan. "Espainiako banderaren inposizioaren harira antolatu ditugun ekitaldiak



EH Bilduko eta EAJKo zinegotziak prentsaurrekoan eguaztenean. | JON BEREZIBAR

izango dira, baina izango dira ikurrinari omenaldia egiteko", argitu du Mikel Biainek, Oñatiko alkateak.

Horrela, domekan balkoietan ikurrinak jartzeko dei egin diete herritarrei udalbatzako kideek.

Eta herriko elkarte gastronomiko eta eragileei ere egin diete dei, dituzten ikurrinak kanpora atera ditzaten domekan. Udalak, gainera, 500 ikurrina inguru jarri ditu salgai herriko okindegiatan lau eurotan.

Urtarrilaren 19an ekitaldi berezia egingo dute 1977ko zinegotziekin

Bandera

Euskal sinboloen defentsa hori, hain zuzen, Espainiako bandera jartzera behartu dituen sententzia betetzeko epearen azken egunetan egingo da. Izan ere, 2011ko abuztuan Espainiako Gobernuaren Ordezkaritzatik jasotako errekerimendu baten haritik helegiteen bitartez bide administratiboa agortu ostean, 2013ko uztailearen 3an Euskadiko Auzitegi Nagusiko Auzi Aretoak sententzia irmo bitartez udal eraikinean Espainiako bandera jarri beharra ebatzi zuen. Irailaren bukaeran bi hilabeteko epea eman zuten Espainiako bandera udaletxeko fatxadan eta osoko bilkuren aretoan jartzeko. Orduko osoko bilkuran, berriz, puntu hau onartu zuten, besteak beste, aho batez, Lourdes Idoiak eguazteneko prentsaurrekoan gogoratu zuen moduan: "Udal honetatik, euskal nortasuna eta gure nazioaren izaera ukatu nahi dutenen aurrean, zutitzez dei egiten diogu euskal jendarteari". Espainiako bandera noiz eta zelan jarriko duten, baina, ez dute oraindik argitu udalbatzako kideek.

1977ko udalbatza

Bestalde, urtarrilaren 19an ekitaldi berezia egingo dute osoko bilkuren aretoan. 1977ko udalbatzako zinegotziak eta egungoak elkartu eta plaka bat jarriko dute. Horren ostean elkarretaratzea egingo dute eta dantzariak eta Udal Musika Bandaren emanaldia ere egongo da.

Bukatu dituzte kaleko farolak aldatzeko lanak

Herriko argiteria publikoaren efizientzia energetikoa hobetzeko aldatu dituzte 166 farola

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Bukatu dituzte farolak aldatzeko lanak, argiteria publikoaren efizientzia energetikoa hobetzeko. 166 argiontzi aldatu dituzte, guztira. Argiontziak aldatzearekin batera, horiek kontrolatzeko sistema adimenduna ere jarri dute. Horrek, besteak beste, argien intentsitatea igo eta jaisteko aukera emango du, betiere, inguruan dagoen jendearen arabera.

Azkenak

Udalak argi publikoa ematen duten gastu handiko luminariak aldatu gura ditu, herriko argiteriaren efizientzia energetikoa hobetzeko. Horrela, kaleko hainbat farola aldatu ditu. Urriaren 8an hasi zituzten lanak, eta azken aste honetan bukatu dituzte. Bidaurretatik gorako farolak eta Osinurdi inguruak ziren aldatzen azkenak. "Osinurdinekoak dagoeneko aldatuta daude, eta Bidaurretatik gora, berriz, aste honetan jarriko dituzte farola berriak", adierazi du zerbitzuetako udal teknikariak, Xabier Berridik. Argien eraginkortasuna eta kontsumoa hobetzea da




Farola berrietako bat. | GOIENA

asmoa. "Helburua da argiteria publikoan aurrezte, eta orain jarraipena egingo diegu, prebisiok betetzen diren edo ez ikusteko", jarraitu du Berridik.

Hasiera

Lan horiek 112.000 euroko aurrekontua izan dute. Eta hasiera izan da. Izan ere, datozen urteei begira, herrian dauden farola zaharrak aldatzen jarraitzeko asmoa du, argiteria publikoa eraginkorra izan dadin.



Ardiak ura edaten Durun. | O.E.

Hazterien agiria beharko da ardiak mendian larreratzeko

O.E. | OÑATI

Artaldeak hazteria edo sarnaren kontrako tratamendua hartu duela ziurtatzen duen agiria aurkeztu arte Udalak ez du larreratzeko baimenik emango.

Datorren udaberritik aurrera animaliak Aloñan eta Artia, Txirikileku eta Aitzgainen larreratzeko bete behar diren baldintzekin oharra kaleratu du Udalak eta horixe da bete beharretako bat. Horrez gain, larreratzeko tasak, ganadu jabeek eman beharreko datuak eta zaldiak eta behorrak identifikatzeko balio duten lepokoaren erabilpena ere jasotzen du ohar horrek. Aloñako larretara nahiz Artia

aldera ganadua eraman gura duten abeltzainek udal bulegoetan eman behar dute asmo horren berri abenduaren 31 aurretik.

Urte amaiera bitartean, artzain eta abeltzainek Aloñan larreratu gura duten ardi, bildots, zaldi, behor eta behi kopuruaren berri Udalarri jakinarazi behar diote. Behorren eta behien kasuan, abere bakoitzaren zenbakia zehaztuz, gainera; izan ere, animalia horiek ondo indentifaturatu egoteko, nork bere lepokoaren eraman beharko dute. Tasak, berriz, Aldundiak datuak egiaztatu ondoren ordaindu beharko dira.

Kantari saioko entseguak bihar dira gaztelekuan

Goiena telebistako Kantari saioko entseguak egingo dituzte bihar, zapatua, goizean gaztelekuan. Talde bakoitzak badaki zein den kantatu behar duen abestia eta dantzatu behar duen koreografia, eta etxean landutakoa errepasatuko dute zapatuko entseguan. Guztira, 8 eta 12 urte bitarteko 100 oñatiarrek hartuko dute parte aurtengo Kantarin, 23 taldetan banatuta. Lau saio grabatuko dituzte Oñatin eta grabazioak abenduaren 14an egingo dituzte gaztelekuan.

Mugikortasun foroak martitzenean egin zuten lehen bileran

Mugikortasun foroak martitzenean egin zuten lehen bileran udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Udalak Intra enpresari esleitu zion egungo mugikortasunaren diagnosis egiteko lana, eta txosten hori aurkeztu zuten, hain zuzen ere, martitzeneko bileran. Bigarren bileran eztabaidarako tarte izango da, eta hirugarrenean, berriz, ondorioak aztertu eta jasoko dira. Herritar guztiak daude gonbidatuta bilera horietan parte hartzera.



Xabier Zabaleta, Euskara teknikaria, *Euskaraz bizi nahi dut* banderatzarekin Foruen plazan. | TXOMIN MADINA

Dikoma karta jolasa izango da Euskararen Eguneko berritasuna

Familia giroko kantu saioa ere egingo dute martitzenean kontzejupean

T.M./O.E. | OÑATI

Orokorrean iazko egitarau bera izango du aurten Oñatin Euskararen Eguna, baina egongo da berrikuntzarik: Dikoma dinamizazio jokoa, hain zuzen ere. Beronen helburua da, taldeka lan eginda, herritarrei hizkuntza ekologiararen oinarriak eta kontzeptu nagusiak helaraztea eta herritarrak euskararen aldeko argudioekin hornitzea.

Karta jolasa

Euskararen hainbat eragilek sortu dute jolas hori, besteak beste Soziologia Clusterrak eta Eusko Ikaskuntzak. Proba moduan, lau herritan jarriko dute martxan. "Azken helburua da eguneroko egoeretan gertatzen diren hizkuntza gatazka txikiak, euskararen alde egiteko argudioak ematea herritarrei", argitu du

Xabier Zabaletak, Udaleko Euskara teknikariak.

Jokoaren dinamika dago-kionez, taldeka egingo da eta bakoitzak hainbat fitxa edo karta jasoko ditu. "Eztabaida dinamizatzeko jokoa da. Asmoa da sei laguneko talde txikiak jendea eztabaidatzen jartzea jartzea karta horien bidez", gehitu du Zabaletak. Karta batzuetan eus-

kararekin izandako bizipenak agertuko dira, beste batzuetan hizkuntza ekologiarekin inguruko informazioa eta beste batzuetan egoera ezberdinak planteatuko dira parte-hartzaileek eztabaida dezaten. Gaztelekuan izango da jolasa, martitzenean, 18:00etan. Udaletxean eman behar da izena.

Ikastetxeak ere bai

Bestalde, aurten ere herriko hiru ikastetxeetako guraso eta ikasleek elkarrekin ospatuko dute Euskararen Eguna. Goizetik iluntzera arte, jolasak, tailerrak eta kantu saioak antolatu dituzte. Iaz bezala, euskal kantuak abestuko dituzte denek familia giroan kontzejupean.

Bestalde, *Euskaraz bizi nahi dut* dioten banderatzak salgai daude udaletxean.



Xaboi eta krema naturalen usain goxoa

Xaboi eta krema naturalak egiteko ikastaroa egin zuten joan den asteburuan Zubillagan, Lavandulak antolatuta. Parte hartu zutenak gustura aritu ziren, elkarren arrimoan, eta asko ikasi zuten. Aurrerantzean berriaz elkartzeko plana ere egin dute. Lavandulako neskak, berriaz, beste ikastaro bat antolatzeko prest azaldu dira.



LAVANDULA

Energia aurreztuko dute Errekaldeko fatxada berriarekin

Ulma Architectural Solutions enpresan egiten duten materialarekin egindakoa da

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Fatxada berria eta igogailua du Errekalde auzoko 31. zenbakiak uztailez geroztik. Ikusgarria da, batez ere lehengo fatxada zaharrarekin konparatuz gero, eta herritarren arteko berbetarako gai izan da. Bada, fatxada berri horrekin, energia aurreztuko dute atari horretan bizi diren bizilagunek.

Ulmako materiala

Altube Artabe Baquedano Arquitectos enpresak egin ditu lanak. Horko kolaboratzaile da Mikel Altube arkitekto tekniko oñatiarra, eta gertutik jarraitu ditu lanak. "Lehengo fatxadari bost zentimetroko beira-zuntzeko geruza itsatsi diogu eta gero Ulma Architectural Solutions enpresak lantzen duen materialarekin egindako plakekin egin dugu fatxada berria. Bien artean, baina, zortzi zentimetroko aireztatutako ganbara bat utzi dugu. Orain fatxadak ez du etxebizitza ukitzen, eta

horregatik igarriko dute bizilagunek energia kontsumoan", argitu du Altubek.

Hiruzpalau gradu

Aurreztuko duten energia zentibaterakoa izango den argitzeko, adibide hauze jarri du Altubek: "Fatxada berri honekin, hiruzpalau gradu irabaziko dituzte bizilagunek. Hau da, kanpoan 0 gradu egiten badu, barruan lehen baino hiruzpalau gehiago egongo dira, eta kanpoan 30 egiten badu, lehen, agian, 25 egongo ziren etxe barruan eta orain 22 inguru egongo dira. Beraz, neguan eta udan igarriko dute abantaila. Egia da orain-txe hasi direla aurtengo lehenengo hotzak, baina aurtengo negua pasatzean nabarituko dute abantaila bizilagunek".

Fatxadaren lana egiteko Jauriaritzak emandako energia efizientziaren Renove planaren diru laguntza jaso dute bizilagunek. 33. zenbakiko atarian ere fatxada bera egingo dute.



Errekaldeko 31. atariko fatxada berria. | O.E.

Garapenaren aldeko 27 taldek jaso dute Udalaren diru laguntza

O.E. | OÑATI

Udal Gobernuak erabaki du dagoeneko nazioarteko lankidetzarako zuen diru poltsaren zati handi bat zein egitasmotara bideratu. 93.000 euro zituen helburu horretarako eta 88.000 pasa banatu ditu. Banoia Chernobilekin, Gurutze Gorria, Bubulum taldea, Felix Baltistan Fundazioa, Oñatiko Komite Internazionalistak, Hermansaloña, Mali Elkartasuna, Zazpi Udaberri, Inazio Biain eta Juan Inazio Agirre frantziskotarrak, Luis Arregi agustindarra, Parrokiako misio taldea, Rigoberta Menchu Fundazioaren izenean Iker Zelaia, Mundu Solidarioa

Helburu taldearen izenean Leire Etxeberria, Maria Luisa Ugarte eta Mari Karmen Markuleta misiolariak eta TAU Fundazioa dira, besteak beste, Udalaren diru laguntza jasoko duten erakundeak eta ordezkariak.

Kopuru handienak jasoko dituzten proiektuak dira Hermansaloñak Argentinara materiala bidaltzeko eta dinamizazio lan ezberdinetarako, Mundo Solidarioa Helburu elkarteak Nikaraguan urritasuna duten gazteen integrazioarako eta Acoes elkarteak Hondurasen bazterketa bizi dutenen alde duen proiekturako.

Olentzeroren sekretua ezagutzeko antzezlan

Hiru urtetik aurrerako umeendako ikuskizuna da eta gaztelekuan egingo dute

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Hilabete eskas geratzen da Olentzero gure etxeetara heltzeko. Laster hasiko du opariz betetako ibilbidea. Baina nola daki Olentzerok opari bakoitza norendako den? Nola egiten ditu horrenbeste jostailu Olentzerok? Galdera horiek guztiak erantzun dituzte Aupa Kultura Lanak taldekoek *Olentzeroren sekretua* antzezlanean. Olentzerok horiek guztiak egiteko dituen sekretuaren nondik norakoak azalduko dituzte. Antzezlan 3 urtetik aurrerako umeendako da eta gaztelekuan egingo dute domekan, 12:30ean. Sarrera hiru euro da. 55 minutuko iraupena du antzezlanak eta euskaraz egingo dute.

Zein da sekretua?

Gabonak bertan dira, eta Olentzero Euskal Herriko etxeetan banatu beharreko opariak prestatzen ari da. Lan handia dauka aurretik, baina horri aurre egiteko gai da, "sekretu" bat duela. Hala ere, Maripetralinek lapurtu egin nahi dio sekretua ikazkinari. Hori gertatuko balitz,



Olentzero eta Mari Domingi. | AUPA KULTUR LANAK

Gabonak ezin izango lirakeke ospatu; horregatik, Mari Domingi, lamina eta beste hainbat pertsonaia joango dira Olentzerori laguntzera. Azkenerako, Olentzeroren asmo onen eta Maripetralinen gaiztakeriaren arteko lehian, adiskidetasuna izango da garai. "Antzezlanak islatu nahi du lagun arteko adiskidetasuna dela munduko oparirik preziatuena eta, horregatik, oso garrantzitsua dela lagunekin zintzo

jokatzea, haiek ez direlako jostailu bat", diote taldeko kideek.

Euskal mitologiakoak

Gabonei begira antzezlan dibertigarria estreinatu zuen Aupa Kultura Lanak taldeak 2012an. Umeendako Gabonetako erreferentzia den Olentzero oinarri hartuta, euskal mitologiako beste pertsonaia batzuk ezagutzeko aukera dute ikusleek, abestien eta musikaren laguntzarekin.

Ernesto Agirre oñatiar azkarrena Donostian

M.B. | OÑATI

Behobia-Donostiaren ostean, Donostiako maratoia dute korrikalari askok gorritz markatuta urtero. Aurreko domekan jokatzen zen 36. aldia, eta, Espainiako Txapelketa zenez, punta-puntako korrikalariak egon ziren. 5.000 guztira, maratoia, maratoi erdia eta hamar kilometroko lasterketa egiteko.

Guztien artetik azkarrena Carles Castillejo katalana izan zen. 2.12.43ko denbora ikusgarria egin zuen, eta Zurichen jokatuko den Europako Txapelketarako txartela lortu. Emakume azkarrena Estela Navascues nafarra izan zen (2.32.38).

Oñatiarrak sendo

Urtero legez, hainbat oñatiar egon ziren Donostiako maratoian. Guztira, 13 egon ziren irteera puntuan. Eta horien artean azkarrena Ernesto Agirre izan zen, 3.14.48ko denborarekin. Ondoko taulan dituzue ikusgai gainerako oñatiarren emaitzak. Emaitzak emaitz, egundoko lana egin zuten guztiek. Esfortzu eta sakrifizio handia eskatzen duen proba izanik, hotzari eta beste hainbat arazori egin behar izan zioten aurre korrikalari batek baino gehiagok. Batzuek ez zuten proba bukatu.



Iban Perez, Donostian. | ARATZ LOSADA

OÑATIARRAK

IZENA	DENBORA
Ernesto Agirre	3.14.48
Joxe Mendiola	3.17.40
Matias Varela	3.19.48
Arkaitz Sasiain	3.30.20
Iban Guridi	3.33.12
Trini Blazquez	3.44.27
Angel Pardo	3.46.31
Joseba Azkarate	4.05.37
German Aginagalde	4.06.42
Ander Jausoro	4.06.42
Iban Perez	4.11.58
Mitzel Montero	4.20.47

Mendi sailak erretratu onenen sariak banatu ditu

Sari banaketaren ostean, argazkiak ikusgai ipini dituzte kultura etxeko erakusketa gelan

M.B. | OÑATI

Aloña Mendiko mendi sailak antolatzen duen *Mendia eta natura* argazki lehiaketaren hamargarren aldiak baditu irabazleak. Sari banaketa ekitaldia aurreko egubakoitzean egin zuten, eta ikusgai ipini dituzte lehiaketara aurkeztutako erretratu onenak.

Erakusketa zabalik egongo da abenduaren 1era arte, astelehenerdik domekara arte, 18:00etatik 20:00etara arte.

Hamabi sari banatu zituzten

Guztira, hamabi sari banatu zituzten egubakoitzean egindako sari banaketan. Launa sail bakoitzean: *Gizakia mendian* (A saila), *Mendi ingurunea* (B saila) eta *Gizakiaren eragina mendian* (C saila). Jarraian dituzue sail bakoitzeko saridunak. A sailean, Josu Garairen *Negu Giroa* (lehen saria); Xabier Mataren *David III* eta *Paisaje Lunar* (bigarren eta hirugarren sariak); eta, Borja Aba-



Mendia eta nagura argazki lehiaketako irabazleetako batzuk. | ALOÑA MENDIKO MENDI SAILA

rrategiren *Bidea* (Oñati saria). B sailean, Josu Garairen *Sentsualitatea* (lehen saria); Iñaki Aranbururen *Negua* (bigarren saria); Benito Canteroren *Urbiako zuhaitzak* (hirugarren saria); eta Iñaki Idigorasen *Malla* (Oñati saria). Eta, C sailean Agustin Gurrutxagaren *Torre electrica* (lehen saria);

Iñigo Olarteren *Hesiak* (bigarren saria); Aitor Gonzalezen *Gizakia naturaren kantzerra* (hirugarren saria); eta Borja Abarrategiren *Iribarre metalikoa* (Oñati saria).

Raul Esteban, Iñaki Kapertxipi eta Juanjo Lopez Azurmendik osatu zuten epaimahaia.

Mendian lapurtutako gauzak

Mendian lapurtutako hainbat material berreskuratu du Eusko Jaurlaritzako Segurtasun sailak. Besteak beste, motxilak, arnesak, kantineplorak... Horiek guztiak Euskal Mendizale Federazioaren webgunean daude ikusgai, identifikatzeko helburuarekin.

Akordeoi jaialdian parte hartzeko prest

Jose de Azpiazu musika eskolako ikasle Oihane Lazkanoiturburuk Arrasateko akordeoi lehiaketan parte hartuko du, C mailan, abenduaren 5etik 8ra. Hiru pieza joko ditu: *Rock fisa*, *Donostiako hiru damatxo* eta *Ganz in Weiss*. Argazkian, irakaslearekin.



MUSIKA ESKOLA

Mikel Laboari omenaldi kontzertua Arrano tabernan

Arrano ixteko arriskuan! Ez diegu utziko! Denon indarrez lortuko dugu! lelopean kontzertu-omenaldia egingo dute domekan Arrano tabernan, 19:00etan. Hain zuzen ere, Mikel Laboari omenaldia egingo diote. Sarrera doakoa da eta herritar guztiak gonbidatu gura dituzte Arranorik bultzada emateko.

San Andres jaiak ospatuko dituzte aste bukaeran Urribarrin

Gaur, egubakoitza, hasiko dituzte San Andres jaiak. 22:00etan mus txapelketa egingo dute Urtiagain jatetxean. Bihar, haurrendako merienda eta marrazki lehiaketa egingo dute eskolan 16:00etan, eta 21:00etan auzo afaria Haizpea elkartearen. Domekan, aldiz, meza nagusia egingo dute auzoko ermitan, 12:00etan.

Hondakinak, lokalak eta tratu txarrak, bilkuran

Indarkeria matxistaren gainean talde guztiek mozio bateratua aurkeztu zuten

IMANOL GALLEGU | BERGARA

Beste behin ere Bergarako osoko bilkuran hondakinak protagonismo handia hartu zuten. Aurreko akta onartzeko orduan EAJ taldeko bozeramaile Aintzane Oiarbide jeltzaleak bilkura laga eta gero eurretaz hitz egin izana eta "gezurrak esan izana" egotzi zion gobernu taldeari. Lauri Askargortak berak esandako hitza zuzendu, eta gobernu taldeak gai zerrendarekin jarraitu zuten.

Beste bi puntuk ere eztabaida sortu zuten. Lehenengoan, gobernu taldeak Arteakalea kaleko 27-29 atarien artean dagoen lokal bat erosteko asmoa zehazten zen, alde zaharreko zabor bilketa egiteko. Oiarbidek proiektua "zalantzana" jarri zuten, eta informe teknikoak gobernu taldearen aldekoak izan arren, araudiak hori egitea baimentzen ote duen "zalantzana" jarri zuten.

Hondakinaren auziarekin jarraituz, EAJk mozio propioa aurkeztu zuen. 5. edukiontzia lehenetsi, eta, ostera, Udalarik kontsulta propioa egiteko eskatu zioten. Alkateak zera esan zuen: "Bergaran ez da edozein gairi buruzko galdeketa egin". Eta Oiarbidek: "Bilduk emaitzaren arabera eginen ditu kontsultak".

Ekonomian ere tirabirak

Hondakinaren auziak ez ezik arlo ekonomikoak ere osoko bilkura bi taldetan banatu zuten. Udalak duen "espazio premia" aipatu zuten alkateak lokal bat erostea arrazoitzeko. Aintzane Oiarbidek lokal horren inguruko zehaztasun gehiago eskatu zituen. Jaione Isazelaiak "biltegi" hitza aipatu arren, ez zuen zehaztasun gehiagorik eman, jeltzaleen harridurarako. "Administrazio batean gastu bakoitzak zehaztua egon behar du", aipatu zuten Oiarbide bozeramaileak. Bozketan, gobernu taldearen bederatzi botoekin proiektuak aurrera egin zuten.

Indarkeria matxista

Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna zela eta, osoko bilkura talde guztiek adierazpen bateratua adostu zuten. Euskal Herriko hainbat festatan emakumeek jasandako erasoak salatzeaz gain, horiek etetea premiazko gai bat dela adierazi zuten.

Mozioan azaltzen zen moduan, "mota eta intentsitate desberdineko portaera matxistak daude" eta horiek legitimatzen dituzten portaerak "onartezinak" direla zehazten zen.



Maite Toledo, Martin Arriaran, Jon Suinaga eta Aitor Arantzabal eguaztenean Irizar jauregian. | IURE EIZAGIRRE

Herriko lau idazle batu dituzte Mokolo Asteak

Azkeneko urte eta erdian argitaratu dituzten lanak aurkeztu dituzte astean

IURE EIZAGIRRE | BERGARA

Azken urte eta erdian liburu bana argitaratu duten lau herritar batu zituzten eguaztenean Mokolo Asteak Irizar jauregian. Han izan ziren Maite Toledo, Martin Arriaran, Jon Suinaga eta Aitor Arantzabal herritarren aurrean eurek idatzitako lanak azaltzeko.

Musika doinu lasaiekin *Hemen* liburuak poemak irakuriz eman zion hasiera eguazteneko aurkezpenari Maite Toledok. Bere azken liburuaren jatorria non dagoen azaldu zuen, geroago Martin Arriaranek egin zuen moduan. Xakea du jatorri azken horren *Tributo a Caissa* liburuak. Eta aurkezpenean, xakearen bitartez lagun egin zuen Jon Suinaga izan zuen ondoan. Duela hilabete eskas aurkeztutako *Allende los mares* liburuak aurkeztu zuen Suinagak. XV. mendean dago kokatuta, euskaldunak oraindik baleak arrantzatzen joaten zireneko garaian kokatutako istorioa da.

Aitor Arantzabal izan zen lauren artean hitza hartzen azkena, *Angiolillo* lana aurkezteko. Espetxean zegoela idatzi zuen Michele Angiolillo anarkistaren inguruko lana eta udaberriaren kaleratu zuen auzolanean.

Prezioa gehiegi puzten da


Auzolanaren ildotik, liburu bat ekoiztearen kostuak eta irakurleentzako salmenta-prezioa izan zituzten berbetarako gai. Idazleentzako batzuen ustez, gehiegi puzten da prezioa.

Bestalde, herriko zein bailarako idazleen erreposoa ere egin zuten, eta, hasieran apur bat kostatu bazitzairen ere, izenak bata bestearen atzetik botata, literaturan zeresana duen jende ugari dagoela ondorioztatu zuten.

Ekintza gehiago asteburuan

Mokolo Astearen barruan ekintza gehiago egongo dira asteburuan. Bihar, zapatua, euskararekin lotutako murala margotuko dute Miguel Altunan, Euskararen Egu-

nari keinu eginda. 10:30etik 14:00etara artisau feria egongo da Muni-be plazan; 14:30ean, bazkaria Seminarioko karpan; eta 23:00etan, Skasti eta Emon taldeen kontzertua Seminarioan.



Arteakalea kaleko 27. eta 29. zenbakien artean dago lokala. | GOIENA

Gabonetan apaingarri bera erabiltzeko dei egin du Bergara Bizik

Bergarako merkatarien eta ostalariak osatutako Bergara Bizi lantaldeak gonbita egiten die herriko komertzioei, dendei eta tabernei euren negozioen kanpoko aldean Gabonetako apaingarri bera erabiltzeko. Apaingarri bateratua erabili nahi dutenek 943 77 91 24 telefono zenbakira deitu behar dute eskaria egiteko.



Aukeratutako apaingarria. | GOIENA

EUSKARAK
365
EGUN

**EUSKARAREN
EGUNA 2013**

ASTEAN ZEHARREKO EGITARAUA

EUSKARAK
365
EGUN

Azaroak 29

- 19:00. Kantu-jira. San Martin plazatik irtenda.
- 22:00. *Napoka Iria* taldearen kontzertua Zabalotegi aretoan. Sarrera 8€.

Azaroak 30

Udal Pilotalekuan

- 18:00-18:30. *Kantari* flashmoba Amaia Txintxurretak dinamizatuta.
- 18:30-21:00. DJ festa pilotalekuan. Amaia Txintxurretarekin.

Abenduak 3. Euskararen eguna

- 19:30. **Kirola Euskaraz ekitaldia**, Agorrosinen.

Sarrera: kirolaren garrantzia euskararen ikuspegitik eta Kirola Euskarazeko proiektuen berri ematea.

Tertulia. Partaideak:

- Markel Irizar, Trek taldeko txirindularia.
- Jagoba Arrasate, Realeko entrenatzailea.
- Igor Arenaza, UDAko kirol zuzendaria eta ESKUA proiektuaren bultzatzailea.

Eskertza-ekitaldia. Kirol entrenamenduak euskalduntzeko egitasmoan parte hartzen duten taldeei.

Abenduak 4

- 20:00. *81 amama* zine-emanaldia: Zabalotegi aretoan. Sarrera 3€

Abenduak 6

- 19:00. *Balitzen hioa* antzezlan Zabalotegi aretoan. Sarrera 8€

Astean zehar Agorrosineko ikastaroetako musika euskaraz izango da.

Antolatzaileak

EUSKARAK
365
EGUN

Bergarako
Udala

goiena

KOMUNIKAZIO TALDEA

Jardun

EUSKARAK
365
EGUN

Bigarren topaketarako 35 autokarabanak eman dute izena

Bergara Pass txartela asteburuan estreinatuko da

M.B. | BERGARA

Sorbeltz Euskal Herriko autokarabanen elkartearen eskutik, eta Udalaren laguntzaz, bigarren topaketa egingo dute asteburuan. Iazko esperientzia errepikatu nahi dute, oso gustura egon zirelako herrian, eta dagoeneko 35 autokarabanak eman dute izena.

Gaur, egubakoitza, iritsiko dira Lagebaraietako gunera. Bihar, zapatua, San Pedro parrokia eta kartzela zaharra bisitatu dituzte, 11:30ean, San Martin plazatik abiatuta. Arratsaldean, berriz, Mankomunitateak antolatutako erreileno

eta tostoien dastatzean parte hartzeko aukera izango dute. Domekan, abenduaren 1ean, mendi irteera egingo dute San Martzial ermitaraino, 10:00etan abiatuta.

Bergara Pass salgai dago

Asteburu honetan jarriko dituzte salgai, bestalde, turistei zuzendutako Bergara Pass txartelak. Agorrosingo eta Labegaraiaietako kirolguneetan, Agirrebeña tabernan eta Turismo Bulegoan daude salgai. Hala, 5 euroren truke, zenbait abantailaz eta deskontuz gozatzeko aukera izango dute.

Helduendako bertso eskola antolatu dute Jardunek eta gaztetxeak elkarlanean

Eguaztenetan izango dira eskolak, gaztetxean, 20:15ean, debalde, abenduaren 4an hasita

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Jardun Euskara Elkartek eta gaztetxeak helduendako bertso eskola antolatu dute elkarlanean. "Bertsolaritza berpiztu eta ahoz-kotasuna" lantzeko helburuarekin antolatu dute eta abenduaren 4an abiatuko da.

Hamabostean behin izango dira eskolak, hileko lehen eta hirugarren eguaztenetan, 20:15ean, gaztetxean, eta Gari Lopez de Munain izango da irakaslea.

izena ematerik ez duenak lehenengo saiora zuzenean jo dezake eta han hartuko diote izena.

Helduen bertso eskola ekainera arte izango da, eta, antolatuzaileek aurreratu dutenez, ikasturte amaieran emanaldia egingo dute.

Umeen bertso eskola

Umeen bertso eskola ere badu Jardunek. Ikasturtea dagoeneko abiatu da eta bost gaztetxok dihardute. Jardun elkartetik aurreratu dutenez, interesa duten umeek oraindik ere izena emateko aukera dute.

Eskolak eguaztenetan izaten dira, 17:15etik 18:15era, euskara elkarrekin Zubietako eskola zaharrean duen egoitzan, eta irakaslea Urko Egaña da. Bada, umeen bertso eskola ere debaldekoa da eta izena Jardun elkartearen bertan eman daiteke.

Beart, herritarren talentua sustatzeko elkarte plural eta zabala Bergaran

Pintzel, asto (kabelle), margo eta agoarras usaina duen Beart taldearen lokalak sormen eta artista kutsua ere badu. Toki gutxitan bezala, arimaren espresio bideak agerrarazteko gunea da hau.

Juanjo Altuna Bearteko lehendakariak kontatu dizkigu elkarte bat baino gehiago herriko artisten bilgune bilakatu den talde honen nondik norakoak.

Noiz sortu zen Beart?
1995. urte inguruan sortu zen Bergarako margo eskolari zeritzonari bultzada emateko. Orduetik ekintza asko egin ditugu, eta egun, 80 bat kide inguru gara.

Beart herrian oso presente dago.
Hala da, bai, Aroztegi erakusketa guneaz gain, guk beste lau tabernatan eta gozotegi batean ere erakusten ditugu gure lanak. Ez gara oso ortodoxoak eta aurreko urtean kaleko zenbait erakusleho ere



Juanjo Altuna, Bearteko lehendakaria.

“ Elkarte irekia gara, kide izateko ez dago talentu berezirik eduki behar, hona jendea ikastera eta gozatzera etortzen da, bakoitzak barruan duen artista ezagutzera. ”

apaindu genituen. Laster, ekimen hori berriro burutuko dugu, eta alde zaharreen ez ezik, herri osoko erakuslehoak apainduko ditugu.

Ikastaroak, erakusketak... ez zarete geldirik egoten!

Horretarako sortu genuen Beart, bergararrak artearen mundu zoragarria gerturatzeko. Elkarrekin aukera gehiago ditugu, eta, kideez gain, edozeinek parte har dezake gure ikastaroetan.

Jende asko etortzen zaizue?

Pozik gaude, baina jende gehiagok parte hartzea lortuko bagenu, emaitza hobek lortuko genituzke. Adin eta trebezia maila guztiak onartzen ditugun arren, jende gaztea erakartzea kostatzen da. Jendeak ez daki margotzea zein zoragarria izan daitekeen.



BEART

Bergarako Arte Elkartea

Anima eta etor zaitez Beart arte elkartera!

Bolu 89, behea / Bergara
Tel.: 635 71 32 69
beart.elkartea@gmail.com
beartelkartea.blogspot.com



DEBAGOIENEN MANKOMUNITATEA

Erreilenoak eta tostoiak Muniben

Bihar, azaroak 30, arratsaldeko seieta, Munibe plazan, herriko erreileno eta tostoi artisauen aurkezpen-dastatzea egingo dute, Debagoieneko XV. Jardunaldi Gastronomikoen barnean. Larrañagako, Mujikako eta Raizabaleko artisauak egindako erreilenoak eta tostoiak txokolatearekin batera dastatzeko aukera izango da euro baten truke.

Bihar, zapatua, egingo du Jardun euskara elkarrekin euskarazko liburuen truke azoka Munibeko karpan

Azken asteetan Jardun elkartera erabilitako euskarazko liburuek eroan dituzten herritarrek izango dute aukera truke azokan parte hartzeko. Hain zuzen ere, Jardunen emandako txartelak erabili beharko dituzte truke azokan. 11:00etik 14:00etara izango da, Munibe plazako karpan bihar, zapatua, euskarazko irakurzaletasuna bultzatzeko helburuarekin.

Patri Berazaluze zena gogoan izango dute haren lagunek bihar, zapatua, zenbait ekitaldirekin

Patri Berazaluze zena gogoan izango dute haren lagunek bihar, zapatua, hainbat ekitaldirekin. Motorzalea izanda, motorrean osteratxo eginda omenduko dute lehendabizi. 10:00etan abiatuko dira Laino skate park paretetik eta 13:00etarako aurreikusitako itzulera. Ordu horretan luntxa egongo da Pol-Pol tabernan eta zenbait argazki proiektatuko dituzte. Jarraian kontzertua egongo da La Polla Records taldearen bertsoekin.

Abenduaren 2an hasiko da Pol-Pol Mendi Taldea datorren urterako federatu txartelak tramitatzen

Urtea bukatzen ari da eta datorrenari begira jarri da dagoeneko Pol-Pol Mendi Taldea. Hain zuzen, astelehenean, abenduaren 2an, hasiko dira datorren urteko federatu lizentziak tramitatzen. Aurreko urteetan bezala, elkartearen webguneari bitartez www.pol-pol.net eta bulegoan egingo dituzte, astelehen, martitzen eta eguaztenetan, 19:00etatik 20:00etara. Bietan ala bietan eman beharko dira datuak, eta diru sarreraren kopia ere bai.

Zumelaga jatetxearen mahaiaren bueltan izandako 70 urteak ospatzeko eguna

Pintxo-poteoa eta argazki erakusketa eginda ospatuko dute urtemuga biribila

IMANOL GALLEGO | ARRASATE

Janariz betetako mahai bat beti izan da festaren sinonimo. Zumelaga jatetxea, 70 urtean, Bergarako eta inguruko mahai prezia-tuenetako bat izan da. Ibilbide luze honetan, jende askok ospatu ditu familiarako data garrantzitsuenak herriko klasiko horretan. Orain, jatetxeari berari tokatzen zaio festa antolatzea.

Martin Zumelaga izan zen aitzindaria, eta bere Elorritik irten ondoren, egun Hiru Bide jatetxea dagoen tokian jarri zuen lehen Zumelaga. Anttoni Zumelagak bere aitarengandik jaso zuen jatetxea eta ostean Adrian Arrese-Igorrek (*Txelen*) hartu zituen jatetxeko ardurak. Gaur egun, laugarren belaunaldiak kudeatzen du Zumelaga.

Laburbilduz, jatetxe hori beragarar guztiei irekia egon den familia-etxea izan da. Horregatik, urteurren garrantzitsu hori ospatzeko, domekan, lagun eta familiaratean baba-jana egingo dute.

Herri-ospakizuna

Jatetxe baten arima bezeroak dira, eta haiek ere ospakizun biribil horren parte izango dira. Domekan, 17:00etan, pintxo-poteoa



Zumelaga jatetxea dagoen tokian zegoen baserria. | JOSEBA ARRESE-IGOR

egingo dute tabernan. 1,5 euroren truke ardo goxoa dastatzeko aukeraz gainera, etxean egindako pintxo ere jasoko dute bertarantzen direnek.

Pintxo-poteoa, baina, berezia izango da: oso denbora laburrean ohitura bilakatu den maiztasun gain, Zumelagan urdaiazpiko eta produktu iberikoen dastatzea egongo da, eta urdaiazpikoa moztan aditua den pertsona bat ere izango da bertan.

Horrekin batera, abenduaren 31ra arte, jatetxearekin lotutako argazkien erakusketa egongo da Zumelagan.

Aurrera begira

Jatetxe horretako laugarren belaunaldiak ez du erronka erraza izango; hala ere, Martin Zumelagaren birbilobek gogotsu hartu dute Zumelaga kudeatzeko ardura. "Kontziente gara jendea estu dabilela; horregatik, eguneko menua berreskuratu dugu, betiere, gure kalitate mailari uko egin gabe", dio Joseba Arrese-Igorre jatetxeko jabeak. Zumelagara joateko ez da aitzakia handirik behar izan, eta menu berri horrek askori piztuko dio jatetxera bueltatzeko gogoia.

Astelehenerako elkarretaratzea deitu du Bergara Garbiak plazan

M.B. | BERGARA

Bergara Garbiak elkarretaratzea deitu du abenduaren 2rako San Martin plazan, 19:30ean. Modu horretan, euren haserrea erakutsi nahi dute "inposatutako sistema garesti, bidegabeko eta ez eraginkorrekiko".

Plataformako kideen ustez, "Bildu-Aralar Udal Gobernuak badaki, aski ondo, herri babesik ez duen hondakinak batzeko sistema inposatuko duela. Gainera, gai horren inguruan jarraera erabat desegokia izan dute, kontrakoa pentsatzen dutenak deskalifikatu eta mesprexatu dituztelako". Eta horren haritik gogora ekarri dituzte azken hilabeteetako protestaldiak eta

bereziki hil hasieran egindako "herri kontsultaren arrakasta, 5. edukiontzaren alde 4.771 boto eskuratuta". Hori horrela, "zer gehiago egin" dezaketen galdetu diote euren buruari, eta "Udal Gobernuaren bidegabekeriaren aurrean" desobedientzia zibile-ra deitu dute berriz ere. Hala, asteleheneko elkarretaratzeaz gain, beste zenbait ekintza ere planteatzen dituzte, hala nola "edukiontzi berdeak kentzen dituztenean hondakinak bananduta eta bi poltsatan atera eta lurrean uzteko" eskatu dute, "zintzilikarioen aldamenean". Baita orain arte balkoietan izandako poltsak zintzilikarioen ondoan lagatzea ere.

Soraluce Bergarako seniorrek kanpoan jokatu dute

Bigarren mailako seniorrak Donostiako Tecnunen kantuan arituko da bihar, zapatua, 16:00etan. Gazteek ere kanpoan jokatu dute: Goierri Keren kontra, domekan, 12:15ean. Eta emakumezko gazteek, berriz, Labegaraietan hartuko dute Ayma Goierri bihar, 19:30ean.

Gipuzkoako eta Gabonetako sarietako pilota partiduak gaur

Gipuzkoako txapelketako hiru partidu jokatu dira eta Gabonetako sarietako, berriz, bi. Gabon sariaren kasuan, nagusietan Eneko Mugurutz Beñat Inñarraren kontra arituko da eta Aritz Rezusta Perezen aurka. 19:30ean hasita jokatu dira partiduak Udal Pilotalekuan.


Hasi gara urtero bezala, artisau - turroiak egiten.

Gogorra - Biguna - Goringo txigortua - Pistatxoa
Pontxe errusiarra - Laranja trufa - Cadiz - Txokolate pralina - Fruta

Deitu eta eska itzazu!



Koldo Lasa - Lasa jatetxea



LASA jatetxea

Ozaeta jauregia
943 76 10 55
BERGARA

www.restaurantelasa.es
reservas@restaurantelasa.es

Afariak ostiral eta larunbat gau guztietan gure jangela berrian. Giro jator eta atsegina. Musika-aukeraketa onena.

Menuak aukeran

Eguneko menua: 28 €
Karta berezia: 35 €
Afari erromantikoa: 40 €
Debagoiena: 46,20 €

(BEZ barne)

Kinto-afari, despedida eta beste ospakizun batzuetarako aproposa.



Euskararen Egunean Herriko Plazan sua piztu eta txokolate-jana eta pintxo-poteoa ere egingo dute

Euskararen Egunaren harira Loramendik ekimen berezia antolatu du martitzenerako. "Abenduaren 3an plazara gatoz berriro. Aretxabaletan ekitaldi bat egingo dugu. Euskaltzaleok suaren inguruan zirkuluak egingo ditugu, hiru aldi berezita. Lehenengo, garrasi isilarena, ukatutako hitzarena. Bigarren aldia, hitzaz jabetzearena eta azkena, festarena". Ekitaldia amaituta txokolate-jana egingo dutela gaineratu dute eta ostean, pintxo-poteoa egongo da herrian zehar. Herritarrei parte har dezaten dei egin diete; 18:00etan hasiko da ekimena.

Gipuzkoako Elikagaien Bankuarentzako janari bilketa egingo dute asteburuan Aretxabaletan

Gipuzkoako Elikagaien Bankuari laguntzeko janari bilketa egingo dute gaur eta bihar Eroskin. Egun osoan boluntarioak egongo dira bertan herritarrek uzten dituzten zerealak, olioak, babarrunak, zukuak eta bestelakoak jasotzen. Gainera, domekara bitartean, Ibarrara ere eraman ahal izango dira jakiak; UDAK ere lagundu gura du bilketan eta edukiontzi bat ipini du herri-tarren ekarpenak jaso ahal izateko.



Arkupan elkartu ziren ikasleak eta udal ordezkariak. | SERGIO CANO

Biodibertsitate galderei erantzun die Udalak

Aurreko ikasturteko Agenda 21 programaren barruko galderei erantzun zieten martitzenean

Z.V.D.M. | ARETXABALETA

Eskola Agenda 21 programaren barruan aurreko ikasturtean ikasleek eginiko proposamen eta galderei erantzuna eman berri die Udalak. Ikasleak zenbait udal ordezkariarekin -Ingurumen zinegotziak, esaterako- eta Ibarrundi museoko teknikariarekin elkartu ziren, Arkupen.

Itxiturak, ura, landareak...

Esaterako, alanbrezko laukidun itxiturak animalien mugikor-

tasuna oztopatzen dutela-eta, baserritarrei informazioa zabaltea eskatu zuten. "Lur pribatuetako itxituren helburua nekazaritza-ustiategiak, animaliak... babestea da. Udaletik gauza gutxi dugu egiteko, informatzea ez bada. Hala ere, kasu gehienetan itxiturak errepideen inguruan erabiltzen dira, eta ez baso edo beste lurzoruen kontra dauden itxiturak".

Ikasleen beste eskaera bat momentu atzetik elizarrainoko tartean ea zerbait egin daitekeen aztertzea izan da. "Lortzen ari den lehenengo helburua uraren kutsadura amaitzea da. Bigarren fasean, hormigoizko zolata kendu eta elementu naturalez (harriak...) osaturiko hormak egingo dituzte; helburua da bertan animaliak eta landareak bizi ahal izatea".

Landare inbaditzaileei buruzko ikasleen galderei eta eskariei ere erantzun zieten, besteak beste, parkean dauden Panpako Lezkek aipatuz: "Gipuzkoako Foru Aldundiko teknikariak parte hartu dute eta martxan dago landare inbaditzaileen ezabaketa".



Aldarrikapen kalejira egin zuten irakasleek martitzean. | Z.V.D.M.

Irakasleak ordutegiarekin ados ez, eta musika eskolako giroa gaiztotuta

Irakasleek protesta egin zuten martitzenean; bilera egin zuen eguaztenean zuzendaritzak gurasoekin

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Leizarra musika eskolako zuzendaritzak eta irakasleek bilera ugari egin zituzten aurreko ikasturtean lan hitzarmenaren harira. Orduan adostu zituzten puntuen artean, aurreko hitzarmeneko lan baldintzak mantentzea eta KPIaren igotzea hartu zituzten kontuan; horrez gain, asteburuetako ordu plusetan ere igoera onartu zuten. Bazirudien egoera bideratuta zegoela, baina zenbait irakasleren eta zuzendaritzaren arteko harremanetan tentsio uneak bizi dira.

Protesten arrazoiak

Momentu horren adierazlea da martitzenean zenbait irakasleek aldarrikapen kalejira egin zutela *Lan hitzarmena. Errespetatu irakasleon lana* lelopean. Aitor Villareal irakasleak euren ikuspuntua azaldu du: "Zuzendaritzak ez ditu hitzarmeneko puntu guztiak bete-

tzen; besteak beste, ordutegiari dagokionez inposaketa bat dago, eta ezin dugu onartu. Egiten dugun lana errespetatzea eskatzen dugu".

Gaineratu zuten, irakasleek eskolak prestatzeko baliatzen duten denbora zuzendaritzak ez du aintzat hartzen, eta horixe izan zen martitzeneko aldarrikapen nagusia.

Zuzendaritzaren azalpena

Bestalde, Leizarrako zuzendaritzako kideak eskolako gurasoekin batzartu ziren eguaztenean, gertatzen ari denaz informazioa emateko. Bertan izan ziren, besteak beste, zuzendaritzako kide eta udaleko Kultura zinegotzi Zigor Quintanilla eta Leizarra musika eskolako presidente Edorta Antxia.

Antxiak irakasleen eskolaz kanpoko orduen aldarrikapenaz egin zuten berba: "Irakasleek eurek

erabakitzen dute eskolaz kanpoko orduak nola kontatu eta zuzendaritzak honek erabaki zuen gutxienez ordu erdikoak izan behar dutela. Baina irakasleek ez dute esandakoa betetzen; eskolak hasi aurretik ordu laurden egiten dute eta amaitzerakoan beste horrenbeste. Behin eta berriz esan diegu ezin dela horrela egin". Izan ere, eskolak amaitzean Arkupe itxi egiten da, eta zuzendaritzak erabaki zuen, kultura etxean lan egiten duten beste udal langileekiko errespetuagatik, ezin zirela ordu horiek momentu horretan sartu.

"Zuzendaritzak esandakoa ez betetzeagatik", desobedientzia egotzita, egun bateko soldata eta lana kendu diete bi irakasleri. Haiek errekurtsioa ipin daitekeela eta bidea aztertuko dutela esan dute. Zuzendaritzatik egoera ez errepikatzen lan egiteko borondatea azaldu dute.



'Indarkeria matxistari ez' esan zioten herritarrek

Indarkeria matxistaren aurkako leloaz irten ziren herritarrek astelehenean kalera. Udalak deitutako agerraldia izan zen; aurretik, udalbatzak emakumeen indarkeriaren aurkako mozio bat onartu zuen. Agerraldiaren ostean, *Hitzak* antzezlanak ikusi ahal izan zen Arkupen; hitzek ere mintzen dutela agerian uzte duen lana.

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Atletismoaren gaineko argazki erakusketa egingo dute Arkupen

Atletismo-zaletasuna islatzen duen erakusketa izango da abendu osoan

IMANOL BELOKI | ARETXABALETAKO

Aretxabaletako herritarrek eta atletismoa oso lotuta egon dira beti. Izan ere, kirol hori praktikatu duten pertsona ugari daude herrian. Txapeldun ugari, eta bere garaian sekulako sariak irabazitakoak; Fernando Agilar *Aretxabaletako galgoa* atleta, esate baterako. Martitzenean 18:00etan prentsaurrekoa eskaini zuten Ramon Erañak, Jose Ramon Intxauspek, Fernando Unanuek eta Amaia Murgiondok, erakusketaren nondik norakoak azaltzeko.

Aretxabaletako Argazki Taldeak, Udalaren eta UDAREN kolaborazioaz, Arkupen erakusketa egingo du abendu osoan. Erakusketa 60 argazki ingururekin osatuta egongo da, egunkari zatiekin, atleten sariekin eta beste hainbat objektuekin osatuta. Aretxabaletan hainbat atleta famatu egon dira eta haiek gogoratzeko argazki erakusketa prestatu dute. Abenduaren 3an, martitzenean, hasiko da. Astelehenean egubakoitzera, 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara egongo da ikusgai. Zapatuetan goizez bakarrik egongo da aretoa zaba-



Antolatzaileak erakusketarako erabili duten materialarekin. | IMANOL BELOKI

lik eta domeketan, berriz, itxita egongo da.

Erakusketaren helburua UDako korrikalarien historiaren jarraipen kronologikoa egitea da. Hala, Manteka anaia, Fernando Agilar *Aretxabaletako galgoa*, Lurdes Izurrategi, Ramon Jausoro, Joseba Larrinaga eta beste hainbat kirolariren argazkiak

jarriko dituzte ikusgai. Hori bai, Fernando Agilar izango da erakusketaren ardatz nagusia, baina gainerako atletek ere izango dute euren lekua. Aspaldiko argazkiez gain, gaur egungo argazkiez ere baliatuko dira erakusketa osatzeko eta artxiboa handitzeko. Horretarako, atleta amateurrek diren herritarrei, korrikan ari

direneko argazkiak eskatu dizkiete eta erantzuna oso ona izan da. Herritarrek bidalitakoak Behobia-Donostia, Ojala Zelaiko krosa, denbora librean korrikan... eta halako argazkiak izan dira, eta haiekin collage bat egingo dute. Horrela, atletismoarekiko zaletasuna eta egindako lana bertan behera ez gelditzeko gaur egungo argazkiekin lana osatu nahi dute. Jose Ramon Intxauspe erakusketaren antolatzaileetako batek hau esan du: "Material gutxiarekin hasi ginen, baina lan hau egin izan ez bagenu, argazki hauek desagertu egingo ziren".

Argazkiak atletismoarekin lotutakoak izango dira: atletak korrikan, sariak jasotzen... baina ez da hori bakarrik izango. Kuriositate asko ere batu dituzte lana egin dutenek. Sari banaketa batean garbigailu bat garaikurrarekin batera jasotzen, kafeontzi antzeko beste produktu bat koparekin batera jasotzen...

Omenaldia Ibarren

Argazki erakusketa ez da izango omenaldia bakarra. Abenduaren 15ean Aretxabaletako futbol taldeak Beti Gazteren kontrako partidua jokatu du Aretxabaletako Ibarra futbol zelaian. Bertan, partidua hasi aurretik, Fernando Agilarri, Manteka anaiei, Ramon Jausorori eta Joseba Larrinagari omenaldia egingo diete; haien familiakoak izango dira bertan. Bada, bertan, oroi-garri batzuk emango dizkiete atleten familiarrei.

'Aretxabaletako argazkitan' lehiaketaren azken txanpa

I.B | ARRASATE

Jar gaitezen ekimenak, Huhezirekin elkarlanean, *Aretxabaletako argazkitan* lehiaketa antolatu du. Abenduaren 4a izango da argazkiak aurkezteko azken eguna, eta, hain zuzen ere, *jargaitezen@bagara.net* helbide elektronikora bidali beharko da.

Herriaren gaineko edozein gai, arlo edo errealitate islatuz, parte hartzaile bakoitzak hiru argazki aurkeztu beharko ditu lehiaketara. Argazkiak Arkupen ipiniko dituzte ikusgai abenduaren 9tik 18ra bitartean. Kultura etxeke sarreran egongo dira ikusgai, eta, horrela, herritarrek argazkiak ikusi eta bozkatzeko aukera izango dute. Horrenbestez, bi irabazle egongo dira. Sarietako dagokienez, Ibarako spa-gunerako eta hilabete osoko Arkupeko zine emanaldietarako sarrerak jasoko dituzte bi irabazleek. Irabazten duenak herriko jatetxe batean bi lagunentzako afaria ere jasoko du; herritarren botoen bidez irabazten duenak, aldiz, bertako produktuz osatutako otarra.

Musikaren erritmora igaroko da urteko azken hilabetea

Keu Agirretxea ondarrutarrak azken lana aurkeztuko du Zariaian hilaren 5ean

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Urteko azken hilabetearen sartzear gaudela, Aretxabaletako kultura agendaren barruan ekimen ugari antolatu dituzte; besteak beste, askotariko musika emanaldiak.

Profesionalak eta ikasleak

Lehenik eta behin, Keu Agirretxea musikariaren bisita jasoko du Zariaia aretoak abenduaren 5ean. Ondarrutarrak *Behe presioaren erdigunean* 16. estudioa lana kaleratu berri du. Azaroa ezkeror ari da Fignuh Experience laukotearekin batera diskoa aurkezten eta Aretxabaletan ere halaxe izango da. Emanaldia egunean izango da, 22:00etan hasita.

Ondoren, Leizarra musika eskolako txanda izango da: abenduaren 10ean piano, tronpetak, tronboi eta tronbo emanaldia egingo dute eta hilaren 17an Gabonetako kontzertua eskainiko dute.

Aretxabaletako Abesbatzak ere izango du bere tokia abenduko kultura agendan. Bi saio eskainiko dituzte, abenduaren 22an eta 29an; azken horri dagokionez, urtero egiten den Gabonetako emanaldia izango da.



Keu Agirretxea ondarrutarra. | KEU AGIRRETXEA

Horrez gain, Juan Carlos Iriar musikari oñatiarra Aretxabaletan izango da abenduaren 26an eta Zariaia aretoan emanaldia egingo du.

Ostegun Akustikoaren amaiera

Bestalde, Ostegun Akustikoak lehiaketak bide erdia egin du dagoeneko. Astebeteko atsede-

aldia egingo du eta lehiaketaren hirugarren saioa abenduaren 12an izango da: Jim Tnt arrasatearrak joko du Artano tabernan, country eta slide blues doinuak sortuta. Lehiaketaren azken emanaldia abenduaren 19an izango da, Dagda tabernan, eta Saiatu Berriz bikoteak pop kantuen bertsiok egingo ditu.

Asteburu bizia dauka aurretik Oxel Vazquez UDAko karatekak

Z.V.D.M. | ARETXABALETAKO

UDAKo karate taldeko Oxel Vazquezek asteburu bizia du aurretik: Kantabrian eta Errioxan jokatu den txapelketa banatan hartuko du parte.

Colindres eta Calahorra

Bihar, 28. Colindres Hiria txapelketan arituko da Vazquez. Eta domekan, ostera, Errioxako 20. Calahorra Hiria txapelketan esku hartuko du eta Aragoiko,

Nafarroako, Euskadiko, Kataluniako, Gaztela-Mantxako, Gaztela eta Leongo eta Errioxako aurkariak izango ditu aurrez aurre.

68 kilo azpiko junior kategorian lehiatzen da Vazquez. "Euskal Herritik kanpo nola lehiatzen garen ikusteko balio dugu. Emaitzak baino, garrantzitsuagoak izango dira sentsazioak. Zortetik onena opa dugu". Hala esan dute UDAtik.

Bihar arratsaldean puzgarriak ipiniko dituzte Ibarra kiroldegian haurrentzat eta gazteentzat

Bihar, azaroak 30, puzgarriak ipiniko dituzte Ibarra kiroldegian arratsaldean. Haurrak eta gazteak bertaratu ahal izango dira; hala, 3 eta 6 urtekoek gurasoekin joan beharko dute, 16:30etik 17:30era bitartean. Ondoren, 7 eta 10 urte artekoen txanda izango da, 17:30etik 18:30era; eta azkenik, 11 eta 12 urte artekoek izango dute igerilekura joateko aukera, 18:30etik 19:30era.

'El mayordomo' filma nagusientzat eta 'Epic' gazteentzat asteburuan Zariaia aretoan

Asteburu honetan ere egongo da zer ikusi Zariaia aretoan. Hala, gaurtik domekara bitartean *El mayordomo* filma eskainiko dute; azaroaren 29an eta 30ean 22:00etan hasiko da eta abenduaren 1an, ostera, 19:30ean. Horrez gainera, gazteentzako zine emanaldia ere egingo dute: animaziozko *Epic* filma izango da bihar, zapatua. Saioa 17:00etan hasiko da.

Kirol zerbitzuak emateko deialdia aldatu egin dute

M.B. | ESKORIATZA

Martitzenean egindako osoko bilkuran, udalbatzak aho batez onartu zuen kirol zerbitzuak emateko kontratua esleitzeko epea luzatzea; hain justu, urtarrilaren 3ra arte aurkeztu ahal izango dira horren gaineko eskaintzak.

Azaroaren 20an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen kirol zerbitzuak emateko kontratua prozedura ireki bidez esleitzeko baldintza ekonomikoaren, juridikoen eta administratiboen iragarkia. Horretan, abenduaren 5a baino lehen aurkeztea aurreikusten zen; baina Kirol Zerbitzutik eskatuta, epe hori atzeratzea erabaki da. Esan bezala, kontratazio prozesuan parte hartzeko proposamenak Udala Erregistroan aurkeztu behar dira urtarrilaren 3a baino lehen, 09:00etatik 14:30era bitartean.

Kontratuaren helburua da udal kirol instalazioetan kiroldegiko harrera, sorosle eta ekintzen zerbitzuak aurrera ateratzea. Kontratuak bi urteko iraupena izango du eta urtez urte luzatu ahal izango da; gehienez ere, beste bi urtez.

Euskararen aldeko errotuluak jarriko dituzte datorren astean

Euskararen Eguna abenduaren 3a bada ere, bihar egingo dute herrian

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Euskararen Egunaren bueltan askotariko ekintzak dabilta antolatzen Eskoriatzan. Besteak beste, euskararen erabilera bultzatzeko errotulu berriak jarriko ditu Udalak datorren astean. Euskara zinegotzi Maider Landak jakinarazi du herriko hainbat eraikin publikotan egongo direla horiek: hain justu ere, udal txean, liburutegian, museoan eta kiroldegian. Horrez gain, herriko sarrera-irteeretan ere jarriko direla gaineratu du. Horien bidez Eskoriatzan euskaraz badakitela eta, hortaz, toki horietan erabiltzeko gonbidapena egin gura izan dela esan du zinegotziak.

Aipatutako eraikin bakoitzak lelo eta kolore zehatza izango ditu; esaterako, herriko sarreran eta Manuel Muñoz kiroldegian *Eskoriatzan ere euskaraz* eta *kiroldegian ere euskaraz* leloa duten errotuluak jarriko dituzte, hurrenez hurren.

Kiroldegian kamiseta

Kiroldegiko langileek, gainera, lelo bera duen kamiseta eroango dute jantzita. Urdinak izango dira kiroldegiko leloaren hitzak. Eus-

EUSKARAREN EGUNA

BIHAR, ZAPATUA

13:00 Bertso kalejira Arkaitz Estiballes eta Oihana Bartra bertsoariekin.

14:30 Herri bazkaria egingo dute Egokiena elkartean; bazkalostean, saioa eskainiko dute kalejiran ibilitako bertsoariekin.

18:00 Mihiluze Erraldoia lehiaketa izango da kontzejupean. Ordu erdi lehenago emango da izena.

kara zinegotziak nabarmendu du Eskoriatzan denbora daramatela kirol arloan euskarari bultzada eman nahian, eta, hain justu, hortik irten dela gainerakoetan errotuluak jartzeko ideia.

Errotuluak dagoeneko diseinatuta daude eta datozen eguntan egingo dituzte. Asmoa da martitzenerako, Euskararen Egunerako, jarrita izatea.



MIRIAN BITERI

Emakumeen aldeko ekimena

Emakumearen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunaren bueltan, elkarretaratzea egin zuten astelehen iluntzean Eskoriatzan. Amuska emakumeen elkarteak deituta, hamabost bat lagun ordu erdiz elkarretaratu ziren plazan, *Emakumeen aurkako indarkeria ez jartzeko* pankarta aurrean zutela.

OHARRAK

WII TXAPELKETA

Astero egingo dituzte ekintza bereziak, eta gaur, egubakoitzan, wii txapelketa dute umeek Tortolis ludotekan, 17:30ean.

'FENIX 11*23' FILMA

Gaur, egubakoitzan, *Fenix 11*23* izeneko filma ikusi ahal izango da Ibarraundi museoan, 22:30ean. Katalanaren alde egingo duen 14 urteko gazte baten istorioa kontatzen da horretan. Mezu elektronikoz supermerkatu kate bati etiketan katalana ere erabiltzeko eskatzeagatik, ekintza terrorista informatikoa egitea leporatu zioten hari. Istorioreala da.

TXALOAK ETA TXISTUAK



INAKI KORTAZAR

Pegatinak kultura agenda panelean



Txistu bat bidali dute Eskoriatzatik, eta honela azaldu dute: "Eskoriatza Garbiakoek, astero legez, manifestazio zaratzatsua egin zuten hilaren 21ean. Ostean, atez atekoaren aurkako pegatinekin agenda kulturalako panela josi zuten". Pegatinak banan-banan kendu zituztenen jarrera ere txalotu dute.



KONPONKETAK:

Txapa

Margoa

Mekanika

Euskararen Eguna, hitzaldi eta ekintzaz beteta

Paula Kasaresen atzoko hitzaldiarekin hasi ziren Euskararen Nazioarteko Eguneko ekitaldiak

IURE EIZAGIRRE | ANTZUOLA

Herritar askok egunero bizi arren euskara, eta euskaraz, abenduaren 3a ospakizunerako aitzakia bihurtzen da urtero. Aurten ere Euskararen Nazioarteko Eguna herriko eragile ezberdinen babesa jasoko du eta ugari dira egingo dituzten ekintzak.

Atzo izan zen lehen ekitaldia: Paula Kasares Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasleak Oларanen emandako hitzaldia. Ordubet baino gehiagoko jardunean seme-alabak euskaldun hazteko bidean eta euren hizkuntza

portan familiak eta gurasoek duten garrantzi eta eraginaz aritu zen Kasares. Atzo azaldu zuenez, familiak du haurra euskal hiztun bihurtzeko giltza, batez ere txikia denean.

Euskararen Nazioarteko Egunaekin lotutako hurrengo ekintza herritarren eskutik helduko da; izan ere, Gazte Txokoko parte hartzaileek biharko sukaldaritza saioa taloak egiteko aprobetxatuko dute. Ohi bezala, eurek jan beharrean, senide eta herritarrei probatzeko aukera eskai-

niko diete, 17:30ean banatuko dituzte-eta Zurrategin.

Hitzaldia eta bakarrizketa

Euskararen Egunaren ostean, abenduaren 4an, Iñaki Perurena harri-jasotzailea izango da herrian, *Harri eta herri* hitzaldia egiten. Euskal Herriko zenbait herritan, baita bailaran ere, aritu da Perurena harriak gure herriko kulturaren izan duen garrantzia azpimarratzeko hitzaldiak egiten. Harria ardatz hartuta, euskaldunak buruzko ideiak eta bere iritzia azaltzeko aprobetxatuko du. Hitzaldi horien harira Perurenak hauxe esan du: "Munduko kultura guztiek harria landu dute eta euskaldunek beste erabilera bat eman diogu, kirolarena". 18:00etan hasiko da leitzarraren hitzaldia Oларan etxean.

Ekintzak amaitzeko, egunean, *Buah, txabal!* bakarrizketa saioa eskainiko du Jon Zubiaga musikari eta aktore arrasatearrak, 22:00etan, gaztetxean. Unai Iturrirriagarrak Arrasateko AED euskara elkartearen eskariz idatzi zuen bakarrizketa hori, gazteei euskararen, hizkuntza ohituren eta jarrearen inguruan hitz egin eta pentsaratzeko.



Asteleheneko elkarretaratzea Herriko Plazan. | ANTZUOLAKO GAZTETXEA

Herritarrak batera, emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako borrokan

I.E. | ANTZUOLA

Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Nazioarteko Egunaren harira, 30 herritar baino gehiago batu ziren joan de astelehenean Herriko Plazan. *Emakumeen kontrako indarkeriarik ez!* lelopean egin zuten elkarretaratzea antzuolarrek.

Maskulinitasun tailerra

Azaroaren 25a dela-eta hainbat ekintza egin dituzte azken bi

asteetan, eta bihar zuten egitekoa azkena: maskulinitasun tailerra. On:Giz elkarteak kide batek eman behar zuen tailerra, baina, osasun arazoak direla eta, ezin izango da Antzuolan egin; beraz, oraingoan, bertan behera utzi dute tailerra.

Gizonezkoak gizon ereduarekin eroso bizi diren ezagutzea eta maskulinitasunaren identitatei buruzko gogoeta egitea zuten helburu tailerrak.

Eskaintza bereziak prestatu ditu udal gimnasioak laugarren urteurrenerako

Doako saioak, ikastaro bereziak eta gonbidapenak egongo dira urtarrila arte

I.E. | ANTZUOLA

Laugarren urteurrena bete berri du udal gimnasioak, eta, ospatzeko, hiru hilabeteko programa prestatu du. Joan den astean hasitako gonbidapen astearekin ekin zion egitasmo berriari. "Erabiltzaile bakoitzari gonbidapen bat banatu genien lagun edo familiar bat ekarri ahal izateko gimnasia eta ekintzetan parte hartzeko", dio gimnasioko arduradun Xabier Azkaratek. Erabiltzaileek abenduaren 5a arte aprobetxa dezakete gonbidapena.

Azaroaren hasiera ezker hainbat ikastaro eskaintzen ari dira egubakoitzetan eta gaur spinning saio berezia emango dute. Eta abenduaren 9tik urtarrilaren 2ra pilateseko, spinningeko eta body tonuko doako hasitapen saioak emango dituzte.

Urtarrilean, 13tik 18ra, aste oso bat erabiliko dute ohikoak ez dituzten ekintzak egiteko. Egun horietan herritar guztiei banatuko dizkiete gonbidapenak; beraz, denendako irekiko dute gimnasioa. Hilaren 18an jai handi bat egitea

aurreikusten dute. "Ekintzak gimnasioan egitea, baino kanpora ere ateratzea bada asmoa", Azkaratek azaldu duenez.

Ikastaro berria abenduan

Bitartean, egunerokotasunarekin jarraitzen du gimnasioak eta gimnasia abdominal hipopresiboen ikastaroa eskainiko du berriro abenduan. "Jende asko dago haurdun edo orain umea edukita, eta horientzat bideratuta egongo da, nahiz eta herritar guztientzako zabalik dagoen".



Spinning saioa gimnasioan. | GOIENA

Sagastiko biribilgunea erabilgarri egongo da datorren aste amaieran

Azaroaren hasieran ekin zieten Sagastin biribilgunea egiteko lanei eta orduz geroztik itxita egon da bertako sarbidea. Udaletik jakinarazi dutenez, lanak amaitzen ari dira eta datorren astebururako irekiko dute biribilgunea berria. Azkenaldiko euriteek behartuta, egun batzuetan geldirik egon dira lanak, baina ez dute atzerapenik izan.

Erretiratuen karta txapelketako izen-emate epea, gaur arte

Astelehenean hasiko da Landatxope erretiratuen elkarrearen karta txapelketa. Lau jokotan ariko dira: musean, puntuatan, tutean eta briskan. Izena emateko epea astelehenean zabaldu zuten eta gaur amaituko da; beraz, txapelketan parte hartu nahi dutenek oraindik badute aukera. Txapelketak lau egun iraungo du, eguenera arte.

Txiki Txokoa irekiko dute martitzenean Eguzki auzoan

Lokala guztiz egokitu gabe dute, baina, udazkena aurrera doanez, dituzten baliabideekin irekiko dute martitzenean Kikirixo Txiki Txokoa, Gazte Txokoaren lokal berean. Bada, martitzeneko ekitaldian, aurkezpena egingo dute 17:00etan, txokolate-jana 17:30ean eta musika emanaldia egongo da 18:00etan.

"Oso balorazio positiboa" Libre Egunaren gainean

Eguraldiak ez lagundu arren, "libre bizi izatea aldarrikatzeko egun biribila" izan zela diote

I.E. | ANTZUOLA

Joan den zapatuan Libre Eguna egin zuten herrian, udazkenean Madrilgo Auzitegi Nazionalen hasitako 35/02 eta 26/11 sumarioen aurkako epaiketarako auzipetuei babesa eman eta zama ekonomikoa arintzen laguntzeko.

Antolatzaileek balorazioa egin dute egunotan eta prentsa-ohar bidez hau adierazi dute: "Egun biribila izan zen; eguraldia lagun ez izan arren, Antzuolan libre bizi izateko aldarria egin genuen".

Goizean dultzaineroak kalejiran ibili zirela eta Olalde elkartean bertso bazkaria egin zutela ekarri dute gogora. "Bertan elkartutakoek laranja kolorez jantzi genuen eguna, zapi, kamiseta eta paella laranja artean", diote.

Bazkalosteko kantaldia eta gauean gaztetxea bete izana azpimarratu dute. "Beraz, balorazio oso positiboa izan da, antzuolarren artean libre bizi izateko aldarria ozen entzun delako".



Dultzaineroen kalejira zapatuan herriko kaleetan. | JOSETXO ARANTZABAL

Eskerrak laguntzaileei

Egunean zehar lanean ibilitakoei eskerrak eman dizkiete: "Txistulari taldeari, dultzainero gazteei, Olalde elkarteari eta bazkaria prestatu zutenei, komertzioei, Klak!son eta talde hasi berriei,

eta Gaztetxeari eta bertan lanean jardun zuten guztiei".

"Eskerrak guztioi elkartasunetik konpromisorako saltoa emateagatik, egunero adierazten duzuenak egingo gaituelako libre", amaitu dute prentsa-oharra.

Ikurrina balkoian jartzeko eta omenaldira joateko deia etziko

"Inposaketa guztien aurrean", ekitaldi "xumea" egingo dute plazan (13:00)

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO
"Azkenaldian jasotzen ari garen inposaketa guztien aurrean, guk gure ikurrina aldarrikatzeko eguna egin nahi dugu". Horixe dio Udalak etziko antolatutako duen omenaldia iragartzeko oharrak. Madrilgo Gobernuak Espainiako bandera jartzeko aginduaren aurrean erabaki dute ekitaldi "xume" bat antolatzea: "Festa giroan aldarrikatuko dugu gurea ikurrina dela. Omenaldi xume bat izango da", esan digu Ramon Ajuria alkateak.

Etxeko balkoian ikurrina jarri eta 13:00etan Bizente Goikoetxea plazan egingo den ekitaldira gonbidatu dituzte herritar guztiak; jatekoa eta edatekoa egongo da.



Aramaioiko ume batzuk Ikurrinarekin, 1977ko urtarrilaren 19an. | MARI CARMEN AIASTUI

1977an igo zenekoa

Omenaldirako ikurrinarekin lotura zuzena duten bi aramaioar gonbidatu dituzte. Lehena, Salazan baserriko Julian Untzueta. Demokrasiako lehen alkatea eta 1977ko urtarrilaren 19an, ikurrina legez-tatu berri, Aramaioko udaletxean jartzeko agindua eman zuena: "Bergarako Alkateen mugimenduan geundenok Gobernuko presidentearengana, Adolfo Suarezengana,

ESANAK	
"Inhabilitazioa ekar lezake, eta, beraz, oso gai konplikatu da"	"Herri moduan erabakitzeko aldarrikapen gisa jarri genuen"
JULIAN UNTZUETA ALKATE OHIA	JOSE RAMON URIBE ALKATE OHIA

joatea erabaki genuen. Orduan eskatu zen ikurrina legez-tatzea eta hildakorik eragin ez zituzten presoak askatzea, besteak beste", gogoratzen du Untzuetak.

Suarezengana heltzea lortu zuten; horretarako Arrasateko alkate zen Jose Antonio Altuna Txatillo-ren lana ezinbestekoa izan zen, Untzueta-aren arabera. Suarezek Ikurrina legez-tatzeko eskaera onartu bezain pronto, hurrengo egunean, jarri zuten udaletxean. Egungo errealitatera itzulita, Espainiako bandera jartzea ez du ondo ikusten baina gai "konplikatu" dela uste du: "Inposaketa da, eta kontuan hartu behar da egungo alkatearen inhabilitazioa ekar lezakeela. Beraz, oso gai konplikatu da".

1991n ere, esanahi berezia

Bestalde, Jose Ramon Uribe izango da bigarren gonbidatua. Egungo zinegotzi da Udalean baina 1991n alkate zen. Urte hartan ikurrina jartzeak ere esanahi berezia izan zuen: "Herri moduan erabakitzeko aldarrikapen moduan jarri genuen ikurrina Aramaion. Erabaki zuzena izan zela uste dut oraindik ere".

Espainiako bandera jartzearekin ez dago ados, baina jarriko balitz ere, "legeak behartuta" izango litzatekeenez, ez litzateke askorik arduratuko: "Ikurrina jartzearen alkatea inhabilitatu behar badute Espainiako jartzea normala da". Domekako ekitaldira begira ekitaldi "sinbolikoa" izango dela uste du, "beste barik".

Birziklapenaren triptikoan zuzenketak egin dituzte

J.B. | ARAMAIO

Ingurumen eta Nekazaritza batzordeak banatu duen birziklapenaren inguruko triptikoan akatsak daude. Garbigunera eraman daitezkeen hondakinen zerrendan, hain zuzen. Honako zuzenketak egin dituzte: pneumatikoak motordunak ez diren ibilgailuen gurpil-azalak bakarrik izan daitezke, kanpin-gas motako bonbona txikiak jasotzen dira –ez butanozko laranja horiek–, osasun edo medizina jatorria duten hondakinak –sendagai ontziak, xarabeak...– farmaziara eraman behar dira eta betaurreko zaharrak optikara eramatea gomendatzen dute. Garbiguneari onartzen diren hondakinek partikularrek edo sortzaile txiki batek sortutakoak izan behar dute.

Mendian federatzeko dei egin du Orixol mendizale elkarteak

Orixol mendizale elkarteak 2014ra begira mendian federatzeko dei egin du. Bazkide bakarrik egin gura duenarendako urteko kuota hamar euro izango da –18 urtetik beherakoek bost euro–. Bazkide egiteaz gain federatu gura duenak hainbat aukera izango ditu. Informazio gehiago jasotzeko, berriz, idatzi orixolme@hotmail.com helbidera.

'Bihotzerako dieta' hitzaldia abenduaren 5ean kultura etxean

Bihotz Bizi elkartearen eskutik *Bihotzerako dieta* izenburu duen hitzaldia egongo da abenduaren 5ean kultura etxean (18:00). Arabako Bihotz Bizi elkarteak aditu Elena Sanchezek egingo du hitzaldia eta gaixotasun kardio-baskularrak prebenitzeko hainbat aholku emango ditu. Hitzaldia irekia da, edonork har dezake parte.

Euskararen alde elkarlana sustatzeko konpromisoa

'Arnasguneak hedatuz, etorkizuna landu' izeneko idatzia onartu zuen Udalak atzo osoko bilkuran

J.B. | ARAMAIO

Euskararen Egunaren harira, adierazpen instituzionala onartu zuen Udalak atzo osoko bilkuran. Aramaion euskara nagusi denez, hizkuntza politika "ausart eta aurrerakoiak" garatzeko baldintzak daudela dio idatziak: "Udal-erri euskaldunok lege babesa eta baliabideak behar ditugu aurrerapauso sendoak eman ahal izateko". Era berean, Udalak, "herriko eragile eta norbanakoe-

kin elkarlanean", euskararen aldeko lanean jarraitzeko "konpromisoa" hartzen du.

San Martin eskolako ekintzak

Bestalde, ekintza aipagarrienak San Martin eskolak antolatutakoak dira. Abenduaren 2an magia saioa egongo da Eriz magoaren eskutik, kultura etxean (14:30). Ikuskizunaren ostean, guraso elkarteak txokolate-jana prestatu du (16:00). Abenduaren 3rako, berriz, hainbat



Ramon Ajuria alkatea ekainaren 8ko Uema egunean. | GOIENA

ekintza antolatu dituzte: pegatinak banatuko dituzte (09:00), *Ongi etorri San Martin eskolara* abesti ofiziala abestu eta dantzatuko dute (10:40), bertsoak abestuko

dituzte *Euskaraz bizi nahi dut* kantuen doinua oinarri hartuta (11:00) eta, amaitzeko, *Euskaraz bizi nahi dut* abestia bera dantza-tu eta kantatuko dute (11:30).

Kalera, eraso sexisten aurka

Astlehenean, Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Egunean, elkarretaratzea egin zuten Bizente Goikoetxea plazan. Zenbait herritar elkartu ziren *Aramaion be eraso sexisten kontra* leloarekin bat egiteko. Udalak konpromiso "irmoa" agertu du indarkeria matxista "erotik" ezabatzeko.



Bilboko itsas museora joateko aukera abenduaren 15ean

Zuiako Koadrilak Bilboko itsas museora bisitatzeko irteera antolatu du abenduaren 15erako. 0 eta 6 urte artekoek bi euro ordaindu beharko dute eta 7 urtetik gorakoek, berriz, bost euro. 10 urtetik beherakoek heldu batekin joan beharko dute. Izena eman behar da abenduaren 6a baino lehen (945 44 50 16).

ELGETA

'Euskara mundura' ekintzarekin amaituko da Euskararen Astea

Asteburuan euskarazko pelikulak emango dituzte ludotekan eta gaztelekuan

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Eguaztenean Tuterako Argia ikastolako zuzendari Anika Lujan izan zen Espaloian. *Badira Bagera* ikus-entzunezkoa oinarri hartuta Nafarroako Erriberan euskarak bizi duen egoera azaldu zuen aurten Nafarroa Oinez har-

tu duen ikastolako zuzendariak. Atzo, berriz, Saroa Bikandi ipuin kontalariak gurasoendako taillera egin zuen liburutegian. Azpimarratu zuen garrantzitsua dela umeei ipuinak kontatzea: irudimena lantzeko, harremana lantzeko, irakurzaletasuna bultzatzeko... Nahiz eta seme-alabek irakurketa menderatu, ipuinak kontatzen jarraitzeko gomendioa eman zien gurasoei.

Euskararen Astearen barruan egin dira bi ekintzak, eta datozen egunetan egongo da bestelako eskaintzarik. Gaur ludotekan eta domekan gaztelekuan, euskarazko pelikula bana emango dute.

Ekintza gehienak, ordea, abenduaren 3an, Euskararen Egunean, egingo dira.

Martitzenean ekintza ugari

Liburu erakusketa, jolasak eta txokolate beroa egongo dira martitzenean 16:00etatik aurrera Herriko Plazan. Eguraldiak laguntzen badu *Euskara mundura* ekintza ere iragarri du Udalak 18:00etarako. Kolore guztietako paperezko ehun bat globo askatuko dituzte zerura Domingo Iturbeko plaza beretik. Herriko elkarteek hartuko dute parte ekintza horretan, eta herritarrak ere gonbidatuta daude.

EUSKARAREN ASTEA 2013

AZAROAK 29, BARIKUA

17:30 Ludotekan, pelikula umeendako, euskaraz.

ABENDUAK 1, DOMEKA

18:00 Ludotekan, pelikula gazteendako, euskaraz.

ABENDUAK 3, MARTITZENA

16:00 Plazan, euskarazko liburuen erakusketa.

16:30 Plazan, jolasak.

17:30 Plazan, txokolate beroa Maala guraso elkartearen eskutik.

18:00 Domingo Iturbeko plaza berrian, *Euskara mundura* ekintza irekia.



Euskararen arbola egin zuten iaz Herri Eskolako ikasleek. | L.Z.

NIRE USTEZ

MARI ASUN AGIRRE



31 urte bizitza ematen

31 urte pasa dira 1982ko azaroaren 3tik. Egun hartan atera genuen lehenengo odola Elgetan lagun talde batek. Ordura arte Bergarara joaten ginen odola ematera, baina Donostiako odol-emaileen elkartearekin hitz egin

ondoren, egokiena Elgetara horretarako dotazio bat ekartzea zela erabaki zuten.

Orduz geroztik urtean bitan elkartzeko gara, udaberrian eta neguan, aldiko Elgetako 40 bat odol-emaile.

Garai batean odolik eman ezin zuten norbanako batzuek diruz laguntzen zuten gure jardura. Gaur egun, ordea, Gipuzkoako odol-emaileen elkartetik eta Elgetako Udaletik jasotzen ditugu diru laguntzak, eta odol-emaileentzat indarrak berreskuratzeko jatekoa eta edatekoa erostera bideratzen ditugu ekarpen horiek.

Odola ematea borondatezko ekintza da. Oraindik inork ez du asmatu odola fabrikatzen duen makinari. Horregatik, guztiok zarete behar-beharrezko besteen bizitzak salbatzeko. Agian, egunen batean, guk ere beharko dugulako beste norbaiten odola bizitzak disfrutatzen jarraitzeko.

Odola emateko hurrengo hitzordua abenduaren 2rako egin dugu. Arratsaldeko seietatik zortziak bitartean izango duzue aukera.

Lerro hauek baliatu nahi dituzalantzan zaudeten guztiok animatzeko. Elgetako udaletxean ikusiko dugu elkar.

Gerra gunerako apustu sendoagoa eskatu du Bilduk

L.Z. | ELGETA

Faktura zerrenda baten kontra agertu zen EH-Bildu martitzeneko osoko bilkuran. Adierazi dute benetan sinesten dutela gerra guneko apustuan, eta teknikariaren kontratazioa amaitu zenetik "antolaketa falta nabaria" sumatzen dutela. Eskatzen dute "behar duen bezalako erantzun bat (...) unean uneko presazko erabaki ezegokirik gabe". Oxel Erostarbek erantzun du 2013an 60.000 eurotik gora bideratu direla gunea mantendu, proiektua bultzatu eta pertsonal gastuei aurre egiteko. "Oposizioak badaki datorren urtera begira ere gerrako proiektuari bultzada ematen jarraituko dugula", adierazi du.

OHARRAK

SASKIBALOI SAIO IREKIA
Lehen mailatik gorako umeendako saioa gaur, barikua, 18:30ean, gimnasioan.

PREBENTZIO TAILERRA
Droga-menpekotasunaren prebentziorako saioa bihar, zapatua, 17:30ean. Gaztelekuan izango da, 13-15 urte bitarteko gazteendako.

OZKARBICO LOTERIA
Ozkarbitik Gabonetako loteria jasotzeko egunen berri eman dute. Azaroaren 30ean, 12:00-13:00; abenduaren 3an eta 4an, 19:00-20:00.

ANTZERKIA ESPALOIAN
Ikusi Makusi taldeak *Vivir en Villa Titiritaina* antzezlan egingo du abenduaren 5ean, 17:30ean. Erretiratuen Kulturaren Astearen barruan.

Domeka goizean jokatuko dituzte herri mailako frontenis txapelketako bi finalak Udal Pilotalekuan

Gizonezkoen finala 10:00etan jokatuko da. Aurrez aurre izango dira iazko txapelketak —Haritz Gallastegi eta Enrike Elkoro— eta Andoni Elortza eta Eneko Maguregi. Jarraian, bikote mistoen finala jokatu da: iazko txapelketatik —Idoia Serna eta Asier Osoro— eta txapelketan lehen aldiz bikotea osatu duten Ubera anai-arrebak. Sari banaketa bi finalak jokatu ostean izango da.

Heriotzari buruzko 'Aulki hutsak' dokumentala abenduaren 4an estreinatuko dute Espaloian

Heriotzari buruzko dokumentala da *Aulki hutsak*, eta gaur egun gure gizartean tabu bihurtu den gaia dakar: *Maite dugun hori hiltzean zer?* Profesionalen eta norbait galdu duten senideen elkarrizketak biltzen ditu. Inaki Peña medikua da zuzendari eta gidoigile eta Artemanek egin ditu produkzio lanak. Dokumentala abenduaren 4an estreinatuko dute Espaloian, 19:00etan.

X. PILOTA TXAPELKETA

Zazpi norgehiagoka aste bukaeran

GAUR, BARIKUA, 19:00ETAN

Pello Larrea-Fernando Zenitagoia / Angel Ibarluzea-Alberto Telleria
Jabier Bolinaga-Mikel Elkoro / Luis A. Alkorta-Gorka Bolinaga
Oskar Askasibar-Haritz Gallastegi / Enaitz Ezpeleta-Jon Irazabal
Oskar Saratsua-Inaki Olaortua / Oxel Erostarbe-Gorka Arizmendiarieta
Mikel Beretxina-Ibon Untzetabarrenetxea / Iraitz Bolinaga-Koldo Erostarbe
Iban Retolatza-Diego Cantabrana / Eneko Ormaetxea-Mikel Ormaetxea

DOMEKAN, 12:00ETAN

Odei Zenitagoia-Andoni Elortza / Iban Retolatza-Diego Cantabrana

LEINTZ GATZAGA

Udalerriko araztegia eraikitze lanak hasi dira

Leintz Gatzagako ur-zikinak Deba ibaira garbi botatzeko eraiki behar dute araztegia

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Oraingo astean hasi dituzte herriko garbigune inguruan (errepide azpian) Leintz Gatzagarako eraiki behar duten araztegiari dagozkion lanak. Gipuzkoako Foru

Aldundiak egin behar du proiektua, bost hilabeteko epean, bertatik adierazitakoaren arabera. Araztegia eraikitze bideratutako aurrekontua, berriz, 629.357,43 euro da (BEZa barne).

Lanon helburua da Leintz Gatzagako ur-zikinak Deba ibaira garbi botatzea. Izan ere, nahiz eta Leintz Gatzagako Udalak 2005 eta 2007. urteetan udal saneamentuari dagozkion hainbat zati eraiki, ez du araztegia sistemarik. Eta horren ondorioz, saneamentu horren bitartez batzen dituzten isuriak garbitu barik bideratzen dira Deba ibaira.

Eskoriatzarekin lotu ezin

Hori konpontzeko aukeretakoa bat zen Eskoriatzan ur-zikinak

bideratzeko eraikita duten kolektorearekin lotzea Gatzaga, eta haren bitartez bideratzea Gatzagako ur-zikinak ere. Baina hori egitea ez da posible. Horregatik, Gipuzkoako Foru Aldundiak erabaki zuen Leintz Gatzagako urendako araztegi txiki bat eraikitzea "ezinbestekoa" dela.

"Proiektuak hiriguneko saneamentuaren gaur egungo hiru isuri bereizien bilketa jasotzen du, orain arte bezala isuriak euri uren sarearekin ez batzeko, eta araztegi autonomoraino erama-

teko", Diputazioan jasotako xehetasunen arabera.

Dorletarako errepidea

Araztegi txiki hori Gatzagako garbigunearen errepide azpi inguruan kokatu dute. Beraz, horren obrek nonbaiten eragitekotan, Dorletarako errepidean izango dute eragina, ez beste inon. Edozelan ere, Leintz Gatzagako Udaletik adierazi dute euren momentuz behintzat, ez dietela halakoen jakinarazpenik bidali Gipuzkoako Diputaziotik.

TXIRRINDULARITZA

Amateur maila, adin mugaz

Euskadiko Federazioak elite mailan 25 urteko muga jarri izanak eztabaida sortu du

XABIER URZELAI | ARRASATE

Euskadiko ziklismo federazioak, taldeen eta lasterketako antolatzailen oniritziarekin, elite mailako lasterketetan parte hartzeko muga 25 urtean jartzea erabaki zuen azaroaren 12an Elgoibarren egindako batzarrean, eta ordutik hona erabaki horren kontrako adierazpenak entzun dira han eta hemen. Hala, abenduaren 28an hartuko dute behin betiko erabakia.

Kontrako iritziak

Oraingoan, 135 txirrindulari batu dira idatzi bat egin eta muga hori kentzeko eskatuz. Izan ere, eurretako askok nahiz eta bizikleta gainean lehia jarraitzeko gogoz egon, ezingo lukete lasterketetan jarraitu; ez, behintzat, Euskal Herrian. Gurean ditugun bi torneoen artean –Lehendakari eta Euskalduna– eurretako batek jada badu adin muga bat, 23 urtez azpikoa. Hala, Lehendakari torneoan ziklista gazteak protagonista izan daitezela bermatzen da, eta hori horrela, ez dute ulertzen zergatik jarri behar den muga horren goiztiarra Euskaldunan. Bailaran bi lasterketa ditugu Euskaldunakoak, Dorletako Ama Saria Gatzagan (irailean korritzen dute), eta Andramarikoa Aretxabaletan (abuztuan). Gainontzekoak Lehendakari dira. Eta arau horrekin, esaterako, Kepa Otxoa arrasatearrak kanpora joan beharko luke korritzera.

KEPA OTXOA

KANPANZAR HARROB. ZIKLISTA

"Beteranoek ez diete gazteei traba egiten, eta bai, ordea, gauza asko irakatsi"

Bedoñako txirrindularia berandu hasi zen kirol jardueran honetan, 19 urterekin, eta jarraitzeko gogoz dago oraindik –eta taldea izango luke horretarako. Baina, adin mugaren araua ezartzen badute



Kepa Otxoa.



Iñigo Azkarate.



Jon Rivero.



Alberto Altube.

lehia jarraitzeko zailtasun handiak izango lituzke: "Kantabrian joan beharko nuke, han antolatzen dituzten lau lasterketa korritzera", dio penaz.

Otxoak garbi dauka ziklista beteranoagoen eskutik zenbat ikasi duen: "Eta taldean ahalegintzen gara gazteagoi ere daki gun apurra irakasten, ez dut uste traba egiten dugunik". Gainera, Bedoñako gogorazten du goi mailako ikasketak egin dituenak 24-25 urterekin amaitu dituela ikasketa horiek: "Eta behin liburuak alde batera utzita, txirrindularitza urtebetez-edo serioago hartu nahi duenak muga horrekin egiten du topo. Ez du zentzurik".

Hala, abenduaren 28ko batzarrean erabakiko dutenaren zain, entrenatzen jarraitzen du: "Ez dut esperantza galdu nahi, baina ez dakit ezer lortuko dugun".

IÑIGO AZKARATE

DORLETAKO AMAKO ORDEZK.

"Txirrindularitza da halako mugak jartzen dituen kirol jarduerak bakarra"

Iñigo Azkarate amateur mailako Kanpanzar Harrobiak taldearekin batera eta bestera ibili da aurtengo denboraldian. Federazioarekin izandako batzarrean muga horren kontrako botoa eman zuten, baina onartzen du talde gehienak ados azaldu zirela: "Eta kontraesana da, elite mailan adin muga jartzearen alde azaldu diren tal-

de askok, gero, beka duten hainbat ziklista dituztelako taldean, hemengo lasterketetan korritzeko baimena dutenak. Txirrindularitza da mugak jartzen dituen kirol jarduerak bakarra, eta ez dut ulertzen zergatik".

Eta ondorengo hausnarketa egiten du Dorletako Amakoak: "Gero esaten digute martxa zikloturistak lehiakorregiak direla, beste modu batekoak izan beharko luketela, baina 25 urteko gazteei lasterketetan korritzeko baimena kentzen badiegu, zer egingo dute? Zikloturista bilakatu? Izan ere, elitean ezin badute parte hartu, master 30 da hurrengo kategoria, eta hor hutsunea dago".

Amateur maila berez da gogorra, eta gazteak motibatuta egon behar du korritzeko, derrigor: "Bada, motibazioa duen ziklistari ez nioke aukera hori kenduko,

berak erabaki dezala noiz utzi nahi duen lehiatzerari, izan ere, errepideak jarriko du bere lekuan".

JON RIVERO

DEBABARENKO ZIKLISTA

"Dena ez da profesionaletara iristea; elitean lehiatu nahi duenak, zer?"

Bergarakoari azken urtea geratzen zaio 23 urtez azpikoetan, baina gertu ikusten du 25 urteko muga. Errepidean baino, onartzen du ziklokrosean ikusten duela bere burua gehiago. Han ez dago adin mugarik, eta gainera, emaitza hobeak lortzen dabil: "Muga hori ez zait ondo iruditzen, 25 urte izanda ere lasterketetan ibiltzea

atsegin baduzu ziklismoa uztera behartuta zaudelako. Kirol honetan berez traba gutxi baditugu, bada, bat gehiago. Eta, berez ez ditut arau honen zergatiak eza gutzen, entzun dudanez gazteei lekua egiteko da, baina horrek ez du zentzu handirik denondako lekua dagoelako".

Profesionaletara salto egiteko 25 urtekoak erakutsi beharrekoak erakutsita izan beharko lituzkeela da beste argumentu bat: "Baina dena ez da profesionaletara iristea".

ALBERTO ALTUBE

DORLETAKO AMA SARIKO ANTOLATZAILE TALDEKO KIDE

"Nahikoa muga ditugu lasterketak antolatzeko, gehiago jartzen ibiltzeko"

Lehen aipatu moduan, Euskalduna torneoari eragingo dio adin muga horrek, eta torneo horren egutegi barruan dago Dorletako Ama saria. Hala, Alberto Altubek adierazi digu gaur bertan elkartu behar direla Dorletako Amakoak, egoera aztertzeko. Baina, gatzagarrik badu iritzi propioa: "Lasterketetako parte-hartzeari dagokionez askotan jende gutxi etorri izan zaigu, eta ez dut ulertzen zertara datorren muga hau. Irakurri dudanez aurtengo denboraldian bederatzi txirrindulari eragingo die neurri horrek, eta ze traba egiten dute?".

Kategoria honetan, profesional mailatik bueltan etorri izan dira ziklistak, gazteei protagonismoa kendu eta lasterketak irabazi izan dituzte: "Baina gaur egun ez dago halakorik, hona etortzen dena da ziklismoa gustuko duen gaztea, eta ze zentzu dauka gazte horri lehiatzen jarraitzeko aukera kentzeak. Gainera, izango balitz lasterketak federazioak ordaintzen dituela... Baina antolatzailoek ordaintzen ditugu, hortan...".



Tropela Gatzagako maldei aurre egiten, aurtengo irailean. | GOIENA

FUTBOLA

Gorka Valle beteko du Albistegik UDAn utzitako hutsunea

X.U. | ARRASATE

Gorka Valle (Aretxabaleta, 1984) izango da UDA futbol taldeko entrenatzaile berria, Alberto Albistegiren ordez. Valle lizentziaduna da Soñin Hezkuntzako Euskal Erakundearen eta, besteak beste, ibilbide labur baina garrantzitsua du futbol munduan. Atletiko Madrilgo alebin mailako

futbol talde bat zuzendu zuen bi urtez, eta UDAn Futbol Eskolaren ardura hartu zuen gero; hala, ohorezko kadetea ere zuzendu du. Iaz, lehenengo taldean aritu zen, prestatzaile fisiko moduan. Igor Arenatza izango da Valleren laguntzailea, baina, aldi berean, Arenatzak Kirol zuzendaria izaten jarraituko du.



Gorka Valle. | GOIENA

MENDIA

Pol-Pol mendi taldea federatu lizentziak prestatzeko gertu

Begarako Pol-Pol mendi elkartekoak hasi dira hurrengo urtean pentsatzen. Hala, mendiko federatuen lizentziak prestatzen hasiko dira, abenduaren 2tik aurrera. Webgurean (pol-pol.net) bitartez edo bulegora bertara joanda egin ahal izango dira tramitazioak, astelehen, astearte eta asteazkenetan (19:00-20:00).

FUTBOLA

Martitzenean Markel Irizar eta Jagoba Arrasate Bergaran

Ibarreko euskara elkarrekin eta Arrasateko euskalgintzakoek *Euskarak 365 egun* kanpaina ipini dute martxan Euskararen Nazioarteko Egurenaren harira. Eta tokian tokiko ekimenak ere egingo dituzte, tartean Bergaran abenduaren 3rako antolatu duten Kirola Euskaraz ekitaldia (Agorrosin, 19:30).



Kepa Isasmendi, lurrean, Tolosaren kontrako partiduan. | IMANOL SORIANO

FUTBOLA

Bergarak lider dagoen Tolosa hartuko du etxean

JOKIN MUJIKA | ARRASATE
12. jardunaldia jokatu da asteen Erregionaleko Ohorezko Mailan. Gure taldeei dagokienez, Bergarak Tolosa liderra hartuko du Agorrosinen zapatuan, 15:30ean. Bergarako taldeak puntu bakarria lortu du azkeneko lau partiduetan, baina bolada txarri amaiara emateko aurkari zaila izango du.

Aretxabaletan, Gorka Valle UDAko entrenatzaile berriaren estreinaldia izango da aipagarriena. Aurreko asteko partiduen ondoren, asteburu honetako izango du lehen partidua etxean. Aurkaria Vasconia CD izango da, domekan, 16:30ean.

Beste taldeei dagokienez, Aloña Mendik ere 16:30ean jokatu du bere partidua Agorrosinen. Kasu horretan, aurkaria Getaria FT izango da. Horrenbestez, goiko postuetan kokatzeko aukera paregabea izango dute txantxikuarrek.

Azkenik, Antzuola izango da kanpoan jokatu duen talde bakarria. Touring CD taldeari egin beharko diote bisita antzuolarrek. Errenterian jokatu dute, zapatuan, 16:30ean.

ESKUBALOIA

"Gauden mailan ez dago partidu errazik, ezin gara sailkapenez fidatu"

JOKIN MUJIKA | ARRASATE
Lehen Nazional Mailako bigarren postuan dagoen Arrasateko Ford Mugarri taldeak Bigara Pulpo talde zumaieraren aurka neuruko ditu indarrak asteburu honetan. Pablo Gartzia taldeko entrenatzaileak sailkapeneko postuekin ezin direla fidatu esan digu: "Maila honetan ez dago partidu errazik, eta nahiz eta haiek hamabigarren postuan egon, etxetik kanpo partidu bat irabaztetik datoz".

Gartzia Bigara Pulpo taldeari buruz ere hitz egin digu. Ondo ezagutzen dute taldea, kopan haien aurka jokatu baituzten. Oso talde gaztea dutela aipatu du, gazte mailatik igotako jokalaririk asko dituzte, baina oso kalitate ona

dutela azpimarratu digu. Hortaz, kontuz ibili beharko dute galdu nahi ez badute.

Kategorian berriak

Berria da Ford Mugarri Lehen Nazional Mailan. Hala ere, ondo baino hobeto moldatu dira maila berri horretara. Hiru partidu falta dira lehen itzulia amaitzeko, eta balorazioa egiteko momentua hori izango dela aipatu du Gartzia. "Hiru partidu hauen ondoren balorazio txiki bat egingo dugu. Orduan ikusiko dugu bigarren itzulian nora begira jarri behar dugun". Oraingoz, lanean jarraitu behar dute eta, partiduz partidu, poliki-poliki partiduak irabazten jarraitu, orain arteko maila erakutsita.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

EUSKAL LIGA, EMAKUME.
San Inazio-Mondra
Domeka. 12:00. Bilbo.

EUSKAL LIGA, GAZTEAK
Santutxu-Aretxabaleta
Zapatua. 15:30. Bilbo.

OHOREZKO ERREGIONALA
Aretxabaleta-Baskonia
Domeka. 16:30. Ibarra.
Aloña Mendi-Getariako
Domeka. 16:30. Azkoagain.
Bergara-Tolosa
Zapatua. 15:30. Agorrosin.
Touring-Antzuola
Zapatua. 16:30. Errenteria.

ERREG. PREFERENTEA
Orioko-Mondra
Zapatua. 16:30. Mendibelz.

LEHEN ERREGIONALA
Bergara-Aretxabaleta UDA
Domeka. 16:30. Ipintza.
Arizmendi-Armagiñak
Zapatua. 17:30. Ibarra.

EMAKUMEZKOAK, LIGA
Arizmendi-Mutriku
Domeka. 12:00. Ibarra.

ARETO FUTBOLA

EUSKADIKO TXAPELKETA
Lakua Donga-Eskoriatza
Zapatua. 17:30. Gasteiz

LEHENENGO MAILA
Allerru-Aretxabaleta
Gaur. 21:30. Lezo

HIRUGARREN MAILA

Goierri-Mondrate
Zapatua. 16:00. Urretxu

SASKIBALOIA

LEHEN NAZIONAL MAILA
La peña basket-MU
Zapatuan. 18:20. Bilbo.

MAILA AUTONOMIKOA
Natra Aloña Mendi
Atsedena.

GIP. BIGARREN SEN.
Tecnun-Soraluce BKE
Zapatua. 16:00. Donosti
Internacional-MU A
Zapatua. 16:00. Donosti.
Aloña Mendi-BKL
Zapatua. 16:00. Zubikoa kirol.

EMAKUMEZKOAK
Eskoriatza-Tecnun
Gaur. 20:15. Manuel Muñoz.

GAZTE EMAKUMEZKOAK
Soraluce BKE-Ayma Goierri
Zapatua. 19:30. Bergara.
Andraitz-Eskoriatza
Zapatua. 16:00. Legazpi.

ESKUBALOIA

NAZIONAL MAILA
Bigara Pulpo-Ford Mugarri
Zapatua. 16:30. Zumaia.

EMAK. EUSKADIKO TX.
Aloña Mendi-Bera bera
Zapatua. 16:30. Zubikoa kirol.

GIZO. EUSKADIKO TXAP.
Soraluce BKE-Egia Bar
Zapatua. 13:00. Labegarieta kir.

GIP. LEHEN MAILA

Izarraitz Aloña-Irungo gazt.
Zapatua. 18:00. Zubikoa.

GIP. BIGARREN MAILA

Bergara-Ordizia
Zapatua. 16:30. Labegarietako
Arrasate-Saieko
Domeka. 12:00. Iturripe.

PILOTA

BERGARAN:

Bigarren urteko alebinak eta eskuz binakako kadeteak, gaur (19:30)
Bergara-Lapke
Bergara-Zumaia
Bergara-Urnieta

OÑATIN

Lehenengo urteko infantilak, gaur (20:00)
Aloña Mendi-Aretxabaleta

ARRASATEN

Eskuz binakako kadeteak, gaur (20:45).
Arrasate-Aurrea-Saiaz

Bigarren urteko alebinak eta lehenengo urteko alebinak, bihar (17:45)
Arrasate-Tartaloetxe
Arrasate-Murumendi

ARRASATE-EIBAR

Arrasate-Murumendi

ARETXABALETAN

Lehenengo urteko infantilak, bihar (18:30)
Aretxabaleta-Arrasate

VITORIA-GASTEIZ

abenduak
5.6.7.8

www.ardoaraba.com

facebook/ardoaraba
@ardoaraba

Antolatzailea
gasteiz on

Ardo Araba
taste street

Jai enogastromoniko handia

Informazio orokorra

Karpen ordutegiak

Osteguna	5	[18:30-22:00]
Ostirala	6	[12:00-14:30] [18:30-22:00]
Larunbata	7	[12:00-14:30] [18:30-22:00]

Informazioa

Gasteiz On
945 15 02 68 • www.gasteizon.com • www.ardoaraba.com

Vitoria-Gasteizko Turismo bulegoan
945 16 15 98 • www.vitoria-gasteiz.org/turismo

KALEZ KALEKO IBILBIDEA

Zure tiketak hiriko 60 ostalaritza-establezimendutan baino gehiagotan aldatzeko aukera izango duzu.

Osteguna	5	[18:30-24:00]	Larunbata	7	[12:00-24:00]
Ostirala	6	[12:00-24:00]	Igandea	8	[12:00-24:00]

Babesle ofizialak

Bestelako jarduerak

Ardoaraba menua • Goxo-Goxo Azoka • Haurren bokoa
Euskadi Gastronomika • Bisitaldi turistikoak • Zozketak eta sustapenak

Babesle bereziak



Igor Arenatza

UDAko Kirol zuzendaria eta Eskua programako arduraduna

Gure kirolaren bidelaguna

Urte asko daroztat kirol munduan. Futbolean nabarmendu naiz eta profesionaletara ere heldu nintzen. Gaur egun ere buru-belarri dihardut nire herriko klubean: UDAn. Beste proiektu batean ere badihardut, halere: Eskua izenekoan. Kirola euskalduntzeko proiektua da. Zorteko naiz; izan ere, ogibide bihurtu ditut nire pasio bi: kirola eta euskara. Eta pozago sentiarazten nau jakiteak nire pasioak, ogibideak, gauzak aldatzeko balio duela.

Gure jendartea, edozein dela esparrua, euskalduntzeko lanean diharduten talde, erakunde eta norbanakoak dira niretako jarraibide. Eta bidelagun. Goiena Komunikazio Taldea da horietako bat. Goienak ematen dio nire bizitzako proiektuari bultzada eta oihartzuna, eta Goienako hedabideetan ikusi, entzuten eta irakurtzen ditut gure taldeen gorabeheren berri.

Lagundu, kontsumitu eta erabili ditzagun gure hedabideak

Beharrezkoa da Goiena kirolarendako, euskararendako, gure herriendako... denondako! Hala sentitzen dut nik eta hala

adierazten dute Debagoieneko herritarrek ere. Lagundu ditzagun, bada! Kontsumitu eta erabili ditzagun. Egin dezagun diru-ekarpena, ez dezagun galdu ezinbesteko bidelaguna!

GOIENAK BEHAR ZAITU!

GOIENA KLUBEKO BAZKIDE EGITEKO TELEFONOA: 943 25 05 05

goienakluba[”]
Euskara irabazle, denok irabazle!

KULTURA



AZUKRE KOXKORRAK

Egilea: Ruper Ordorika.

Argitaletxea: Elkar.

Gustuko dituen hainbat euskal kantu ezagunen bertsiopioak egin ditu oñatiarrak. Askotariko estilo eta garaietako kantuak dira.



HIZTUNPOLISA

Egilea: Jon Sarasua.

Argitaletxea: Pamiela.

Euskaltasunaren norabideaz idatzitako apunteak batu ditu aretxabaletarrak, azkeneko urteotan egin dituen hausnarketak bilduz.




MORPHINAPOLIS

Egilea: Governors.

Argitaletxea: Baga-Biga.

Taldearen laugarren lanean, *Frenetikodrome*-ren indarra eta *Collage*-ren melodia batzea lortu du Juan Sangre-ren boskoteak.



ALLENDE LOS MARES

Egilea: Yon Suinaga.

Argitaletxea: Hiria.

XV. mendean euskaldunak baleak arrantzatzeraz joaten zireneko garaian kokatutako intrigazko eleberririk historikoa idatzi du bergararrak.



HIL ORDUKO BIZI

Egilea: Arkada Social.

Argitaletxea: Mauka Musikagintza.

Arrasateko taldearen laugarren lana da. Azokan aurkeztuko dute Higain estudioan grabatutako hamaika kantuko diskoa.




BEHIN ETA BERRIZ JARRAITUKO DUGU...

Egilea: Des-Kontrol.

Argitaletxea: Mauka Musikagintza.

Azkenengo lau diskoen bilduma izateaz gainera, *Izarren azpian* eta *Haritzaren sustraiak* kantu berriak, binilo formatuan.




HORI DA UMOREA, MAISU!

Egilea: Maialen Marin eta Aiora Jaka.

Argitaletxea: Elkar.

2012ko Literaturako Nobel saridun Mo Yanen liburuaren euskarazko itzulpena; AEDren 26. Jokin Zaitegi sariketako lana.



ROAD TO MEMPHIS

Egilea: Belceblues.

Argitaletxea: Autoekoizpena.

Memphisko Munduko Blues Txapelketan bergarrek bizitakoak batzen ditu ordubeteko iraupena duen ikus-entzunezkoak.




HEMEN

Egilea: Maite Toledo.

Argitaletxea: Beta.

Leku askotatik idatzitako eta leku askotara eramaten gaituzte orainean idatzitako poesiek. Glamourrekin lotutako irudiekin jantzita.



ZINEGOTZIA

Egilea: Fermin Etxegoien.

Argitaletxea: Erein.

Euskal Herria independente bilakatzen den egunean, zinegotzi eskuindar baten bizipenetan oinarritutako eleberririk bizia.



KONFETI KOLORE

Egilea: Emon.

Argitaletxea: Baga-Biga.

Erritmo latindarrak, runba, reggaea eta baita rocka ere nahasten ditu bergarren diskoak. Jai girorako disko aproposa.




HOMO HOMINI LUPUS

Egilea: Malenkonia.

Argitaletxea: Autoekoizpena.

Hastapenetako laukote formatura itzulita, doinu gordin eta zuzenagoak batu dituzte oñatiarrek euren bigarren lan luzean.



BIHOTZ DOINUAK

Egilea: Juan Karlos Irizar.

Argitaletxea: J. K. Irizar.

Donostiako Poliklinikako langileei eskainitako bilduman, hamabi doinu instrumental barnerakoi eta sentikor batu ditu Irizarrek.



OSPITALEKO ITSAS KABIA

Egilea: Juan Karlos Irizar.

Argitaletxea: J. K. Irizar.

Minbiziagatik edo beste gaixotasun larri batengatik ospitalean egonaldi gogorra egin duten haurtzako bilduma da.

Urteko azokarik oparoena

- ▶ Abenduaren 5etik 8ra bitartean egingo dute aurten Durangoko Azoka
- ▶ Debagoieneko sortzaileen liburu, DVD eta disko ugari izango dira aurten ere

AITZIBER ARANBURUZABALA | ARRASATE

Durangoko Azokaren 48. edizioa egingo du Gerediaga Elkartek abenduaren 5etik 8ra bitartean. Eskozia izango da aurtengo herrialde gonbidatua, hango kultura eta hizkuntza propioa ezagutzeko aukera ekarriaz gurea.

Argizaiola saria, berriz, William A. Douglass antropologo amerikarrak jasoko du abenduaren 6an, (*Szenatokia*n 20:30ean), euskal diasporaren inguruko ikerketa sakonak eta, oro har, euskal kultura bultzatzen egindako lana eskertuz horrela.

Hainbat dira aurtengo edizioak ekarriko dituen berrikuntzak, azokaren izen ofizialaren aldaketa, horien **32. orrialdean, jarraipena.**



AKELARRE

Egilea: Los Galerna.

Argitaletxea: Gaztelupeko Hotsak.

Maskaradunen hirugarrena. Surf doinuez gainera, swing eta western musikak presentzia handiagoa dute saxoaren laguntzarekin.




BAGAUDA

Egilea: Bagauda.

Argitaletxea: Autoekoizpena.

Rock-and-rolla eta stoner musika egiten duen oñatiar gazte taldearen lehen lana. Udan grabatu zuten Musikortan estudioan.



CONSEJOS DE GUERRA...

Egilea: Anxo Fereiro Curras.

Argitaletxea: Intxorta 1937 K.E.

Euskal klero garaitua edo altxamendu militarri atxiki ez zitzaion apaiz taldearen omenezko lana; ahaztuen hormak apurtzeko asmoaz.



RUE MATIGNON

Egilea: Mery May.

Argitaletxea: Autoekoizpena.

Frantziar bizitako istorioak jasotzen ditu Arrasateko bakarlariaren lan berriak, oraingoan lagun taldearekin badator ere.




BARRUKO ARRASTUAK

Egilea: Kepa Aranburu.

Argitaletxea: Irudiz.

Torturatutako izan diren bost oñatiarren testigantzak jasotzen ditu, besteak beste, Oñatiko Euskal Memoria Taldearen lanak.



CONVICTS/INTERPRETE

Egilea: The Convicts/Interprete Desconocido.

Argitaletxea: Autoekoizpena.

Disko partekatu horretan, street-punk eta punk-rock doinuak dira nagusi. Talde bakoitzak seina kantu batu ditu bilduman.



Durangoko azokako guneen mapa. | DURANGOKO AZOKA

Urteko Azokarik oparoena

31. orrialdetik dator.

artean, Durangoko Euskal Liburu eta Diskoen Azoka izateri pasatu da-eta. Izen laburrakoa den arren, antolatzaileen esanetan, zabalagoa du orain esanahia. Era berean, azokaren eremua inoiz baino hedatuagoa izango da: Landakotik San Agustin Kultur Guneraino zabalduko da, Zugaza zinema aretotik pasata.

Debagoienetik ere, uzta oparoa

353 nobedade egongo dira aurten Landako Erakustazokan salgai: 226 liburu, 68 disko, 36 aldizkari, bost bideo eta bestelako 18 material. Aurreko orrian erakutsi moduan, asko dira Debagoienetik eramango dituzten lan berriak; horiez gain, aurrez argitaratutako askotariko produktuak eskuratzeko aukera ere izango dugu, Debagoienean dugun kultura sormen oparoaren erakusle.

Sortzaileak bertatik bertara

Azoka saltoki hutsa ez den erakusle, aurtengoak batez beste 130 ekitaldi eskainiko ditu: aurkezpenak, emanaldiak, tailerrak, hitzaldiak eta mahai-inguruak izango dira. Bailarako sortzaileek ere leku zabala dute egitarauan; hemen, egunez egun, hitzordu nagusiak zehaztuta.

DEBAGOIENENKO SALTOKIAK

INTXORTA 1937 KE

Memoria berreskuratzeko elkarteak.

MAUKA MUSIKAGINTZA

Arrasateko musika ekoizlea.

TALKA-GOSE

Arrasatekoak, Esne Beltza, Oreka TX eta Fermin Muguruzarekin.

BADIHARDUGU

Deba bailarako euskara elkarteak.

J. K. IRIZAR

Oñatiarrak ekoiztutako lanak.

EFARANTZAZU

Elizako liburu eta diskoak.

MU

Askotariko hezkuntza argitalpenak.

Ruper Ordorikak zabalduko du gaur, egubakoitza, 22:30ean, *Plateruena* guneko eskaintza. 12 eurotan daude sarrerak salgai.

Abenduaren 5ean, Ikasleen egunean, berriz, Malenkonia Oñatiko musika taldeak udan kaleratutako *Homo Homini Lupus* diskoarekin irekiko du *Ahotsenea*, 12:00etan. Musikazuzenean standean izango da lana salgai. 16:30ean eta *Areto Nagusian*, berriz, Intxorta 1937 Kultur Elkarteak *Consejos de guerra contra el clero vasco (1936-1944): la iglesia vasca vencida* liburua aurkeztuko du; Julia Monje elkarreko kidea eta Anxo Fereiro Curras idazlea izango dira. Kultura elkartearen standean izango da salgai, besteak beste, aurten kaleratu duten *Bergara 1936, gerra eta errepresioa* dokumentalarekin batera.

Egubakoitzean, abenduaren 6an, berriz, Manex Agirre aramaiorak, beste lagun batzuekin *Hala Bedi. 30 Urte kolpez-kolpe*, liburu-CD-DVDA aurkeztuko du, *Areto Nagusian*, 11:30ean. Gauean, 23:00etan eta *Plateruena*, Arrasateko Arkada Social taldeak, *Hil orduko bizi* diskoa oinarri hartuta, kontzertua egingo du Iheskide taldearekin osatuz emanaldiko kartela.

Azokaren ekuatorean, abenduaren 7an, Jon Ander Ramos Arrasateko historialaria hirugarren gunean izango da (14:30), *Berrizko baserriak* liburuarekin; ondoren, besteak beste, Aramaioko Txipi Ormaetxeak hartuko du lekukoa areto berean, *Eusebio Osa: belaunaldi baten lekukoa* lana aurkezteko. Segidan, *Kabi@* gunean, 16:00etan, *Tabu Hitzaldiak* ekitaldian, Marijo Deogracias Antzuolako kazetaria izango da, besteak beste. Eguneko hitzorduen zerrenda osatzeko, aipatu behar da Emon bergararrek *Konfeti Kolore* lana eramango dutela 14:30ean *Ahotsenea*-ra; eta Mireia Gabilondoren *Amaren eskuak* filma erakutsiko dutela, Zugaza zinema aretoko *Irudienea* gunean, 18:00etan hasita.

Azkeneko eguneko egitaraua gainbegiratu, hona hemen beste hainbat: *Hemen* poesia liburua eramango du Maite Toledok Elkar banatzailearen erakustokitik *Ahotsenea*-ra (13:00); *Saguanbara*-n izango dira Txatxilipurdiok, *Afrikaren bidaia* txotxon-

AZOKAKO GUNEAK

1 AZOKA

Kulturen plaza da; askotariko 238 saltoki izango dira aurten.

2 KABIA@

Kultura digitalaren plaza da; azken hilabeteotako teknologia proiektuak aurkezteko gunea.

3 ARETO NAGUSIA

Hitzaren plaza da; euskal kulturaren zabalkunderako gunea. Batez ere liburuak aurkeztuko dituzte han.

4 SAGUANBARA

Txiki eta handien plaza da; familia osoari eskainitako espazioa. Landako plazako Elkartegian dago.

5 PLATERUENA

Kontzertu handien plaza da eta mokaduren bat ahoratuz, sortzaile eta bisitarien topaleku ere bai.

6 AHOTSENEA

Sortzaileen plaza da eta bi espazio izango ditu: batean, autoreek euren lanari buruz berba egingo dute eta, bestean, zuzenean aurkeztuko dituzte musikariek lanak. Landako erakustazokaren eta Montevideo kalearen artean kokatutako karpak.

7 IRUDIENEA

Ikus-entzunezkoen plaza da. Euskarazko zinemagintzaren erakuslelhoa, aurten Landakotik Zugaza zinema aretora eramango dute; hori horrela, aretoak 100 ikuslerentzako lekua izango du.

8 SZENATOKIA

Arte eszenikoen plaza da, hau da, euskarazko antzerkigintzaren eremua. San Agustin kalean dago kokatuta; antzerki lanekin gozatu eta artistak bertatik bertara ezagutzeko gune paregabea da.

Gaztetxoendako bi hitzordu izango ditu bihar Kantarik

Entsegua egingo dute goizean Oñatin eta arratsaldean, berriz, 'flashmob'-a Bergaran

IURE EIZAGIRRE | ARRASATE

Kantarik bere martxa eta ohiko erritmoari helduko dio berriro asteburu honetan; izan ere, bihar entseguak izango dituzte Oñatiko haurrek.

Ehun haur daude deituta Gaztelekuan egingo den entsegua eta 23 taldetan banatuta egingo dute lan. Etxean ikasi dituzten abestiak eta dantzak erakutsi eta azken aldaketatxoak eginez, hobetzeko unea izango da biharkoa. 10:00etatik 14:00etara izango dira entseguak.

Bihar egindakoa erakusteko unea, berriz, abenduaren 14ean helduko da, orduan egingo dira eta grabazioak Gaztelekuan.

'Flashmob'-a Bergaran

Oñatitiek Bergarara pasako da Kantari bihar, 18:00etatik aurrera *flashmob*-a egingo baitute Udal Pilotalekuan.

Euskararen Egunean hari-ara antolatu da *flashmob* erraldoia eta aurten Kantarin parte hartzen ari diren 120 gaztetxori egin diete dei. Saioan parte hartzen ari ez diren bailarako 8 eta 12 urte artekoek ere har dezakete parte, ikastetxeen bidez jakinarazi zaien moduan. *Flashmob*-ean parte hartzeko 17:30ean egon behar da pilotalekuan.

Hiru abestiren koreografiak egingo dituzte *flashmob*-ean: *Kantari*, *Euskaraz bizi nahi dut* eta *Udarako gau luzeak*. Kantarik *goiena.net* webgunean duen blogean daude dantzak, entseatu ahal izateko. Dena den, parte hartzea da garrantzitsuen eta pausoak guztiz ez jakin arren, *flashmob*-era joateko animatu dituzte gaztetxoak. Koreografiaren ostean, DJ festa izango da Amaia Txintxurretarrekin.



Amaia Txintxurreta, Bergarako gaztetxoekin. | IMANOL SORIANO

Gasteizko Buesa Arenan emanaldia eginez ospatuko dute 'Peter Pan'-en urteurrena

I.E. | BERGARA

Iazko Gabonetan herrian estreinatu zuen Bergarako Musika Eskolak Peter Pan musikala eta Kursaal moduko antzoki handi batean eskaini ostean, Gasteizko Buesa Arena pabilioira eramango dute abenduaren 29an. Bi emanaldi eskainiko dituzte: 16:30ean eta 19:30ean.

Pikupe Produkzioak-en eskutik heldu dira Gasteizera eta bertako Karlos Etxanizek adie-

razi duenez, "ikuskizunerako kantxa desmuntatu eta antzokia muntatuko dugu". 3.000 pertsonendako lekua prestatuko dute eta sarrerak dagoeneko salgai daude, 10 eta 22 euro artean.

Autobusik ez

Donostiako emanaldirako autobusa jarri zuten, baina Gasteizera ez da egongo, besteak beste, pabiloi kanpoan aparkaleku handia dagoelako.



Peter Pan musikalaren emanaldia, Kursaal. | KARMELE ETXEBERRIA

gilo emanaldiarekin (15:00), eta segidan, txotxongilo tailerra egingo dute toki berean. Aipatutakoek gainera, musikarekin lotutako beste bi proposamen ere badira, biak ala biak 15:30ean: *Akelarre* diskoarekin Arrasateko Los Galerena taldea *Ahotsenean* izango da eta *Irudienea*-n erakutsiko dute, berriz, Bergarako Belceblues taldearen *Road to Memphis* dokumentala; sortzaileak ere han izango dira, zinema aretoko pantailan ikusitakoak ikusleekin partekatze gero.

GARAIA JATETXEA



Garaia Berrikuntza Gunea
Goiru kalea 1
ARRASATE
943 71 02 28
647 83 23 86
ostalaritza@grupogureak.com

- Self-service bazkari merkeak.
- Urtebetetzeak.
- Taldeentzako eta ospakizunentzako bazkari eta afariak.
- 160 pertsonarentzako jangela.
- Aparkalekua eta terraza.



Agorrosin ostalaritza

Boni Laskurain 21
BERGARA
Tel.: 943 77 70 30



Eskaintza

- Eguneko menua astelehenetik ostiralera 9 €.
- Asteburuko menua 15 €.
- Bazkariak eta afariak, ostiraletan, larunbatetan eta igandeetan. (Jaiegunetan ere bai).
- Gosariak, ogitartekoak, pintxoak.
- Bazkari eta afariak terrazan emateko aukera.

Plater konbinatuak: ostiral gauetan Ordaindu 1, eraman 2

Lasa jatetxea

Ozaeta jauregia, Zubiaurre 35.
BERGARA
Tel.: 943 76 10 55
www.restaurantelasa.es



Eskaintza

- Jangela: 250 lagunendako.
- Karta.
- Astearte, asteazken eta ostegun gauetan 16:00ak baino lehen eskatuz gero zabalik (6 pertsona min).
- Menu bereziak asteartetik ostiralera (eguardietan).
- Kongresuetarako aretoa eta parking-a.

Gipuzkoako bankete-jatetxerik onenaren saria Mas Gastronomía 2009.

Uxarte jatetxea

Udala auzoa 12 /
ARRASATE
943 79 12 50



Eskaintza

- Eguneko menua
- Ezkontzak
- Bataio eta jaunartzeak
- Logela guztiak bainugelarekin
- Igerileku irekia

Eguazten arratsaldeetan itxita

Wok Sheng Xing Yuan

Mugarrieta industrialdea 10,
C-B pab.
San Andres auzoa
ARRASATE
943 79 90 29
629 41 59 58



Eskaintza

- Itsaski-janak.
- Frijituak.
- Plantxa.
- Sushia.
- Parrilladak.
- Menua, postrea barne.

10 menu hartuta, 1 DOAN.

Xabier Amurizak '4x4 operazioa' nobela aurkeztu zuen Kulturaten

'Joan ziren' nobela ziklo arrakastatsuko laugarren eleberria da

IMANOL GALLEGO | ARRASATE

Xabier Amuriza bertsolari eta idazleak *4x4 operazioa* izeneko eleberria aurkeztu du asteon Kulturaten. Lankuk argitaratutako lana *Joan ziren* zikloko zazpi aleen artean laugarren liburua da eta bertan 60ko hamarkadako gertaeren fikziozko kontaketa egin gura izan du Etxanoko idazleak.

Dinosauroak horizontean, *Orain ezin naiz hil* eta *Olatu bat kuartelen gainetik* dira ziklo berean Amurizak aurretik argitaratu dituen nobelak. Berauetan, pertsonaia nagusia bakarrrik dago munduan, eta oroimenari tiraka hasten da, bizirik jarraitzeko eta bizirik dagoela sentitzeko. Azken nobela honetan, baina, taldeak aurrekoetan baino garrantzi handiago dauka.

Nobela honekin, historia kolektiboaren pasarte baten berrizketa egiten du Amurizak, 60ko hamarkadaren azken urteetako konbultsioa, eta horren guztiaren barruan kokatzen du Gogor izeneko apaiz-mugimendua. Mugimendu haren ekintzarik sonatuen Derioko seminarioko itxialdia izan zen, Bizkaiako 70 apaizek burutu zutena eta polizia berehala inguratu ostean ia hilabete iraun zuena. Amurizaren esanetan, ekintza gatazkatsu hark islatzen du hamarkada hartako "olatuak" nolako aldaketak eragin zituen Euskal Herrian.

Egiazko gertaera haren eta beste batzuen gainean historia harrigarriak sortzen ditu idazleak.



Amurizak aurkezpen berezia egin zuen. | IMANOL GALLEGO

Hala ere, aldaketaz jositako hamarkada haietan bizitakoak apaltasunez gogoratzen ditu Amurizak: "Iraultza baino gehiago, *irauli* hitza aipatuko nuke; egia da aldaketak oso bizkor izan zirela, baina ez zen iraultza bat izan".

Amurizaren ustez, 60ko hamarkadaren hasieran, oso denbora laburrean, aldaketa handia bizi izan zuen Euskal Herriak, bai politikan eta baita gizartean ere eta hori islatu gura izan du. Liburuaren egileak azaldu bezala, ez du kontakizun historikoa egin, literatura egin nahi izan du-eta.

Amurizak argi dauka gai honetaz asko hitz egin dela baina literaturaren bitartez kontakizunari bere bizi esperientziak gehitu nahi izan dizkio.

Aurkezpen berezia

Zutik eta atril soil baten laguntzarekin egin zuen eguazteneko aurkezpena Amurizak eta hitzei garrantzia emateko asmoarekin liburuko hainbat pasarte irakurri zituen. Bertsolariak soilik duten hitz jarioaz baliatuta, urte haietako hainbat gertakari bigarren bizi bat eman zien.



Zarautzen bi abesbatzek egindako emanaldia. | LEIRE VENTAS/UROLA KOSTAKO HITZA

'Arantzazu' poema ikuskizun

Sarrerak kontzertua hasi baino ordu bate lehenago Arantzazun bertan eskuratu ahal izango dira

I.G. | OÑATI

Eguaztenean, azaroak 27, 100 urte bete ziren Inazio Eizmendi Manteola *Basarri* bertsolari ezaguna jaio zela. Basarrik Arantzazu oso gogoko zuen, oporraldia han igarotzen zuen-eta. "Han aurkitzen zuen bakea eta hango haizeak on

handia egiten zion". Hitz horiekin arrazoitu du Zarautz Abesbatzako zuzendari Jaione Eskuderok ekimen hori.

Zarauzko saioaren ostean, Arantzazuko bihar izango da, arratsaldeko seietan. Bigarren emanaldi berezi hori santutegian

bertan egingo dute, eta sarrerak 8 euroren truke eros daitezke. Aurrez eskuratu ez dituztenek, gainera, kontzertua hasi baino ordu bate lehenago Arantzazun bertan eskuratzeko aukera izango dute.

Xabier Ugartek, Oñati Abesbatzako kideak, hainbat xehetasun kontatu ditu: "Duela bi urte Zarautzik guregana etorri ziren partitura eske eta bandarentzako moldaketa egin nahi zutela aipatu ziguten". Aurten, Oñatiko abesbatzak zarautzarren gonbita jaso du: "Parte hartzea onartu genuen eta oso ikuskizun polita egitea lortu dugula uste dut".

Ikuskizun berritua

Orain, ekitaldi berezi honentzat, eta estreinakoz, koreografia gehitu diote lanari. Horrela, Zarauzko Abesbatzak, Zarauzko musika bandak, Gabota dantza eskolak eta Oñati abesbatzak *Arantzazu* poema sinfonikoaren ikuskizuna aurkeztuko dute.

Bi herrien arteko abesbatzen elkarlan oparo honek lehen entzungarri zena, publikoaren gozamenerako, orain ikuskizun bihurtu du.

Bihar egingo da 'Ti Tau!' film laburren umorezko rallya

I.G. | ESKORIATZA

Aurtengoa laugarren edizioa izango da, eta bigarren urtez umoreak izan beharko du aurkezten diren lanen funtsa. Eskoriatzako Eingeinke ekimenak antolatutako *Ti Tau!* film laburren rallya euskal zinemagile gazteen artean gorritz markatuta dagoen data da.

Lehiaketa bat den arren, Mirian Isasmendi antolatzaileak aipatu moduan, "ekimenaren helburua umore onean ondo pasatzea da", baina, horrez gain, gazteen sormena ere landu nahi da. Gaur izango da *www.eingeike.org* webgunean izena emateko azken eguna.

Bihar, 09:30ean, lehiakideei ongiatorria egingo zaie kultura

etxean, eta lanaren gaia eman go zaie. 19:00etan lanak entregatuko dituzte, eta parte-hartzaileek luntzaz gozatzen duten bitartean, epaimahaiak erabakia hartuko du. 21:30ean lanak proiektatuko dira, eta ondoren, sari banaketa egingo da.

'Kameratoia' Durango

Topaguneak *Kameratoia*, Euskal Herriko ikus-entzunezkoen rallya, antolatu du gazte euskaldunen sormena bultzatzeko helburuarekin. Aurtengo edizioan, Durangoko Azokako Irudienea gunea izango dute agertoki nagusi, eta lehiakideek 48 ordu izango dituzte, hiru eta zortzi minutu bitarteko film laburra egiteko.



Aurreko urtean parte hartu zuen taldea. | IMANOL SORIANO

Gaur gauean Napoka Iriaren doinuek hartuko dute Zabalotegi

I.G. | BERGARA

Napoka Iria taldeak *Arnasten ikasteko berriz* disko berria kaleratu du, eta egunotan Euskal Herriko txoko ezberdinetan berau aurkezten ari da. Bira horren barruan, gaur 22:00etan Zabalotegi aretoan izango dira. Eibarko taldeaz gozatu nahi dutenek zortzi euro ordaindu beharko dituzte.

Betiko doinuek

Taldeak aurreko diskoko oinarri bera dauka, haiek dira, dudarik gabe, baina haien izaeraren zantzurik galdu gabe, pauso bat harago joan dira. Ahotsak eta melodiak konple-

xuagoak dira. Interbalo txikiagotan dabilta melodiak; moldaketak atmosferikokoak dira eta, oro har, bikotea indie-folk soinuarentzat gerturatsen hasia dela nabari da.

Kontzeptu aldetik ere eboluzioa dago. Diskoa zortzi kantuk osatzen dute, eta 30 minutu ingurukoa da; motza, baina bortitza da.

Azken lan honetan, Narbaza eta Muxika jatorrizko taldekideen gitarrez gain, instrumentu gehiago erabili dituzte. Felix Buff, Ibai Gogortza eta Iban Urizar elgoibartarra izan dira, besteak beste, joste lan horretako arduradunak.



Eibarko bikoteak *Arnasten ikasteko berriz* diskoa aurkeztuko du. | GOIENA

ASTEAGOIENAN



Bergara-Tolosa partidua ikusgai

Bergarak asteburu honetan lider dagoen Tolosa hartuko du Moja-egin. Partidu horrek ematen duena jasotzen izango gara eta irudi onenak ikusi ahal izango dituzue *Harmailatik* kirol saioan astelehenean. Protagonisten hitzak ere jasoko ditugu.

'Harmailatik'
Astelehena, 21:25



Debagoieneko dendari eta ekoizleak

Debagoieneko dendari eta ekoizleei egindako erreportajea erakutsiko dizuegu Jon Berezibarrek aurkeztutako saioan. Oñatiko Lizarralde Kirolak eta Aretxabaletako Belar Meta dendetan izan gara, baita bailarako zenbait ekoizlerekin ere.

'AsteOn'
Egubakoitza, 21:34

GOIENA TELEBISTA

EGUBAKOITZA, 29	ZAPATUA, 30	DOMEKA, 1	ASTELEHENA, 2	MARTITZENA, 3	EGUAZTENA, 4	EGUENA, 5
12:00 Planik bai?	10:00 Bideo klipak	10:00 Magazinea	12:00 Magazinea	12:00 Magazinea	12:00 Magazinea	17:38 Antzerkia
12:20 Magazinea	10:30 Ur eta lur	11:00 Zorion Agurrak	13:00 Erreportajea	12:45 Harmailatik	12:45 Onein	18:53 Zorion Agurrak
13:05 Kantari	11:05 Magazinea	11:05 Ekogune	13:15 AsteON	13:25 Atik Zra	13:08 Kantari	19:00 Berriak
13:30 Bideo klipak	12:05 Planik bai?	11:35 Onein	13:45 Ekogune	14:20 Berbetan	13:38 AsteON	19:20 Eguraldia
14:00 Aizank!	12:25 Berriak	12:08 Berriak	14:14 Onein	14:36 Zorion Agurrak	14:03 Ekogune	19:23 Bideo klipak
14:25 Planik bai?	12:40 Kantari	12:23 Planik bai?	14:41 Zorion Agurrak	14:45 Berriak	14:33 Erreportajea	19:40 Asmatu baietz!
14:45 Berriak	13:40 Onein	12:43 Magazinea	14:45 Berriak	15:10 Eguraldia	14:45 Berriak	20:10 Magazinea
15:10 Eguraldia	14:11 Bideo klipak	13:43 Ikusmira	15:15 Eguraldia	15:13 Harmailatik	15:10 Eguraldia	20:55 Berriak
15:13 Atik Zra	14:41 Aizank!	14:00 Magazinea	15:18 Zorion Agurrak	15:53 Onein	15:13 Atik Zra	21:20 Eguraldia
16:08 Planik bai?	15:11 Magazinea	14:50 Zorion Agurrak	15:23 Ur eta lur	16:24 Zorion Agurrak	16:08 Ikusmira	21:22 Ekogune
16:32 Berriak	16:11 Zorion Agurrak	15:00 Zorion Agurrak	15:58 Onein	16:30 Berriak	16:25 Zorion Agurrak	21:52 Magazinea
16:57 Eguraldia	16:16 Onein	15:05 AsteON	16:25 Zorion Agurrak	16:50 Eguraldia	16:30 Berriak	22:37 Berriak
17:00 Ekogune	16:49 Planik bai?	15:35 Antzerkia	16:30 Berriak	16:53 Zorion Agurrak	16:55 Eguraldia	23:22 Eguraldia
17:30 Bideo klipak	17:09 AsteON	16:50 Kantari	17:00 Eguraldia	16:58 Klaketa	16:58 Harmailatik	23:52 Gurean gaur
17:41 Aniztasunean bizi	17:39 Bertso Txapelketa Nagusia	17:50 Bertso Txapelketa Nagusia	17:03 Zorion Agurrak	17:38 Harmailatik		
17:56 Klaketa	18:24 Ekogune	18:35 Magazinea	17:08 Bideo klipak	18:23 Klaketa		
18:36 Planik bai?	18:54 Zorion Agurrak	19:35 Bideo klipak	17:44 Klaketa	19:03 Berriak		
18:56 Zorion Agurrak	18:59 Kantari	20:05 Magazinea	18:24 Ekogune	19:28 Eguraldia		
19:01 Berriak	19:59 Berriak	21:05 Zorion Agurrak	18:54 Zorion Agurrak	19:31 Zorion Agurrak		
19:31 Eguraldia	20:14 Magazinea	21:10 AsteON	19:00 Berriak	19:36 Kantari		
19:36 Klaketa	21:14 Planik bai?	21:40 Magazinea	19:25 Eguraldia	20:06 Zorion Agurrak		
20:16 Planik bai?	21:34 AsteON	22:04 Planik bai?	19:28 Ekogune	20:11 Magazinea		
20:41 Zorion Agurrak	22:04 Planik bai?	22:24 Ekogune	20:03 Zorion Agurrak	20:56 Berriak		
20:46 Berriak	22:24 Ekogune	22:54 Magazinea	20:10 Magazinea	21:21 Eguraldia		
21:11 Eguraldia	22:54 Magazinea	23:54 Antzerkia	20:55 Berriak	21:24 Bertso Txapelketa Nagusia		
21:14 Planik bai?	00:25 Ikusmira	23:25 Magazinea	21:20 Eguraldia	22:09 Berriak		
21:34 AsteON			21:25 Harmailatik	22:34 Eguraldia		
22:04 Bertso Txapelketa Nagusia			22:10 Berriak	22:37 Magazinea		
22:49 Planik bai?			22:35 Eguraldia	23:22 Gurean gaur		
23:09 Berriak			22:38 Magazinea			
23:34 Eguraldia			23:23 Gurean gaur			
23:37 AsteON						

ARRASATE IRRATIA

Asteko gainbegiratu, zapatu eta domekan

Astean zehar izan ditugun elkarrizketak entzun ahal izango dituzue asteburuan 10:00etan. Besteak beste, Kurtzetxikiko auzolanari buruz hitz egingo digute Josu Pereda Ingurumen zinegotziak eta Onintze Guridi Bagarako kideak, eta Euskararen Eguna ere izango dugu berbagai.

Who the Beach-en kontzerturako sarrerak zozketan

Kooltur Ostegunak egitasmoaren barruan, datorren egunean Who the Beach talde japoniarra izango da Arrasateko gaztetxean kontzertua ematen. Bertara joateko sarrerak lortu nahi baldin badituzue, deitu 943 25 05 05 telefonora edo bestela idatzi irratia@goiena.com helbidera. Zorte on!

EGUENA, 5

'Azoka TV'-ren emisioa

Abenduaren 5ean, Durangoko Liburu eta Disko Azokaren 48. edizioak atek zabalduko ditu. Horrek iraun bitartean, Goiena telebistak *Azoka TV*-ren emisioari ekingo dio. Azokan gerta-tzen dena etxetik ikusteko aukera eskainiko dizue.




GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE			
Egubakoitza, 29	ESPAÑOL MORALES	Araba Etorb., 14	943 79 18 65
Zapatua, 30	RUIZ	Nafarroa Etorbidea 1	943 79 14 09
Domeka, 1	ETXEBERRIA	Zarugalde kalea 38	943 77 16 30
Astelehena, 2	ALBERTO AZKOAGA	Ferrerias kalea 1	943 79 15 15
Martitzena, 3	M.FCA. AZKOAGA	Iturriotz 17	943 79 79 99
Eguaztena, 4	FERNANDEZ	Maisu Aranbarri kalea 1	943 79 22 26
Eguena, 5	IRIZAR	Erguin 11	943 79 12 39
BERGARA			
Egubakoitza, 29	GUALLAR	San Antonio, 5	943 76 11 05
Zapatua, 30	ESTELLA	Matxiategi 5	943 76 19 63
Domeka, 1	ESTELLA	Matxiategi 5	943 76 19 63
Astelehena, 2	MOZOS	Iparragirre 2	943 76 12 15
Martitzena, 3	URRUTIKOETXEA	Orixondo plaza 4	943 76 11 74
Eguaztena, 4	ZABALA	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Eguena, 5	GUALLAR	San Antonio, 5	943 76 11 05
OÑATI			
Egubakoitza, 29	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Zapatua, 30	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Domeka, 1	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Astelehena, 2	JULDAIN	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Martitzena, 3	JULDAIN	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Eguaztena, 4	ANDUAGA	San Lorentzo 3	943 78 21 16
Eguena, 5	ANDUAGA	San Lorentzo 3	943 78 21 16

Farmazien eskuko telefonoetarako 2013 egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 25600 zenbakira. Gehienezko kostua 1,9 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, Altitia TICek kudeatuta (www.altitia.es).

EGURALDIA ASTEBURUAN


DEBAGOIENA



ZAPATUA, 30
Negu giroa bueltatuko da. Fronte hotz batek euria ekarriko du, bereziki goiz partean. Arratsaldean altxatzen hasiko da.

DOMEKA, 1
Temperatura jaitsi egingo da eta horrekin batera elur-mailak ere behera egingo du. Ez da espero euririk egitea.

EUSKAL HERRIA



Zapatuan euria egingo du, bereziki ipar partean. Domekan euririk ez, baina temperatura jaitsiko da.

GAZTE INFORMAZIOA

BEKAK

Unibertsitateko eta goi mailako ikasketak egiteko bekak (Eusko Jaurlaritza 2013/2014 ikasturtea). Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Baldintzak: Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriaren batean erroldatuta egotea, 2012ko abenduaren 31n, matrikula egitea eta 2013-2014 ikasturtean 1. artikuluan jasotako ikasketaren bat ikastea, eskatzailea atzerriar bada, ikasleek ez izatea bekarrekin egin nahi dituzten ikasketen maila bereko edo handiagoko titulurik, ez jasotzea unibertsitateko eta goi-mailako ikasketak egiteko bekarrekin bateraezina den bekarik edo laguntzarik. abenduak 31.

Nobel Truk ekimena. AED elkarteak laguntza behar du

urtero deitzen duen Jokin Zaitegi bekari aurre egiteko. Urtero, Literatur Nobel Saria euskaratzeko eta publikatzeko deialdia egiten du. 50 euroko ekarpenak behar ditu elkarteak bekarari aurre egiteko, eta trukean aurtengo nobel saridun Mo Yan-en *Hori da umorea, maisu!* ipuin bilduma jasoko duzu. Azken eguna izango da: abenduak 20.

LANA

Irakasle bisitari plazak Estatu Batuetako eta Kanadako ikastetxeetan. Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa. Baldintzak: Ingeleseko maila altua, titulazioak: II. gehigarria begiratu. Edukia: Lehen eta Bigarren Hezkuntzako 315 irakasle bisitari plaza Estatu Batuetan eta Kanadan (2014-2015 ikasturtean). Epea: abenduak 4.

INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO:
Arrasateko Gazte Bulegoa: Biteri etorbidea 3 | 943 25 20 65 | gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net
Oñatiko Gazteendako Informazio Gunea: Foruen plaza 4 | 943 71 82 57 | gazteinformazioa@oinati.net





Meltxor eta Ana Mari

Meltxorrek eta Ana Mari duela 40 urte ezkondu zirela ospatuko dute abenduaren 1an. "Zorionak, bikote, familia guztiaren partetik. Horrela jarraitu, zorionsu!".



Aurora eta Segundo

Aurora Ugartek eta Segundo Ugartek azaroaren 27an urrezko ezteiak bete dituzte. Zapatuan ospatuko dute familia guztiarekin batera. "Zorionak eta ondo pasatu!".



Ana Maria eta Juan Antonio

Azaroaren 29an Ana Maria Laskurain osintxuarrak eta Juan Antonio Iturbe arrasatearrak urrezko ezteiak zertuko dituzte. "Zorionak eta musu handi bat, etxekoen partetik!".

OROIGARRIA



E. Tomas Sanchez Fernandez

Kontxi Marcoren alarguna



2013ko azaroaren 26an hil zen, 91 urte zituela.

Seme-alabak: Tomas, Jabier eta Ana Zeziaga, Joxerra eta Rosa Larrinaga, Nati eta Jokin Urria; bilobak: Ander, Ainize, Nerea, Ane, Oxel eta Igor; ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusu-lehengusinak eta gainerako senideak.

Izan zarenagatik eta erakutsi diguzunagatik ez zaitugu inoiz ahaztuko.

Arrasaten, 2013ko azaroaren 29an.

OROIGARRIA

Javier Kortabarria Arkauz

Auzo Lagun Kooperatiba Elkarteak langilea



Nahiz eta gure artetik joan, beti gogoan izango zaitugu.



Auzo Lagun Koop. E.
Arrasaten, 2013ko azaroaren 29an.

ESKER ONA

Dorotea Madinazkoitia Urzelai

Bitoriano Ugarteren alarguna



Oñatin hil zen 2013ko azaroaren 22an, 101 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko sendikoen izenean.

Oñatin, 2013ko azaroaren 29an.

ESKER ONA

Migel Aranzabal Unzetabarrenetxea



2013ko azaroaren 21ean hil zen, 91 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko sendikoen izenean.

Elgetan, 2013ko azaroaren 29an.

HILDAKOAK

Prudentzia Iregi Zubizarreta. Arrasaten, azaroaren 20an. 86 urte.

Elena Zubieta Huarte. Arrasaten, azaroaren 20an. 83 urte.

Migel Aranzabal Unzetabarrenetxea. Elgetan, azaroaren 21ean. 91 urte.

Dorotea Madinazkoitia Urzelai. Oñatin, azaroaren 22an. 101 urte.

Felisa Corral Alberdi. Arrasaten, azaroaren 23an. 83 urte.

Eugenio Aguayo Fernandez. Arrasaten, azaroaren 25ean. 73 urte.

Tomas Sanchez Fernandez. Arrasaten, azaroaren 26an. 91 urte.

Cesar Cebrian Albistegi. Bergaran, azaroaren 26an. 64 urte.

URTEURRENA

Javier Elorza Biain



Oñatin hil zen 2012ko azaroaren 27an, 67 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza zapatuan izango da, azaroaren 30ean, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko, sendikoen izenean.
Oñatin, 2013ko azaroaren 29an.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05

Egubakoitzean nahiz astelehenean argitaratzeko.

Eskelaren prezioa: 130 euro.

Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 175 euro.

Goiena: irakurriena Debagoienean.

ASTE BARRUAN, BAITA ERE:

ARRASATE Goiena: Oñalora Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.

BERGARA Jardun elkarte: Errotalde jauregia (kultura etxean). 943 76 08 19.

OÑATI Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.

ARETXABALETA Goiena: Basabe poligonoa E05. 943 25 05 05.

ARAMAIO Kintelena janari-denda: Nardeaga 11. 945 44 50 22.

ELGETA Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98.

ANTZUOLA Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

OROILORE

Maitasunez bizi,
maitasunez agurtu

*Hain une delikatu batek
eskatzen duen errespetu,
arreta eta ardua handienarekin,
nire asmoa da familiari ahalik eta
traturik beroena eta hurbilekoena ematea*

*Heriotza-asegurua baduzu:
Ez onartu besterik gabe
zure aseguru-konpainiak
esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu:*

*NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua
AUKERA DEZAKEZULA BETI.*



maribi 617 44 21 55
BERGARA

OÑATI 'Arantzazu' poema sinfonikoa'

Oñati Abesbatzak eta Zarauzko Abesbatzak *Arantzazu poema sinfonikoa* abestuko dute Arantzazuko santutegian, *Basarri* bertsolaria jaio zela urteurrena ospatzeko. Bi abesbatzekin batera Zarauzko bandak eta Gabota dantza eskolako kideek ere parte hartuko dute ikuskizunean. Bihar, zapatua, Arantzazun, 18:00etan..



LEIRE VENTAS_UROLAKOSTAKOITZA



WWW.KATEDRALDEA.NET

BERGARA Napoka Iria bikotearen kontzertua

Eibarko bikote akustikoak *Arnasten ikasteko berriz* diskoa aurkeztuko du Bergaran. Aspaldian bogan dagoen bikotea da, besteak beste, ETBko *Tumatxak* saioan egin izan dituen bertsiotz ezagunengatik.

Gaur, egubakoitza, Zabalotegin, 22:00etan.

MUSIKA**ARRASATE 'La taberna del puerto'**

Izaskun Murgia Lirika Elkarrekin azken bi emanaldiak egingo ditu aste bukaeran.

Gaur, egubakoitza, eta bihar, zapatua, Amaia antzokian, 20:00etan eta 19:30ean.

BERGARA DJ jaialdia

Amaia Txintxurretak DJ jaialdia egingo du gaztetxoendako. Bihar, zapatua, udal pilotalekuan, 18:30ean.

BERGARA Skasti eta Emon taldeak

Mokolo Egunaren baitan kontzertua egingo dute bi taldeek. Bergarako Emon taldeak *Konfeti kolore* diskoa aurkeztu du.

Bihar, zapatua, Seminarioko karpan, 23:00etan.

OÑATI Mikel Laboaren omenaldi-kontzertua

Arrano ixteko arriskuan! Ez diegu utziko! Denon indarrez lortuko dugu! lelopean kontzertu-omenaldia egingo dute domekan, Arrano tabernan, 19:00etan. Herri-tar guztiei kontzertura joateko dei egin diete.

Etzi, domeka, Arrano tabernan, 19:00etan.

ANTZERKIA**ARAMAIO 'Atsoak dantzan' antzezlana**

Pikor antzerki taldeak kale antzerkia egingo du. Zaharren egoitzatik ihes egin duten adineko bi emakume dira protagonistak. Zaintzaileak atzetik dituzte, baina eurek ez dute egoitzara itzuli gura. Zoriontsuak diren eta amets bezala dauden pertsona nagusiendako omenaldia da.

Gaur, egubakoitza, kultur etxean, 22:30ean.

OÑATI 'Olentzeroren sekretua' ikuskizuna

Laster hasiko du Olentzerok opariz beteko bidaia. Baina nola daki Olentzerok opari bakoitza noren-dako den? Nola egiten ditu horrenbeste jostailu Olentzerok? Galdera horiek guztiak erantzungo dituzte *Olentzeroren sekretua* antzezlanean. Olentzerok hainbat pertsonaia mitologikoren laguntza izango du. Umeendako ikuskizuna da, euskaraz, eta sarrera 3 euro ordaindu beharko da. Etzi, domeka, Oñatiko gaztelekuan, 12:30ean.

NON-ZER

Emaguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen. Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

AZAROA 29
ABENDUA 5**DANTZA****BERGARA Herrixa Dantzan**

Patxi Monterok gidatutako dantzaldi irekia, Euskal Herriko eta, oro har, Europa mendebaldeko musika eta dantza tradizionala oinarri hartuta.

Etzi, domeka, Zabalotegi aretoan, 19:00etan.

BERTSOLARITZA**ESKORIATZA Euskararen Eguna: bertso kalejira**

Bertso kalejira egingo dute Arkaitz Estiballes eta Oihana Bartra bertsolariekin.

Bihar, zapatua, kalerik kale, 13:00etan.

JAIK**OÑATI San Andres jaiak Uribarrin**

Egubakoitzetik domekara sanandresak ospatuko dituzte. Egubakoitzean mus txapelketa egingo dute 22:00etan; zapatuan umeendako jolasak eta merienda 16:00etan eta auzo afaria 21:00etan; eta

domekan, meza auzoko ermitan, 12:00etan.

Gaurtik domekara, Uribarri auzoan.

OSPAKIZUNAK**BERGARA Mokolo Eguna**

Mokolo Eguna ospatuko dute; besteak beste: mokolo azoka (10:30-14:00, Munibe plazan; Txapa irratien zuzeneko saioa (12:00-13:00, Munibe plazan); mokolo bazkaria (14:30, Seminarioko karpan); eta kontzertua (23:00, Seminarioko karpan). Bestalde, Mokolo Eguna eta III. jardunaldi gastronomikoak aprobetxatuz erreileno eta tostoien dastatzea egingo dute (18:00-21:00, Munibe plazan).

Bihar, zapatua, 10:30etik aurrera.

LITERATURA**ARRASATE Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna: errezitaldia**

Emakumeen begiradak plazara poesia errezitaldi musikala egingo dute Arrasateko gaztetxean.

Miren Agur Meabek, Castillo Suarezek eta Arantza Santestebanek egingo dute, Arantza Vicedoren musikaz lagunduta.

Gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:00etan.

ERAKUSKETAK**ARRASATE Arrasateko arte tailerreko ikasleen lanak**

Arrasateko arte tailerreko ikasleen lanak ikusgai daude. Abenduaren 1era arte, Harresin, arratsaldean.

BERGARA Benito Canteroren argazkiak

Bergarako argazkilariak *Pasarteak* delako erakusketa ipini du. "Sentsazioei zabalduko atea", egilearen hitzetan.

Abenduaren 1era arte, Aroztegi aretoan.

TOPAKETA**BERGARA Autokarabanen topaketa**

Labegarrietako autokarabana gunearen inaugurazioa aprobetxatuz, topaketa egingo dute.

Bihar, zapatua, autokarabana gunean, 12:00etan.



IMANOL SORIANO

OÑATI 'Kantari' ikuskizuneko entseguak

Kantari karaoke ikuskizuna Oñatira helduko da aste bukaeran, Aretxabaleta eta Bergaran egon ostean. Zapatuan koreografia eta kantuen entseguak egingo dituzte parte-hartzaileek Amaia Txintxurretarekin. Saioen grabazioak, aldiz, abenduaren 14an egingo dituzte Oñatiko gaztelekuan.

Bihar, zapatua, gaztelekuan, 10:00etan.

BESTELAKOAK**ESKORIATZA Euskararen Eguna: herri bazkaria**

Herri bazkaria egingo dute Egokiena elkartearen; bazkalostean, saioa eskainiko dute kalejiran ibilitako bertsolarietara.

Bihar, zapatua, Egokiena elkartearen, 14:30ean.

ELGETA Euskararen Eguna 2013

Askotariko ekintzak egingo dituzte Herri Eskolan: 16:00etan euskarazko liburuen erakusketa; 16:30ean jolasak; 17:30ean txokolate beroa Maala guraso elkartearen eskutik; eta 18:00etan, Domingo Iturbe plazan, *Euskara mundura* ekintza irekia.

Abenduak 3, martitzena, Eskolan eta herrian, 09:00etatik aurrera.

IKUS-ENTZUNEZKOAK**OÑATI 'Lehoinabarraren aztarnak' dokumentala**

Andoni Ormazabal zumarragarrak eskainiko du mendi hamabostaldian. Haren anaia Xabierren gaineko dokumentala da. Cho Oyu mendian hil zen Xabier 2004an.

Gaur, egubakoitza, kultura etxean, 19:30ean.

ELGETA 'Aulki hutsak', ikus-entzunezkoaren aurkezpena

Heriotzari buruzko dokumentala. Profesionalen eta norbait galdu duten senideen elkarrizketak biltzen ditu.

Abenduak 4, Espaloian, 19:00etan.

ARRASATE Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna: dokumentala

Alardearen seme-alabak dokumentalaren proiektzioa. Ostean solasaldia, Jaizkibel Konpainiako kide batekin eta zuzendariarekin.

Abenduak 4, Kulturaten, 18:30ean.

LEHIAKETAK**ESKORIATZA 'Ti Tau!' film laburren lehiaketa**

Eingeinkek antolatuta, laugarren lehiaketa egingo dute. Egun osoa izango dute lanak grabatzeko eta editatzeko. 21:30ean lanak proiektatuko dira.

Bihar, zapatua, herritik, 09:30ean hasita.



JOSU GARAI

OÑATI 'Mendia eta natura' lehiaketako erretratuak ikusgai

Aloña Mendiko mendi sailak antolatutako argazki lehiaketan parte hartu duten argazkiak ikusgai ipini dituzte kultura etxeko erakusketa gelan. Besteak beste, hiru mailatan saritu dituzten 12 erretratuak daude.

Abenduaren 1era arte, kultura etxean, 18:00etatik 20:00etara arte.

OÑATI**KULTURA ETXEA****Los juegos del hambre: en llamas**

Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

Zarafa (euskaraz)

Zapatua eta domeka: 17:00.

ARETXABALETA**ARKUPE****El mayordomo**

Egubakoitza eta zapatua: 17:00.

Epic

Zapatua: 17:00.

EIBAR**COLISEO****Una cuestion de tiempo**

Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

El quinto poder

Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

ANTZOKIA**Doraemon y Nobita Holmes**

Zapatua eta domeka: 17:00.

Septimo

Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

GASTEIZ**BOULEVARD****Frozen**

Egubakoitza eta zapatua: 23:15.
Zapatua eta domeka: 15:30, 16:30.

Egubakoitzetik domekara: 17:45, 18:45, 20:00, 21:00.

Astelehenetik eguenera: 17:30, 18:00, 20:15.

Frozen 3D

Zapatua eta domeka: 16:00.
Egubakoitzetik domekara: 18:15, 20:30, 22:45.
Astelehenetik: 18:15, 20:30.

El consejero

Zapatua eta domeka: 15:30.
Egubakoitzetik domekara: 17:50, 20:10, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 18:20, 20:50.

Los juegos del hambre: en llamas

Egubakoitza eta zapatua: 23:00, 00:00.
Zapatua eta domeka: 16:00.

Egubakoitzetik domekara: 19:00, 20:00, 22:00.
Astelehenetik eguenera: 18:00, 19:00, 20:00.

Plan en Las Vegas

Egubakoitza eta zapatua: 00:45.

Egubakoitzetik domekara: 18:20, 20:25, 22:35.
Zapatua: 20:25, 22:35.
Astelehenetik eguenera: 18:20, 20:30.

Blue Jasmine

Egubakoitza eta zapatua: 00:00.

Egubakoitzetik domekara: 17:50, 19:50, 22:00.
Zapatua: 19:50, 22:00.
Astelehenetik eguenera: 18:40, 20:40.

Somos los Miller

Egubakoitza eta zapatua: 00:40.

Egubakoitzetik domekara: 22:30.
Astelehenetik eguenera: 20:20.

El juego de Ender

Egubakoitza: 17:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

¿Quién mato a Bambie?

Zapatua eta domeka: 15:45.
Astelehenetik eguenera: 21:00.

Thor: el mundo oscuro

Egubakoitzetik domekara: 18:00, 20:15.

Septimo

Egubakoitza eta zapatua: 00:30.

Egubakoitzetik domekara: 22:30.
Astelehenetik eguenera: 20:15.

Turbo

Zapatua eta domeka: 16:00, 18:00.

Zipi y Zape
Zapatua: 15:50, 17:50.
Domeka: 15:50.

Doraemon y Nobita Holmes

Zapatua: 16:15, 18:20.
Domeka: 16:15.

GORBEIA**Frozen**

Zapatua eta domeka: 16:00.
Egubakoitzetik domekara: 18:15, 20:30, 22:45.
Astelehenetik eguenera: 17:45, 20:00.

Frozen 3D

Zapatua eta domeka: 15:30.
Astelehenetik eguenera: 18:30.

El consejero

Egubakoitza: 17:50, 20:15, 22:40.
Zapatua: 00:30.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehenetik eguenera: 18:00, 20:20.

Los juegos del hambre: en llamas

Zapatua eta domeka: 15:30, 17:15, 20:15.
Zapatua: 23:10.
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:15.

Malavita

Egubakoitzetik domekara: 22:30.
Astelehenetik eguenera: 20:30.

Thor: el mundo oscuro

Egubakoitzetik domekara: 18:15.

Septimo

Zapatua: 00:15.
Egubakoitzetik domekara: 22:20.
Astelehenetik eguenera: 17:40, 21:00.

El juego de Ender

Zapatua: 00:40.

Turbo

Egubakoitzetik domekara: 18:10.

Zipi y Zape

Zapatua eta domeka: 16:15.

GORBEIA**Frozen**

Egubakoitza: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30.
Zapatua eta domeka: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguaztenera: 18:00, 20:00.

Blue Jasmine

Egubakoitzetik domekara: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguaztenera: 17:00, 18:50, 20:40.

Zipi y Zape

Zapatua eta domeka: 12:00.

Azti txikia (euskaraz)

Zapatua eta domeka: 12:00.

Un cerdo en Gaza

Egubakoitzetik domekara: 18:30.
Astelehenetik eguaztenera: 18:45.

Alaba zintzoa (euskaraz)

Egubakoitzetik domekara: 16:45, 20:15, 22:30.
Astelehenetik eguaztenera: 17:00, 20:30.

Turbo

Zapatua eta domeka: 12:00.

Los juegos del hambre: en llamas

Egubakoitzetik domekara: 17:00, 19:45, 22:30.
Astelehenetik eguaztenera: 17:00, 19:45.

Plan en Las Vegas

Egubakoitza: 17:00, 22:35.
Zapatua eta domeka: 17:00, 20:35, 22:35.
Astelehenetik eguaztenera: 17:00, 20:35.

Septimo

Zapatutik eguaztenera: 19:00.

De tal padre tal hijo

Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.
Astelehenetik eguaztenera: 17:30, 20:00.

El consejero

Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.
Astelehenetik eguaztenera: 17:30, 20:00.

ESKORIATZA Euskararen Eguna: 'Mihiluze' erraldoia

Mihiluze erraldoia lehiaketa egingo dute kontzejupean. Ordu erdi lehenagora arte eman dezakete izena parte-hartzaileek. Herritar guztiendako lehiaketa da. Bihar, zapatua, kontzejupean, 18:00etan.

DEIA**ARRASATE Hileko azken ostirala**

Euskal preso eta iheslarien esku-bideen aldeko kontzentrazioa egingo da Herriko Plazan. *Gai-xorik dauden presoak etxera! Sakabanaketarekin amaitu!* leloarekin.

Gaur, egubakoitza, Herriko plazan, 19:30ean.

DEBAGOIENA Janari bilketa erraldoia

Gipuzkoako Elikagai Bankuak elikagaien bilketa erraldoia egingo du Aretxabaleta, Bergara, Arrasate eta Oñatiko hainbat dendatan.

Gaur, egubakoitza, eta, bihar, zapatua, goiz eta arratsaldean.

OÑATI Tailerra: autodefentsa feminista

Autodefentsa feminista delako tailerra egingo dute Oñatiko Sare Feministaren eskutik.

Bihar, zapatua, Zubikoa kiroldegian, 20:00etan.

ELGETA Odol-ateratzeak

Sendagile taldea 18:00etatik 20:00etara egongo da udaletxean. Odol-emaile izan gura dutenei dei berezia egingo diete.

Abenduak 2, udaletxean, 18:00etan hasita.

OÑATI Eltzia proiektua: saio irekia

Eteo eraikina izango dena definitzeko egindako lan saioen azkena egingo dute. Herritar, eragile eta auzokideendako saio berezia izango da.

Abenduak 4, Eteo zaharrean, 19:00etan.

LITERATURA**OÑATI Lege kontuak argitzeko hitzaldia**

Aspectos legales: capacitación, incapacidad, tutela y voluntades anticipadas delako berbaldia egingo dute Nagusilaneko ordezkariak.

Abenduak 3, Pake Lekun, 17:30ean.

IKASTAROAK**ELGETA Droga-menpekotasun prebentzio tailerra nerabeendako**

13-15 urte bitarteko gazteendako tailerra izango da.

Bihar, zapatua, Elgetako gaztetxean, 17:30ean.

ARETXABALETA 'Zergatik ez?' tailerra

0 eta 6 urteko haurren gurasoendako tailerra. Besteak beste, hizkuntza aniztasuna, hizkuntzaren galtze prozesuak, erabiltzeko zailtasunen identifikazioa eta beste landuko dituzte.

Abenduak 4, Kuku Miku elkarteak, 17:30ean.

ELGETA Dinamizatzailea KZgunean

Ikastaroak egiteko aukera.

Abenduak 2, Kultura etxeko KZgunean, 16:00etan.

ZINEMA**KRITIKA****HELI ★★★★★**

Zuzendaria: Amat Escalante.

Herrialdea: Mexico.

Aktoreak: Armando Espitia, Andrea Vergara, eta Linda Gonzalez.

Iraupena: 105 minutu.

Ustelkerian harrapatuta

A skotan entzuten edo ikusten dugu komunikabideetan Mexikori buruzko informazioa: indarkeria, hilketak, ustelkeria... Bada, hori dena agertzen da Amat Escalanteren *Heli*-n. Filmaren lehenengo eszena ikusita argi dago istorio latz baten aurrean gaudela. Eszena hori abisu gisa agertzen da. Hortik aurrera ikusten dugunak familia arrunt baten istorioa ematen du: senar-emazte bikotea, euren seme-alaba eta senarraren aita eta arreba gaztearekin bizi dira Mexikoko bazter babesgabe baten. Senarrak auto-lantegi baten dihardu lanean. Bizikletaz doa lanera, eta euren bizimodua nahiko justua bada ere, bizitzeko

balio die. Arrebak ezagutzen duen mutila polizia edo armada talde berezietan mugitzen da, eta egun baten, horiek konfiskatutako eta gero gordetako droga pakete batzuk lapurtuko ditu. Handik aurrera, aipatutako familia biolentziaz eta ustelkeriaz beteriko istorio baten murgilduko da. Une horretan bueltatzen gara lehenengo eszenako egoerara. Irudi nahiko gordinak ikusiko ditugu: hilketak, torturak... Horrek guztiorrek polemika sortu du erakusten diren irudiengatik. Nahastuta ikusten dira torturak eta horietan parte hartzen eta ikusten ari diren pertsonen portaerak.

Amat Escalantek modu berezia du halako zinemara hurbiltzeko. Filmean ez da

askorik berba egiten. Planoen eta eszenen iraupena luzea da. Aktoreen interpretazioak oso neurtuak daude. Lan lehorra eta zuzena da. Ihes egiten du thrillerren erritmo bizitik eta horien estereotipoetatik. Zuzendariak bizitza normala erakutsi nahi du, eta nola inork ezin duen dagoen indarkeriatik eta ustelkeria girotik ihes egin. Biolentzia hori normalizatzen hartzen dute. Eguneroko bizitzan ezarrita dago. *Heli*-k ikuslearen parte-hartzea behar du. Filmaren erritmo berezia, agertzen diren irudi indartsuak... osagai gogorak izan daitezke, baina baliagarriak dira mundu horren ezaugarriak azaltzeko.

ANTONIO ZABALA



goiena

2013-11-29

BUKATZEKO

Burdinazko 100 urte bezeroen zerbitzura

- ▶ 2013an 100 urte bete ditu denetik saldu izan duen Bergarako Mugica Burdindegia
- ▶ Gipuzkoako Merkatuaren Federazioak omenaldia egin zion saltoki horri ekainean, 100 urteongatik

UBANE MADERA | BERGARA

"Momenturo egokitu gara merkatuaren exijentzietara; ahalegindu gara beti bezeroak ondo zaintzen eta zerbitzu ona ematen, eta Unife kooperatiba oso garrantzitsua da gure ibilbidean".

Laburbilduz, lau gako horiek dira Bergarako Mugica Burdindegia 100 urteko ibilbide oparoaren arrazoiak. Halakoetan ez da egoten eta trikimailu magikorik, ondo egindako lana baino.

Horren adierazle da saltokian dituzten kalitate ziurtagiriak eta baita Iñaki Muxika laugarren belaunaldiko semearen eta negozioaren oinordekoaren jardunbidea. "Burdindegiko saltzaile egin egiten da, ez da jaiotzen", aitortu du hark. "Hala ere, jarrera ere izan behar da", gaineratu du Irene Umerezek, Iñakiren amak. "Orain 12 urte lanean hasi nintzanean, aitak fabrikaz fabrika bidali ninduen, zerra-orriak saltzera, bezero berriak egiteko. Bezero asko egin nituen, eta 12 urteren ostean niri deitzen didate harremanetarako, aholku eske... Bidea egin egin behar izan nuen, bai, baina orain asko dakit eta oso eskertuta nago nigan konfiantza hori dutelako", dio Iñakik. Irene ama ez dabil oker, beraz.



Iñaki Muxika, Irene Umerez, Xabat Otxotorena eta Kristina Pozo, Mugica Burdindegian, asteon. | UBANE MADERA

Preserbatiboak, diabetesa...

100 urteko bide luze horretan denetik ikusi eta bizi izan dute muxikatarrek. "Preserbatibo bila etorri izan zaizkigu. Beste behin, batek nahi izan zuen neronek egitea diabetesaren proba eta odol ateratzea. Nahikotxo hase-



Federazioaren sariarekin. | MUGICA

rreru zen ezezkoa eman nionean... Jendeak uste du burdindegia garelako denetik saldu behar dugula", kontatu dute. Eta egia esan, zaila izango da bertan zerbait eskatu eta ez aurkitzerik, saltokiaz aparte bi biltegi ere badituztelako. Gainera, Unife kooperatibako sortzaile eta kide ere badira: "Ehun bazkide pasa gara hor. Oiartzunen dago. 8.000 m2-ko biltegia da, eta bazkideon artean produktuak erosten ditugu, azalera handiko saltokiekin eta lehiatzeko. Horri esker, orain, Gabonetan, eskaintza bereziak egiten ditugu produktu aktualekin eta oso prezio lehiakorrekina", kontatu du Iñaki Muxikak.

Barrenkalean hasi zuen ibilbidea burdindegia. "Emilio Muxikak zabaldu zuen, Hipolito eta Luis semeekin. Gero, Bidekurtzetako etxe oso hau erosi, eta behean denda jarri zuten. Biltegia dugun tokian lehen Casino Republicano zegoen", kontatu du berari kontatutakotik Irenek. Hark gogoan du, baita ere, jostailuak, Riotintoren kartutxoak... saltzen zituztela. Izan ere, mertzeria izandakoa ere bada burdindegia.

Ugazabez gainera, Kristina Pozo eta Xabat Otxotorena langileek ondo asko ezagutzen dute Bergarako Mugica Burdindegia: "Hemen ez gara batere aspertzen", diote, barrez.

AZKEN BERBA

AINTZANE OIARBIDE



Gehiengo nagusia

Aste honetan ikusi dugu Partidu Popularrak Wert ministroaren LOMCE legea babestu duela Espainiako Kongresuan. Gure burujabetzaren zutabe-tako bat, hezkuntza, erabat baliogabetu nahi duen lege honek kultura eta identitate desberdinak berdindu nahi ditu *Una grande y libre* doktrinapean zapalduz. Hezkuntza komunitate guztia aurka du PPK, oposizioko alderdi politiko guztiak ere bai, baina hauteskundeetan gehiengo nagusia atera zuenez, herriaren gehiengoaren aurka joateko eskubide osoa du; ez zilegitasuna, ordea. Raxoyren gobernuak hartu duen erabakia, hurrengo hauteskundeetan gehiengo osoa ateratzen ez badu, bertan behera geratuko da; beraz, ze zentzu eta ze ibilbide dauka herriaren gehiengoaren aurka setatzeak? Gure inguruan ere gehiengo nagusiaren erabilera zentzugabearen adibideak baditugu. Atez ateren aurka herritarren gehiengoak aurka azaldu da Gipuzkoako eta Debagoieneko hainbat herritan, baina Bilduren gehiengo nagusiak "herritar guztientzat onena" denaren inguruan galdetu ere, ezta entzun ere ez dela egin behar erabaki du herri gehienetan. Raxoyk erabiltzen duen argumentu bera. Han onartezina dena gurean ere onartezina.

4. edizioa

Kantari

Oñatiko saioa!

Oñatiko partaideok, eman azken erreposoa abestiari eta koreografiari!

ENTSEGUAK

OÑATIN Azaroaren 30ean, Gaztelekuan.

Etorri zuen lagunak animatzera. DJa ibiliko da giroa animatzen. Etorri disko-festara dantzara eta Kantariko gaztetxoak animatzera!

Informazio gehiago: 943 25 05 05 | blogak.goiena.net/kantari

BABESLEA:

SUPER BAT KONTUA

Amaia Txintxurreta
Kantariko aurkezlea